

# TXOSTENA

2022ko

Antonio Fernández Alvirá.  
*Memoria de forma*

**Bilbao**

gizartea eta kultura garaikidea  
sociedad y cultura contemporánea  
society and contemporary culture

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO



# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b>	<b>4</b>
Zuzendariaren gutuna	7
2019-2023 Programa Proiektua	9
Nor garen	12
Gure ekarpenak eta aktiboak	14
Garapen Jasangarriko Helburuak zeharkatzen dituen kultura-programazioa	20
<b>PROGRAMAZIO-ILDOAK</b>	<b>22</b>
Arte bisualak	24
Zinema eta ikus-entzunezkoak	54
Arte biziak	64
Literatura	78
<b>PROIEKTU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>94</b>
Sorkuntza artistikorako proiektuak	95
Arte eta kultura garaikideko praktika eta teoriako Masterra EHU-UPV	103
Az irratia. Azkuna Zentroko irratia	104
artxiboAZ	105
Argitalpenak	106
Bitartekaritza eta hezkuntza	107
Harreman instituzionalak. Nazioarteko proiektzioa	110
Publikoen komunitateak. Erabiltzaileentzako arreta	112
Lantegia. Ideien Laborategia	113
Hobetzeko planak	114
<b>ZERBITZUAK</b>	<b>116</b>
Mediateka BBK	117
dendAZ. Azkuna Zentroaren saltokia	119
Ekitaldiak. Espazioen kudeaketa	121
Jarduera Fisikoaren Zentroa	124
Golem Alhóndiga	127
Ostalaritza	129
<b>ADMINISTRAZIOKO KONTSEILUA ETA AZKUNA ZENTROKO TALDEA</b>	<b>131</b>
<b>ESKERRIK ASKO</b>	<b>132</b>





Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa da. Arte-sorkuntzaren inguruko ikerketa, berrikuntza eta garapenerako leku honetan, prozesu artistikoak emaitzekin batera agertzen dira.



M.Benito Piriz. / *M1 C4R4 NO P3G4 CON 3ST3 MUNDO*



CABELLO/CARCELLER. *Una voz para Erauso – Epilogo para un tiempo trans.* ©Elsie Ansareo

# ZUZENDARIAREN GUTUNA

## 2022: SUSPERTZEKO URTEA

2022a markak hausteko urtea izan da Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaon. Ikuspegi kuantitatibotik, 2019ko kopuruetara iritsi gara ia, Programa Proiektuaren lehen urteko horietara. 260.000 pertsona baino gehiago joan dira zinemara, ia 400.000 pertsonak erabili dituzte Mediatekaren zerbitzuak, eta 100.000 pertsona inguruk bisitatu dituzte erakusketak eta parte hartu dute zentroko jardueretan.

Era berean, aurrera goaz proiektu berriekin, hala nola Arte eta Kultura Garaikideko Praktikaren eta Teoriaren Berezko Masterraren lehen edizioarekin, UPV/EHUrekin lankidetzan. Masterrak diziplina arteko prestakuntza eta ezagutza eskaintzen ditu, praktika artistiko garaikideen eta kudeaketa kulturalaren inguruan, Azkuna Zentroaren programazioari lotuta. Eta proposamen artistiko garaikideak ulertzeko eta haien ezagutza zabaltzeko tresna berriak ditu, hala nola gure argitalpenak edo artxiboAZ: Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren Artxibo Digitala, 2010etik zentroan egindako jarduera artistikoa biltzen duena eta jardunean emandako lehen hilabeteetan 22.300 bisita eta ia 40.000 dokumentazio-deskarga izan dituena.

Artea sortzeko, ekoizteko eta zabaltzeko zentro bat gara, egunerokotasunerako pentsatua, eta sorkuntza artistikoko erreferente bat ere bai. Lantegia, gure Ideien Laborategia, dozenaka artistaren habitata da, eta horiek berrikuntza eta lengoia berriak ematen dizkiote gure programazioari eta egungo praktika artistikoarekin lotzen dituzte gure publikoak.

Eta nazioarteko begirada duen zentro bat gara. Batetik, beste herrialde batzuetako artisten programazioa dugulako, eta, bestetik, Europako zentroekiko lankidetzan eta testuinguru kultural globalean sare berriak irekitzen ari garelako.

Konexio berriak sortzeko interes horretatik dator ACuTe: Culture Testbeds for performing Arts and New Technology proiektuan dugun parte hartze estrategikoa. Berrikuntzako proiektu europarra da, teknologia berrien bidez arte eszenikoak ekoizteari eta esperimentatzeari, eta lankidetzak kulturalerako eta konpetentziak garatzeko modu berriak ezartzeari buruzkoa.

Europako kultura-zentro nagusiekin batera —Linze-ko Ars Electrónica, Berlingo European Theatre Convention, Dortmundeko Academy for Theatre and Digitality eta Osloko Det Norske Teatret-ekin—, berrikuntzak probatu eta testatu nahi ditugu, agertokian

istorioak kontatzeko moduan, ekoizteko moduan, eta publikoak haiekin elkarreragiteko eta konpromisoa hartzeko duen moduan.

Bestalde, Azkuna Zentroan Harbours for Arts & Culture proiektua jarri dugu abian, arku atlantikoarekin duten lotura geografikoagatik eta kulturaren alde egindako apustu argiagatik Bilboren homologoak diren hiriekin sinergia kultural berriak sortzeko, hala nola Porto, Bordele, Anberes eta Rotterdam hiriekin. Duela hiru urte, 2019-2023 Programa Proiektuaren bidez, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa bilaka zedin proposatu genuen, tokian tokiko eta nazioarteko begiradarekin, eta publikoen komunitate desberdinekiko elkarrizketari zabalik.

Horretarako, programazioa erdian jarri dugu, espazio gehiago ireki diogu arteari, eta Azkuna Zentroa sendotu dugu, sorkuntza artistikoa sustatzeko eta laguntzeko leku gisa, Lantegia gure ideien laborategi berriaren bidez; Mediateka berri dugu, XXI. mendeko liburutegia izan dadin; eta gure programak aktibatu eta nazioarteko sare berriak ehundu ditugu.

Nire ustez, kopuruek bermatu egiten dute ibilbide eta proiektu hori, etengabeko eraldaketan oinarrituta dagoena, aldi honetako egoeretara egokitzeak aukera eman diguna.

Alabaina, gehienbat, hau egin dugu: gizartean eztabaidak ireki; kultura proposatu praktika partekatu gisa, prozesu dinamiko eta sortzaile gisa, aldi berean bakarra eta kolektiboa den esperientzia gisa; sorkuntza garaikidea eta proiektu berrien sorrera sustatu; zentroari lotutako komunitate artistiko bat sortu, eta publiko berriengana iritsi.

Oraindik bide luzea dugu aurretik egiteko. Hazten jarraitu nahi dugu, azken urteotan lortu dugun posizionamendu on horri eusteko. Nire ustez, zentro hau garai berrietarako prestatuta dago, gizarteak eskatzen duen maila du: kulturaren irisgarritasuna, eskubide kulturalak, euskarri berriak, lengoia berriak, belaunaldien arteko arloa... gauzatutako errealitateak dira Azkuna Zentroan.

Hurrengo plan estrategikoaren nondik norakoak prestatzen ari gara, eta horren guztiaren bilakaera baizik ez da izango.

Gaur egun, arte eta kultura garaikidea sortzeko, ekoizteko eta zabaltzeko zentro bat gara. Eta, beraz, etorkizuneko kultura-ondarea eraikitzen ari gara.

Fernando Pérez. Azkuna Zentroa  
Alhóndiga Bilbaoko zuzendaria





# 2019-2023 PROGRAMA PROIEKTUA

2019-2023 Programa Proiektua eredu berri bat da, kultura garaikideari praktika, prozesu eta esperientzia gisa heltzeko, gizartearekin etengabeko elkarrizketan eta forma artistiko berrien bidez.

Pertsonak dira Azkuna Zentroko bizitzaren muina, gizartea eta kultura garaikidea uztartzen dituen “lokailua” baita, eta eragina baitu ingurunean, gizartea sortzaile, kritiko eta askotarikoagoa izan dadin lortzeko. Hori guztia, eraldaketan oinarritutako proiektu dinamiko baten bidez. Programazio osoa erabiltzaileei, ikus-entzuleen komunitate desberdinei zuzenduta dago, eta modu desberdinak bultzatzen ditu Zentroa esperimentatzeko eta bisitatzeko.

Programa Proiektua dagoen planteamenduaren azterketa batetik sortu da, bost urtean garatu beharreko plan estrategiko bat eraikitzeko, egungo ikuspegira egokitutako lan-ildo berriekin.

Emaitza gisa, programazio kulturalako ildoak finkatu dira, elkarren arteko harremanean, hizketan eta etengabeko mugimenduan, artistak oinarritzko ardatz gisa hartuta: Arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura, hezkuntza eta bitartekaritza zeharkako ardatz gisa hartuta.

Hona hemen gure ildo estrategikoak:

## 1. Gizarte eta kultura garaikidea erdian

Ildo estrategiko nagusia da, gainerako guztien elkargune. Lehentasunezkoa da gizartea eta kultura Azkuna Zentroaren oraingo eta etorkizuneko jarduera guztien erdian jartzea. Artisten aldeko apustua egiten du, eraldaketaren sortzaile diren aldetik.

## 2. Azkuna Zentroa, irekirik eta konektatuta

Loturak barruan eta kanpoan sustatzen ditu, sareak sortuz, bertatik nazioartera joz, eta espazioak eraikitzen ditu, sortzeko, partekatze, hitz egiteko, eztabaidatzeko, ikasteko eta aztarnak uzteko.

Eraikin osotik hedatzen da programazioa, eta, horrela, ohiko espazioek balio gehiago hartzeaz gain, toki berrietara iristen gara:

- 3 Erakusketa-espazioak: Erakusketa Areto nagusia -2 solairuan, Mediateka Galeria Mediateka BBKn eta BAT Espazioa Lantegia. Ideien Laborategian.

- 2 Arte bizietarako espazioak: Auditorioa eta Kubo Baltza
- 1 Ekoizpen artistikoko zentroa: Lantegia. Ideien laborategia
- 1 Mediateka sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimentaziorako
- 1 Osasunerako Jarduera Fisikoko Zentroa
- Terraza eta fatxada ere arterako espazioak dira.

## 3. Erabiltzaileengana zuzendutako ikuspuntu berria

Kontua da erabiltzaileen esperientziez berriz hausnartzea. Azkuna Zentroa esperimentatzeko modu berria sortu, dibertsitatea eta ikus-entzuleen komunitateak kontuan hartuz, haien beharrianak landuz, Azkuna Zentroa bisitatzeko modu berriak proposatuz, hobetzeko moduko esperientzia eraldatzaileak bizitzeko.

## 4. Ikus-entzule berriak hizketan aritzeko

Modu berriak asmatu, egungo eta etorkizuneko ikus-entzule berriekin komunikatzeko eta haiekin hizketan aritzeko. Informazioa haiengana hurbildu, elkarrizketak sortu, bilatzen gaituzten lekuetan egon, eta bilatzen ez gaituzten tokietan konplize, tresna, baliabide eta leku bat izan, auzoekin, komunitateekin eta ikus-entzuleekin konektatzeko.

## 5. Barneko mugimendua hobekuntza positiboa lortzeko

Elkarrekin lan egiten ikasi eta horretarako modu berriak sortu, era zeharkakoagoak, sortzaileagoak, geure metodologia eta tresnak euskarritzat hartuta; eta talde-lana eta harremanetan jartzeko eta elkartzeko modu berriak sustatu.

# 2022

## **ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEA SORTZEKO, EKOIZTEKO ETA ZABALTZEKO ERREFERENTZIAKO ZENTROA**

2019-2023 Programa Proiektua amaitu eta urtebetera, Azkuna Zentroak aurrera egiten du aldi honetarako ezarrita zeuden helburuekin, programa eta proiektu berrieekin, kultura garaikidea eguneroko bihurtuz. Programazioak, 200 jarduera baino gehiagoren bidez, arte bisualen, arte bizien, zinemaren, ikus-entzunezkoen eta literaturaren lengoia garaikide berrieekin lotzen du gizartea. Zentroan sortzen eta ikertzen diharduen arte-komunitateak gora egiten jarraitzen du, prozesuak eta emaitzak publikoekin partekatuz. Gainera, 2022an, bertako eta nazioarteko sareen irekiera suspertu da, epe luzerako lankidetzak sustatzeko trukearen, harremanen, baterako sorkuntzaren eta kultura-elkarlanaren bidez.

## **PROGRAMAZIOA: BEREZKO EKOIZPENAK**

2022ko programazioan arte bisualen proiektuak nabarmentzen dira, berezko hiru ekoizpenekin: Cabello/ Carceller talde artistikoaren *Ahots bat Erausorentzat. Trans garai baterako epilogo*, Estatu osoko urteko erakusketarik onenetakotzat hartua; Antonio Fernández Alvirak Terrazarako sortutako *Forma-memoria* erakusketa eskultorikoa; eta *Somewhere from here to heaven*, Erakusketa Aretoa mugimenduan dagoen irudiari eta sorkuntza esperimentalari zabaldu dion proiektua, zinematografiak erakusketa-gunean dituen aukerak aztertuz. Gainera, bi koprodukzio aurkeztu dira: Isidoro Valcárcel Medina artistaren *Arkitektura goiztiarrak*, MUSAC Gaztela Leongo Arte Garaikideko Museoarekin; eta *Zientzia frikzioa. Kide diren espezieen arteko bizitza*, Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroarekin (CCCB) egina.

## **PROIEKTU ETA ZERBITZU BERRIAK**

2022-2023 ikasturtea UPV/EHUrekin batera garatutako Arte eta Kultura Garaikideko Praktika eta Teoriaren Berezko Masterraren lehen urtea izan da. Prestakuntza-programa hau ezaugarri hauek dituen lehena da Euskadin, eta praktika artistiko eta kultural garaikideen errealitate berria ikuspegi aplikatu batetik ulertzeko beharraren emaitza da. Master honetako ikasleak Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentro baten programazioan lantzen diren gai guztietan trebatzen dira: proposamenaren aurkezpenetik hasi, eta administrazio- eta finantza-kudeaketara, ekoizpen teknikoa, marketin- eta komunikazio-plana edo kultura-instituzio

publiko eta pribatuekin lankidetzak-sareak aktibatzea barne hartuta.

Halaber, jarduera eta proposamen artistiko garaikideetan hezteko, eta haiek zabaltzeko eta zaintzeko tresna gisa, artxiboAZ aktibatu da, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren Artxibo Digitala. Online gordailuak zentroa ireki zenetik izan den ekoizpen artistikoa bildu, sailkatu eta zabaltzen du, euskal sorkuntza garaikidearekin lotutako era guztietako edukien artxibo bihurtuz.

## **FORMATU BERRIAK, PUBLIKO GEHIAGO**

2019an Programa-Proiektua abian jarri zenetik, aurrera egin da programazio-eredu hibrido eta multilateralak garatzen, publiko-komunitateei garaikide denaren eguneroko esperientzia errazteko, kultura esperimentatzeko modu berriak proposatuz.

AZ Irratiko podcast-zikloen kasua da hori. Erakusketen begirada zabaltzen dute, ahozkotasanaren inguruko ikerketa-proiektuen parte dira, edo monografiak proposatzen dituzte komiki eta nobela grafikoetako funtsezko figurei buruz.

Bitartekaritza-programak ere dibertsifikatu dira, erakusketa guztien bisita gidatuekin, komisarioekin eta/edo artistekin iruzkindutako ibilbideekin, eta familia- eta eskola-publikoentzako jarduerekin.

Publikoaren eta sorkuntza artistikoaren arteko elkarketa erakusketatik edo ikuskizunetik haratago proposatzen da, hausnarketa kolektiborako eta jakintzen trukeerako uneak eta espazioak sortzeko, eta Ate Irekien Urteko Jardunaldia da haien adierazpen gorena. Zentroan eta hiriko beste espazio batzuetan sortzen diren konexioek artea eta kultura proposatzen dituzte hiri-bizigarritasuna hobetzeko ekarpen gisa.

## **SORKUNTZA ARTISTIKOAREN ERREFERENTEA**

Sorkuntzari laguntzeko programaren bidez, dozenaka artista ari dira lanean Lantegia Ideien Laborategian, zentroaren programazioarekin lotutako lengoia garaikideen inguruko proiektu eta ikerketa artistikoak jorratzen. 2022an, honako hauek izan dira gunen honetan: Isabel de Naverán eta Aimar Arriola Azkuna Zentroko ikertzaile AZkideak; Elena Aitzkoa, Laida Lertxundi, Ion Munduate eta Miguel A. García Azkuna Zentroko artista AZkideak; Victoria Ascaso, M. Benito Píriz, Jonathan García Lana/Tunipanea, Blanca Ortiga, Ander Pérez Puelles eta Macarena Recuerda Shepherd Babestu Sorkuntzari laguntzeko programako egoiliarak; eta zentroko kolektibo egoiliar berria den Urbanbat.

Lanean izeneko programaren bidez, 2022an hainbat konpainiak landu dituzte beren prozesu artistikoak: Societat Alonsok "Hammamurgia" bere azken piezako lanaren zati bat garatu du Azkuna Zentroan, eta Poliana Lima koreografoak "Urre beltza" sortu du Lantegian, La Abadía antzokiaren azken Udazkeneko Jaialdian estreinatuzuen pieza.

Nazioartean, 2022an, Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren lehen edizioa egin da, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok hautatutako Higinia Garayrekin, Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image de Angoulême hautatutako Marine des Mazeryrekin eta Quebeceko Maison de la Littérature hautatutako Jimmy Beaulieuarekin. Esperientzia hori aitzindaria da Euskadin, nazioarteko kultura-plataforma baten abiapuntua ere bada, eta obra grafikoaren esparruan sormena bultzatzeko eta egileei beren sorkuntza-prozesuetan laguntzeko xedea du. Gainera, aurten kontaktuei ekin zaie berriz, Praktika Artistikoen Nazioarteko Egonaldia eta Nazioarteko Dantza Egonaldia berpizteko.

## **NAZIOARTEKO SAREAK**

2019-2023 Programa Proiektuaren ardatz estrategikoetako bat nazioartekotzea da, eta, hori hauspotzeko, sortzaileen, profesionalen, eragileen eta tokiko eta beste herrialde batzuetako instituzioen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzaren sustatzen eta errazten duten sareak erabiltzen dira. Horrela, sorkuntza garaikideko egonaldien programaren bidez, hurbileko sormen-sarea nazioarteko kultura-ingurune homologagarriekin lotzen da, trukeak, harremanak eta lankidetzaren iraunkorrak eta elkarrekikoak bilatuz.

Gainera, joan-etorriko jarduera instituzional bizia egiten da, munduko hainbat lekutako bienal, azoka eta kultura garaikideko zentroetako arduradunekin elkartzeko, eragile sortzaileen eta ICCen nazioarteko harremanak areagotzeko helburuarekin.

2022an, ACuTe: Culture Testbeds for performing Arts and New Technology aktibatu da, eskala handiko berrikuntza-proiektu europarra, sortzen ari diren teknologien bidez arte eszenikoak ekoizteari eta esperimentatzeari eta, orobat, kultura-lankidetzarako eta gaitasunak garatzeko modu berriak ezartzeari buruzkoa.

Europako Batzordearen finantziakoa duen proiektu horretan, Azkuna Zentroak partner estrategiko gisa parte hartzen du, Europako erreferentzia kulturalerako 14 erakunde eta zentrorekin batera; horien artean, nabarmentzekoak dira Europako ETC antzoki-sarea, Graz, Linz, Craiova, Nova Gorica, Oslo, Lieja, Tallinn eta Amsterdameko antzokiek osatua; Ars Elektronika arte, teknologia eta gizarte-zentroa; Dortmundeko antzerkiaren digitalizatzearen aldeko akademia, eta Herbehereetako eta Finlandiako zientzia aplikatuetako bi unibertsitate.

2022 eta 2025 bitartean, Azkuna Zentroak esparru horretan garatzen diren 9 egonalditik 4 kudeatuko ditu, baita programan aurreikusitako ekoizpen esperimentaletako bat eta ezagutza trukatzeko mintegi bat ere.

Gainera, Azkuna Zentroak Harbours for Arts & Culture proiektua garatzen jarraitzen du, arku atlantikoaren lotura geografikoagatik eta kulturaren aldeko apustu argia egiteagatik Bilborekin homologoak diren hiriekiko kultura-sinergia berriak sortzeko: Porto, Bordele, Anberes eta Rotterdam. Laurak, Bilborekin batera, zerbitzu-hiri bihurtutako hiri industrializatuen bilakaeraren eta berrikuntzaren adibide dira. Guztietan sortu dira kultura garaikideko eta sorkuntza artistikoari laguntzeko zentro eta espazio berriak, eta leku enblematiko bilakatu dira.

Aukerak aztertu eta mapatu ondoren, proiektuaren bigarren aldiari ekin diogu, hiri horietako kultura-zentro, programa eta instituzioekin prospekzioak eginez, eta haiekin harremanetan jarriz, zentroaren hurrengo urteetarako programazioari begira lankidetzaren proiektuak jorratzeko.

# NOR GAREN

## GURE EGINKIZUNA

Gure eginkizuna da loturak sortzea pertsonen eta kulturaren artean, ingurunean eragiteko, eta gizarte kritiko, sortzaile eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzeko.

Kultura garaikidea praktika gisa, prozesu gisa, artisten, agente eta komunitate artistikoen bidez eta programazio-eredu hibridoekin esperientzietarako espazio gisa bizitzeko lekua da Azkuna Zentroa.



CABELLO / CARCELLER. Una voz para Eularo. Epilogo para un tiempo trans

## GURE IKUSPEGIA

Gure ikuspegia da Azkuna Zentroa espazio publiko askotarikoa eta gizarte eta kultura garaikidean erreferentea izatea, hala hemen nola nazioartean. Lurraldean eta bertan bizi diren pertsonengan eraldaketa eragingo duen epizentroa izatea.



Gutun Zuria Bilbao

## GURE BALIOAK

Hainbat balio lantzen ditugu: iraunkortasuna, ekonomiari eta energia-eraginkortasunari dagokienez; espaziorako eta programaziorako irisgarritasun unibertsala; eta berdintasuna, pertsona guztientzako gunea sortuz.



Sahatsa Jauregi. Aizkora

## GURE LAN-ILDOAK



# GURE EKARPENAK ETA AKTIBOAK


Hiriko proposamen kulturala zabaldu dugu, arte garaikidea, kultura eta jakintza eskuratzen lagundu baitugu. Gizarteak kultura garaikidearekin duen harremana berrikusi dugu, eta programazioa eta esperientziarako eta pentsamendurako espazioak aktibatu. Zentroak 5 aktibotan egiten duen ekarpena neurtzen dugu:



## 01. GIZARTEA



## 03. HIRIA



## 05. EKONOMIA



## 02. ARTEA ETA KULTURA

*Ciencia Fricción.  
Vida entre especies compañeras*



## 04. HARREMANAK

ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts  
and New Technology



# 01. GIZARTEA

## ZER

Gizarte kritikoagoa, sortzaileagoa eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzen dugu, programazioaren bidez eta publikoen komunitateen arteko lotura errazten duten espazioen bidez.

## NOLA

Esperientziak eta eztabaida publikoa eskaintzen ditugu gure gizartearentzat funtsezkoak diren arloetan, eta publikoen komunitateen jakin-mina sustatzen dugu, jakintza kritikoa sortzeko eta artearen eta artisten bidez gizartea eraldatzeko.

## ZENBAT

**5.694**

bisitari egunean Azkuna Zentroan 2022an batez beste

**290**

parte-hartzaile egunean programatutako jardueretan

**23.161**

parte-hartzaile online-programazioan

**5.406**

jaulkiriko AZ txartelak

**1.159**

parte-hartzaile bisita gidatuetan

# 02. ARTEA ETA KULTURA



*Ciencia Fricción. Vida entre especies compañeras*

## ZER

Lankidetzako komunitate profesionalak sortzea, arte- eta kultura-sektorearen harrobia izan daitezen, hain zuzen, alderik sortzaileena.

## NOLA

Kontaktu, ideia-truke, prozesu eta proposamen artistikoen bidez kultura garaikidea ekoizteko espazio bat eratuz. Eta pres-takuntzako proposamenak garatuz, jakintza garaikidea susta-tzeko eta azaltzen ari diren profesionali laguntza emateko.

## ZENBAT

219

jarduera Azkuna Zentroak programatuta

266

artista

31

artista, artista-kidea eta ikertzaile egoilarra

19

erakusketa eta Instalazio artistikoa

50

bitartekaritza eta hezkuntza jarduerak, tailerrak

33

zuzeneko ikuskizun

54

film jatorrizko bertsioan





## 03. HIRIA / BILBO

ZER

Bilbo kulturaren eta jakintzaren hiri gisa kokatzen laguntzen duen ekosistema kulturalaren parte gara, 2030eko Agendaren garapen iraunkorraren helburuekin bat etorritz.

Kultura irekia eta integratzailea sustatzeko Euskadik duen strategiaren parte gara, nazioartean presentzia handiagoa lortu nahi duena, sorkuntza artistikoa eta euskal kultura- eta sorkuntza-industriak bultzatuz.

NOLA

Sarean lan eginez lehen mailako espazio eta proiektu garaikideekin, eta jarduera instituzional bizia garatuz, munduko hainbat tokitako bienal, azoka eta kultura-zentroetako arduradunekin elkartzeko, nazioarteko harremanak zabaltzeko xedez.

ZENBAT

**2.078.424**

pertsonak bisitatu zuten Azkuna Zentroa 2022an

**89.663**

pertsonak parte hartu dute programatutako jardueretan

**83,52%**

jarduera Fisikoen Zentroko sarbideen % 83,52 Bilbokoak dira

**85,35%**

haurrentzako materialen maileguen % 85,35 liburutegietako txartela Azkuna Zentroan lortu duten haurrei dagokie

**43,74%**

mediatekako maileguen % 43,74 haurrentzako materialak dira

**116.392**

AZ txartela erabiltzen duten 116.392 pertsona Bilbokoak dira

**218.199**

ikusle Golem Alhondiga zinema-aretoetan

# 04. HARREMANAK



ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology

## ZER

Tokiko eta nazioarteko kontaktuak eta harremanak garatzen laguntzen dugu, Alhóndiga hedatuaren kontzeptuarekin, berrikuntza, nazioartekotzea eta finantza-konpromisoa eskaintzen baitigu.

## NOLA

5 mailatako lokailuak gara: programazio-zentroyen sarea, artisten sarea, babesleen eta laguntzaileen sarea, publikoen komunitateen sarea eta hornitzaileen sarea.

## ZENBAT

64

kultura-zentro eta -erakunde garaikide

20

nazioarteko kultura-zentroa

6

kultura-instituzio eta -institutu

5

unibertsitate

18

lankidetzako kultura-programa



# 05. EKONOMIA

ZER

Azkuna Zentroa eragile aktiboa da Bilbo nazioartekotzeko eta gure inguruko kultura-sarearen bidez tokiko ekonomia bultzatzeko.

NOLA

Zentroaren autofinantzaketa maximizatzeko lan egiten dugu, babesleen eta erakunde laguntzaileen ekarpenaren bidez, bai eta gizartearentzat interesgarriak diren zerbitzuen bidez ere.

ZENBAT

**30,62%**

% eko autofinantziazioa (Jarduera Fisikoaren Zentrotik, DendAZetik eta Kultur Programaziotik datozen diru-sarrerak, babesak eta diru-laguntzak)

# GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK ZEHARKATZEN DITUEN KULTURA-PROGRAMAZIOA

Berez garapen jasangarriko helburua ez den arren, kultura zeharkako eta ezinbesteko faktorea da 2030 Agendaren erronka lortzeko: zibilizazio jasangarrirako trantsizioa egitea, naturarekin eta izaki bizidun guztiarekin arduratsua eta inklusiboa, pertsona guztientzat ongizatea lortzeko planetaren mugen barruan. Mundu-mailako konpromiso garrantzitsu eta erabakigarri horren ildotik, bai eta Bilboko Balioen Gutunean jasotako beste batzuen ildotik ere, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren programazioak ibilbide-orri global horretan ezarritako ia helburu guztiak betetzen ditu, gizartearekin lotu eta hura eraldatzeko funtzioetik abiatuta, eta ondo sinetsita artea gai dela balio berriak sustatzeko eta gizadia garatzen laguntzeko behar den sormena emateko.

Ildo horretan, Azkuna Zentroak eztabaidak zabaldu ditu gizarte garaikidearen errealitateari, dibertsitateari eta aniztasunari buruz, eta xehe aztertu ditu praktika artistikoak egungo mundua berriz irudikatzeko eskaintzen dituen aukerak, formatu askotarikoetan garatutako bere lau programazio-ildoen bidez eta hizkuntza sortzaile berrien bidez.

## ARTE BISUALAK

Osasuna eta ongizatea, hezkuntza, berdintasuna, desberdintasunak murriztea, bakea eta justizia dira helburuak etorkizun jasangarriago bat lortzeko, eta 2022an zentroan izandako erakusketa-proiektu ia guztiak zeharkatu dituzte. Gorputza, generoa eta identitatea kategoria askotariko eta aldakor gisa agertzen dira Cabello / Carceller kolektibo artistikoaren *Ahots bat Erasorentzat*. *Trans garai baterako epilogo*; Grimanesa Amorós artistaren *SCIENTIA* argi-instalazioak zaintza-espazio bat eratzen du osasun mentalerako; eta Elena Aitzkoaren *Lendia Song* proiektuko eskulturak gonbidapen dira eraldaketa sentikorra egiteko, besteak beste. Testuinguru berean dago Sra. Polaroiskaren (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxeren) lan artistikoa, erreferente posible berriak sortu nahi baititu, hain zuzen, adineko emakumeak, ebidentziak zalantzan jarriz eta estereotipoetatik ihes eginez.

Isidoro Valcárcel Medina artistak *Arkitektura goiztiarrak* lanarekin espazioari eta hiriei buruz egiten dituen hausnarketa kritikoek, eta arteak eta kulturak nola lagun dezaketen bizigarritasun-baldintzak hobetzen hausnartzeko Urbanbategi proposatu duen *Behatokia* proiektuak ikuspegi artistikotik erakusten dituzte hiriaren erronkak.

Izan ere, gaur egun gizartea egitea ekosistemekin gertatzen ari denari buruz ikasteko eta trukatzeko lekuak izatea ere bada. Ingurumen-humanitateak deiturikoen agerpenak eta zientziaren filosofiak izandako biraketa berriak argi islatzen dute gizarte eta artearen sentimendua hausnartzeko gune gisa, *Zientzia frikzioa*. *Kide diren espezieen arteko bizitza* erakusketak agerian uzten duen bezala. María Ptqk komisarioak hainbat proposamen artistiko batu ditu proiektu horretan, oreka ekologikoaren alde egiten dutenak, gizateria espezie gisa irauteko oinarritzkoa baita.

## ARTE BIZIAK

Bestalde, zentroaren proposamen eszenikoa hazkunde positiborako pentsatuta dago, egiten duenaren esperientzia eta presentzia gisa, baita begiratzen duenaren, interpelatzen duenaren eta interpelatua denaren esperientzia eta presentzia modura ere, dibertsitatea ikusaraziz eta berdintasuna bilatuz. Ikuskizunak baino gehiago paisaiak eta espazioak dira, eta publikoa eszenaren parte da modu indibidual, subjektibo eta bakarrean, hala nola Amalia Fernándezen *Neti, neti* lanean. Beste kasu batzuetan, aurrez ezarritako eskemak hausten saiatzen dira, balio matxisten kontrapuntu gisa eta gizarte bidezkoago bat lortu nahian, Sleepwalk Collectivek *Swimming Pools* obran planteatzen duen bezala; edo gorputz helduen duintasuna eta presentzia aldarrikatuz, aurten Azkuna Zentroaren Arte Eszenikoen Denboraldian Guillermo Weickertek aurkeztutako "Parece nada" lanean proposatzen duenez. Hori guztia egitura narratibo, formatu eta lengoia berrien bidez, sormen-horizonteak pizten eta zabaltzen baitituzte, Societat Alonsok *Hammamurgi*arekin egiten duen moduan.

## ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Azkuna Zentroko Zinematekak eta zentroan egiten diren hiriko jaialdiek kontzientziazioa sustatzen dute aldaketa soziala lortzeko, ondo sinetsirik desberdintasuna balio bat dela eta marjinaltasuna -bakterean eta periferian dagoena- zentrala baino positiboagoa eta, batez ere, jasangarriagoa izan daitekeela.

Konpromiso hori gehienbat gaur egungo emakume zinemagileen begiradatik dator, horiek beste modu bat erakusten baitute zinema egiteko, haien istorioek ezinbesteko garrantzia baitute portaera sozialetan eragiteko

eta betikotu diren eskema eta egitura patriarkalekin hausteko. Zinemakumeak gara!, Zinegoaz, Zinema Ikusezinaren Jaialdia eta Zinexit jaialdi horietako batzuk baizik ez dira, funtsezko oinarriak agerian jartzen dituztenak mundu baketsu, oparo eta jasangarria eraikitzeko, hala nola genero-berdintasuna, lan duina, desberdintasunak murriztea, hiri eta komunitate jasangarrietarako bilakaera, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, bakea eta justizia.

## LITERATURA

Hitz egitea, kontatzea, elkarrekin izatea, ahotsa ematea... Hitzak, eraldaketa soziala sustatzeko transmisio-uhala gisa, alderik alde zeharkatzen du Gutun Zuria Bilbao, zentroko literatura-programazioaren ardatz nagusia.

Azkuna Zentroko Letren Nazioarteko Jaialdiak itzulpenari begiratu dio 2022an, mundua aldatu nahian munduan egoteko modu gisa ulertuta. Halaber, kulturen arteko zubi gisa eta hizkuntza gutxituen bozgorailu gisa, isildutako ahotsen eta bidezko garapena lortzeko beharrezkoak diren dekolonizazioen bozgorailu. Azken batean, pertsonentzat eta planetarentzat etorkizun inklusibo, jasangarri eta erresiliente bat eraikitzeko katalizatzaile gisa.





*Ciencia Fricción. Vida entre especies compañeras*

# PROGRAMAZIO ILDOAK

## GIZARTE ETA KULTURA GARAIKIDEA

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao gaur egun sormenaren inguruko arte-, artista- eta herritartasun-, ikerketa-, garapen- eta berrikuntzahabitata da. Artearen bidez gogoeta eta pentsamendu kritikoa egiteko pentsatutako programazioa, hiriko kulturaren gizarte-saretik eta gizarte-sarearekin lan egiten duena; tokiko eta nazioarteko kultura garaikideko beste espazio eta proiektu batzuekin elkarrizketan.

Kultura garaikidea 4 programa-lerrotan lantzen dugu —Arte bisualak, Arte biziak, Zinema eta Ikus-entzunezkoak eta Literatura—, eta elkarrekin hitz egiten dute arte-hizkuntzak eta diziplinak konbinatzen dituen programazio batean.

Kultura garaikidea 4 ildo programatikotan lantzen dugu: Arte bisualak, Arte biziak, Zinema eta Ikus-entzunezkoak eta Literatura, sorkuntza, gizartea eta kultura digitalak zeharkako lerro gisa lagunduz. Denak hizketan ari dira elkarrekin, lengoia artistikoak eta diziplinak uztartzen dituen programazio batean.

### Arte bisualak

Arte bisualen programazioa arte plastikoaren, ikerketaren, pentsamenduaren, komisariotzaren, kritikaren eta forma berrien eremu hedatua da, bertako eta nazioarteko artista, komisario eta espezialistekin batera garatua. Sortzaile garaikideen banakako eta taldeko erakusketen bidez gauzatzen da, baita artea literatura, dantza, zinema, hezkuntza eta beste sistema batzuekin lotzen duten proiektuen bidez ere.

Erakusketa-programa garatzean, koprodukzioa eta ibiltaritza dira xede, eta elkarrizketa egiten da beste espazio batzuekin, edukiak aberasteko, komunitatea sortzeko eta gizartean esperientzia berriak abiarazteko.

### Zinema eta ikus-entzunezkoak

Zinema eta ikus-entzunezkoen sorkuntza egituratu egiten dira, ikus-entzunezkoen adierazpen garaikideak zinema klasikoarekin bateratu nahi dituen programazio batean. Azkuna Zentroa Bilboko Zinematekaren egoitza da, eta haren programazioan batera uztartzen ditu autore-zikloak eta bertako eta nazioarteko ikus-entzunezko komunitate artistikoa ikusarazten duten programazioak. Era berean, ikus-entzunezkoa da sorkuntzan laguntzeko programen bidez Zentroan garatzen diren proiekturik esperimentalenen ernamuina.

Zentroaren aliatu nagusietako bat Golem Alhóndiga da, haren zinema-emanaldiarekin, zinemak Bilbon duen egoitza nagusia baita, programazio egonkorrekin, estreinaldiekin eta zinemaldiekin.

### Arte biziak (antzerkia, dantza, musika, performancea)

Arte biziaren programazio egonkorra forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketa proposatzen ditu. Gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Musika esperimentalaren eta soinu-artearen esparruan, Zentroak apustua egiten du musikarekin eta soinuarekin lotuta dauden esperientzia artistikoen alde, musikalak edo harmonikoak ezinbestez izan beharrik gabe. Musika esperimentalaren eta soinuaren urteko programak nazioarteko eta bertako artistak biltzen dituzten musika-entzunaldiak ditu, eta soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko tailerrak eta topaketak ere bai.

### Literatura

Hitza, adierazpen literarioaren bitarteko legez eta pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren ardatz legez; hitza da, hain zuzen ere, Azkuna Zentroaren ardatz programatikoetako bat.

Programazioak literaturaren ikuskera garaikideari heltzen dio, liburuak, letrak eta irakurketa gaindituz, eta zabaltzen da ahozko adierazpenaren eta transmisioaren artera, ikus-entzunezko narratibara, marrazkira eta komikira. Era berean, ezagutzera ematen du bertako sormen urbanoa eta euskarari lotutakoa, publiko familiarrari lotuago dauden adierazpenak, eta azaleratzen ari diren ahots berriak eta hegemonikoak ez diren hizkuntzetakoak.

# ARTE BISUALAK





Arte bisualen programazioa arte plastikoen, ikerketaren, pentsamenduaren, komisariotzaren, kritikaren eta forma berrien eremu hedatua da, bertako eta nazioarteko artista, komisario eta espezialistekin batera garatua. Sortzaile garaikideen banakako eta taldeko erakusketen bidez gauzatzen da, baita artea literatura, dantza, zinema, hezkuntza eta beste sistema batzuekin lotzen duten proiektuen bidez ere.

Erakusketa-programa garatzean, koprodukzioa eta ibil-taritza dira xede, eta elkarrizketa egiten da beste espazio batzuekin, edukiak aberasteko, komunitatea sortzeko eta gizartean esperientzia berriak abiarazteko.

**16**

erakusketa, erakusketa-proiektua, instalazio artistikoa

**203**

artista, komisarioa... eta beste kultura-eragile batzuk

**75**

jarduera

**81.065**

arte bisualeko programara bertaratutakoak

**31**

artista egonaldietan

# ERAKUSKETAK

## ERAKUSKETA ARETOA

Erakusketen eta ikusizko arteen programazioak barne hartzen du erregistro garaikidearen barruan Zentroko espazioak erabil ditzaketen artisten, obren eta komisarioen hautaketa.

Azkuna Zentroak ez du arte-bildumarik, baina sorkuntza sustatzeko eta artisten habitat bihurtzeko ideiatik babesten du arte-ekoizpena. Ikusizko arteak zentroko hiru erakusketa-aretoetan erakusten dira, eta horietako bakoitzak gai desberdinetara jotzen du, programazioaren barruan.

-2. solairuan dagoen Erakusketa Aretoan, tokiko eta nazioko nahiz nazioarteko arte-arloko figura garrantzitsuen erakusketa-proposamen garaikideak daude.

# Roma Akademia

## Artistak.

### Processi 146

José Ramón Amondarain, Taxio Ardanaz, Itziar Barrio, Igor Bragado, Andrea Canepa, Nicolás Combarro, Isolina Díaz, Lara Dopazo, Silvia Fernández, María Ángeles Ferrer, Pablo Fidalgo, Pedro G. Romero, Begoña Huertas, Julia Huete, María Moraleda, Jorge Portillo, Marta Ramos Yzquierdo, Estibaliz Sádaba, Fernando Sánchez-Cabezudo, Borja Santomé, Anna Talens, María del Mar Villafranca, Tono Vizcaíno

### Processi 147

José Ramón Ais, Carla Berrocal, Antonio Buchanan, Ana Bustelo, Joana Cera, Jorge Cubero, Federico Guzmán, Susanna Inglada, Montserrat Lasunción, Jana Leo, Jorge Luis Marzo, Irene-Clémentine Ortega, Javier Pividal, Enrique Radigales, Pantxo Ramas, Adolfo Serra, Begoña Soto, Claudio Sotolongo, Eduardo Soutullo, Javier Verdugo, Manuel Vilas, Ana Zamora

2021ko urriaren 28tik 2022ko otsailaren 6ra

## Komisarioa.

Jesús Donaire

## Elkarlanean.

Real Academia de España en Roma eta AECID

## Bisitariak.

13.274

## Jarduerak.

Azalpen bisitak

Irakurketa, performancea: Marta Ramos-Yzquierdo. "Trabajar menos. Hacer más"

Topaketa: Estibaliz Sádaba. "Procesos romanos"

Irakurketa, topaketa: Jorge Luis Marzo. "Las videntes. Imágenes en la era de la predicción"

Tailerra: Adolfo Serra. "Ilustrazio, sormen eta istorioen sorkuntzako tailerrak"

Ibilbide ludikoak



Roma Akademia ©Ixone Sadaba

Azkuna Zentroak *Roma Akademia* erakusketa aurkezten du, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) urteko bekaren bidez 45 artistak Erromako Espainiako Errege Akademan (RAER) izandako egonaldian egindako lan eta proiektuekin

Jesús Donairek komisariatutako erakusketa-proiektu honek programaren ikuspegi multidisziplinarioa erakusten du: pinturatik hasi eta argazkigintzara, arte biziak, ikerketa, zinemaa, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritzea barne hartuta. Lan guztien izendatzaile komuna artistek kultura-eragileekin eta Erromako errealitate ugariarekin duten interakzioa da.

Roma Akademia Zentroko gune guztietan egongo da: Erakusketa Aretoan, Lantegia. Ideien Laborategian, Atarian eta Mediateka BBK-n.

Proiektua erakusketaren katalogoarekin osatuko da, parte hartzen duten 45 artisten sormen-prozesuen azalpenarekin.



Roma Akademia ©Ixone Sadaba

### **Erroma, sorkuntzaren eta ikerketaren topaleku**

1873an sortua, Erromako Espainiako Akademiaren helburu nagusia, Kanpo Arazoetarako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren menpean, sorkuntza artistiko eta ikerketako prestakuntza artistiko eta humanistikoan laguntzea da.

147 urte pasa dira, eta Akademiak arte ekoizpenerako eta ezagutze sortzeko zentro gisa jarraitzen du. Sortzaileentzat topagunea da, beren proiektuak monumentu-multzoaren tradizioaren eta gizarte global eta teknologikoaren etengabeko berrikuntzaren artean garatzen dituztenak. Ia 1.000 egoiliar elkarrekin bizi izan dira Erroman eta haien arteko harremanak sortu dituzte etengabeko elkarrizketan

Azken zazpi urtetan AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren ekoizpenerako laguntzak jaso ditu. Horrela, Espainiako arte-egoitza garrantzitsuenetako bat da Akademia, nazioartean erreferentzia diren beste sorkuntzarako zentrozen antzekoa.

*Roma Akademia* erakusketa 2018-2019 (Processi 146) eta 2019-2020 (Processi 147) promozioetako 45 egoiliarrek Akademan garatutako lan eta proiektuak biltzen du.

2020 urteko pandemiaren ondorioz kultura-erakundearen programazioetan eragin handia izan zuen egoera zela eta, 2018-2019 eta 2019-2020 promozioetako lanen aurkezpena erakusketa bakar handi batean biltzea erabaki zen, lehen aldiz Euskal Herrian antolatutako erakusketa.

Azkuna Zentroan erakusten diren proiektuak margolaritza, eskultura, argazkigintza, diseinu indutrialak, bideoa, ikerketa, zinema, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritze arlokoak dira. Asko dira Espainiako Akademia Erroman zentruan elkarrekin bizi diren disziplinak, non izendatzaile komuna eragile kulturalekin eta hiriko errealitate anitzekin interakzioa den.

*Roma Akademia* Azkuna Zentroak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziarekin eta Espainiako Errege Akademia Erroman zentroarekin egindako koprodukzioa da.

## Taxio Ardanaz

### *Credere obbedire combattere* argitalpenaren aurkezpena

2021eko azaroaren 9a

Argitalpen autoeditatua da, eta Italian, Erromako Espainiako Akademiako bekadun gisa, 2019ko urtarriletik iraile-ra bitartean egindako material piktoriko eta artxibokoaren sorta zabala biltzen du.

Roma Akademiako artista ere baden Marta Ramos-Yzquierdorekin hizketan, Italiako egonaldian egindako lan horretaz arituko da.

## Marta Ramos-Yzquierdo

### *Trabajar menos. Hacer más*

2022ko urtarrilaren 11 eta 12a

Roma Akademia erakusketako artista den Marta Ramos-Yzquierdok, *Trabajar menos. Hacer más* (*Lan gutxiago egin. Gehiago egin*) bere proiektuaren barruan, *Hacer el indio en 77* (*Indioarena egin 77an*) hitzaldi performatiboa proposatu du, kuradoreak Erroman egin zuen bidaian zeharreko ibilbide gisa, lan egiteak zer esan nahi duen edo zer esan nahi dezakeen ulertzeko eta eginkizuna praktika artistikoetatik nola birpentsatu jakiteko.

## Ibilbide Ludikoak

2021eko abenduaren 1etik 2020ko otsailaren 6ra

Haurrei eta familiei zuzendutako jarduera da. 2018. eta 2020. urteen artean Erromako Espainiako Akademiaren egoiliar izan diren 45 artistaren erakusketa eta lana bisitatzeko du xede. Material didaktiko espezifikoaren bidez, ibilbide ludiko bat proposatzen da era askotako lengoaietara hurbiltzeko, hala nola pinturara, argazkigintzara, collagera, bideora, modara, diseinura eta ilustraziora. Aretoan egiteko moduko jolasak ere baditu, obra batzuetan inspiratuta.



Marta Ramos-Yzquierdo

## Estibaliz Sádaba

### *Procesos romanos*

2022ko urtarrilaren 19a

Estibaliz Sádaba artista bisual eta Arte eta Ikerketan dokto-reak Erromako Espainiako Akademiaren egonaldietan egindako bi lanak gauzatzeko prozesuak aurkeztuko ditu: *Soberakinak. Erromako hiriaren kartografia genero-ikuspegitik egiteko oharrak* (2017) eta *Etxeko subertzioak* (2020).

## Jorge Luis Marzo

### *Las videntes. Imágenes en la era de la predicción*

2022ko otsailaren 3a

Jorge Luis Marzo (Bartzelona, 1964) arte-historialari eta erakusketen komisarioak Erromako Espainiako Akademiaren egonaldian idatzitako *Las videntes. Imágenes en la era de la predicción* liburua aurkeztuko du.

# Cabello/Carceller

## *Una voz para Erauso. Epílogo para un tiempo trans*

2022ko martxoaren 10etik irailaren 25era

### **Artista.**

Cabello/Carceller

### **Komisarioa.**

Paul B. Preciado

### **Elkarlanean.**

Kutxa bilduma, Naizen: Nafarroako eta Euskadiko Adingabe Transexualen Familien Elkarte

### **Bisitariak.**

26.386

### **Jarduerak.**

Azalpen bisitak

Cabello/Carceller & Paul B. Preciado arteko topaketa

Topaketa Naizen elkartearekin

Argitalpena

Cabello/Carceller kolektibo artistikoaren lana egongo da ikusgai erakusketa-aretoan, hain zuzen, *Ahots bat Erausorentzat. Trans garai baterako epílogoa* erakusketa, kontakizun historikoaren eraikuntza eta queer eta trans politika garaikideak harremanetan jartzen dituen proiektua.

Diziplina arteko lanaren bidez Cabello/Carceller-ek instalazioa, performancea, fikzioko kontakizuna eta bideoa erabiltzen ditu, praktika bisualetako irudikapen-modu hegemonikoei buruz galderak egiteko eta alternatiba kritikoak proposatzeko.

Kasu honetan, artistek aurkitu zuten erretratu liluragarri bezain ezohiko bat da proiektuaren abiaburua: Juan van der Hamen-ek (ziurrena) Espainiako itsas armadako alferrez gisa jantzitako Katalina Erausori 1625 eta 1628 artean egin ziona, gaur egun Kutxa bildumakoa dena. Erauso 1592an jaio zen Donostian, emakumezko sexua esleitu, eta Katalina izena eman zioten. Sarritan "moja alferrez" izenez da ezagunagoa, neurri batean, bere autobiografiari esker, hor, "gizon gisa jantzita" komentutik ihes egin zuen neska gazte baten abenturak kontatu baitzituen, gero soldadu eta merkatari modura Espainiako inperioak Txiletik Mexikora kolonizatutako lurretan ibili zenarenak (besteak beste, Francisco Loyola, Juan Arriola, Alonso Díaz Ramírez de Guzmán... eta Antonio Erauso izenak hartuta).



Cabello / Carceller. *Una voz para Erauso. Epílogo para un tiempo trans*. ©Elssie Ansareo

Erakusketaren komisario Paul B. Preciadok nabarmendu duenez, "gizon gisa jantzitako Erausoren erretratu arte errenazentistaren historiako lehen erretratu "trans" har daiteke" nahiz eta nozio hori anakronikoa izan, XVIII. mendera arte ez baita existitzen. Baina, argitzen duenez, Erauso, bere erretratu bezala, itzalak dituen irudi bat da. "Olio-pinturaren atzealde beltz-beltzean aurpegi zorrotz bat agertzen da, baina begirada kezkarriki gozoa duena, eta, hala, ez dago aukerarik maskulinozkat edo femeninozkat jotzeko. Alabaina, maputheen genozidioan inplikaturata egonenez eta merkatu kolonialean izan zuen jarreraren ondorioz, figura deserosoa da trans historian". Horregatik, argi-ilunarena da erakusketaren estetika, Erausoren erretratuarena bezala.

Cabello/Carceller-ek Erausoren "erretratu" berri bat egin dute proiektu artistiko honetarako, eta trans pertsonaia berrien galeria batek interpelatzen du. Azkuna Zentroak ekoiztutako ikus-entzunezko lan hau Doxa Producciones-ekin

## Cabello / Carceller & Paul B. Preciado

Martxoak 10

**Audientzia.**  
279



Erakusketaren hasiera gisa, Cabello / Carceller eta Paul B. Preciado elkartu dira, artistaren ibilbideari eta Zentroan zetozen hilabeteetan ikusi ahal izango zen erakusketaren edukari buruz eztabaidatzeko.

filmatu da, Alberto sin Patrón izan da jantzien diseinatzailea eta Mursego arduratu da musikaz. Museo Reina Sofíak erosi du obra.

Horrela, erakusketa erretratuaren galeria analogiko-digital gisa eraiki da, non Erausok (bai 1625ko erretratu historikoak eta kopia, bai Cabello/Carceller-en erretratu berria) artisten aurreko lanaren beste irudikapen batzuekin bat egiten duen, besteak beste, lan hauekin: *Autorretrato como fuente* 2001ekoa, *Archivo: Drag Modelos* (2007-prozesuan), *Movimientos para una manifestación en solitario* (2021) eta *Lost in Transition\_un poema performativo* (2016).

Erakusketa-proiektua osatzen da jardueren programa publiko batekin, erakusketaren katalogoarekin eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako bisita-tailerren hezkuntza-programa batekin.

## Topaketa Naizen elkartearekin

Maiatzak 3 eta 4

**Audientzia.**  
121



Ikastetxeei zuzendutako jarduera hau gogoeta kolektiborako gune gisa planteatzen da, trans pertsonen errealitate askotarikoa ezagutarazteko. Erakusketa bisitatu ondoren, Hikaru taldearen *Transformatzen* dokumentala proiektatu da, gero elkarteko hainbat pertsonak beren bizitzaren lekukotasuna eman dute, eta, horrela, eztabaida hasi da haur eta nerabeen transexualitateari buruzko zalantzak argitzeko.

---

# Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers, Ana Vaz, & Eduardo Williams

## *Somewhere From Here to Heaven*

2022ko urriaren 28tik 2023ko apirilaren 16ra

### **Artistak.**

Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers, Ana Vaz, & Eduardo Williams

### **Komisarioa.**

Garbiñe Ortega

### **Bisitariak**

9.615

### **Jarduerak.**

Azalpen bisitak

Garbiñe Ortega, Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers & Eduardo Williams arteko topaketa

Argitalpena

*Somewhere from here to heaven* erakusketak Bruce Baillieren film-unibertsoak inspiratutako belaunaldi ezberdinetako artisten konstelazio bat marrazten du. Bruce Baillie ezinbesteko zinemagile bat izan zen 1960ko hamarkadan: abangoardia zinematografiko iparramerikarraren garrantzitsuenetako bat eta "zinema esperimental" delakoaren sustatzaile handi bat. "1961ean, Bailliek, beste lagun zinemagile batzuekin batera, emanaldi bat antolatu zuen Canyoneko (Kalifornia) etxe batean, "beste inon ongiatorrian ez ziren filmak" erakusteko, eta hori bakarrik bazen egintza iraultzaile bat une horretan. Keinu espontaneo horren ondoren, komunitate handi bat sortu zen. Horrek, bada, San Francisco Cinematheque elkarte eta orain arte munduko abangoardia-zinemaren banaketa-enpresa garrantzitsuenetako bat den Canyon Cinema kooperatiba sortu zituen", azaldu du Garbiñe Ortega erakusketaren komisarioak.

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoreneko izpen honekin zinematografiak erakusketa-espazio batean dituen aukerak esploratzen ditu, eta zinemaren ideia birpentsatu nahi du new mediaren aro honetan.

Erakusketak bi zati ditu. Lehena komunitate horrek –Bailliek eta Chick Strandek, Gunvor eta Robert Nelsonnek, Lawrence Jordanek eta beste batzuek–, 1940ko eta 1950eko hamarkadetako ekimenek inspiratuta, oraindik ere bizirik dagoen "familia" zinematografiko zirraragarri eta estimulagarria sortu zueneko garaira hurbiltzen da.

Erakusketaren bigarren zatiak Azkuna Zentroak Baillieren iruditeriak inspiratuta lan berriak sortzeko gonbidatu dituen lau artistaren lana hartzen du. Hona aipatu artistak: Apichatpong Weerasethakul (Thailandia), Ben Rivers (Erresuma Batua), Ana Vaz (Brasil) eta Eduardo Williams (Argentina). Ikus-entzunezko piezak egin dituzte Bruce Baillierekin eta haren filmen (*Valentín de las Sierras*, *Here I am*, *Mass for the Dakota Sioux* eta *All My Life*, besteak beste) unibertsoarekin elkarrizketan. Lan berri horiez gain, erakusketak J.P. Sniadecki zinemagileak ex profeso egin duen pieza bat aurkezten du: azken urteetan Brucerekin bizi izandako une intimoez betetako film bat, Baillie-ren beraren amaitu gabeko film baten irudi argitaragabeekin.

Baillieren 16 mm-ko film liriko eta behatzaile horiek guztiek, baita lau artista horien lanek ere, edozein genero edo kategoria saihesten dute, eta, era berean, alderdi mistikoa eta mundutarra, kosmikoa eta pertsonala, mitologikoa eta autobiografikoa uztartzeko interesa partekatzen dute. Etengabeko bidaia, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espiritual aurkitzeko bultzada dira proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk, artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakon batek sostengatuta. Ideia hori artista hauen praktikaren erdigunean dago.





*Somewhere from here to heaven* Apichatpong. ©Vicente Paredes

## Garbiñe Ortega, Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers & Eduardo Williams

Urriak 28

### Audientzia.

365



Erakusketaren hasiera gisa, Garbiñe Ortega, Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers & Eduardo Williams elkartu dira, Bruce Bailliren ibilbideari eta Zentroan zetozen hilabeteetan ikusi ahal izango zen erakusketaren edukari buruz eztabaidatzeko.

# ERAKUSKETA PROIEKTUAK BAT ESPAZIOA. LANTEGIA GALERIA MEDIATEKA

Arte garaikidearen eta ikusizko arteen programazioaren barruan, erakusketa-proiektuak sustatu ditugu, arreta berezia jartzen dutenak Azkuna Zentroan sorkuntza garaikideari laguntzeko programen esparruan gauzatzen diren egoitzetako tokiko eta nazioarteko artistekin lankidetzan.

Lantegia. Ideien laborategiaren Bat Espazioa proiektu artistikoen ekoizpen, esperimentazio foroen, lankidetzaren, topaketen eta bistaratze etengabeko gune bihurtzen da. Mediateka galeriak hainbat proiektu eta instalazio artistiko erakusten ditu, zentroaren programazioarekin lotuta.

# Sahatsa Jauregi

## Aizkora

Martxoaren 22tik apirilaren 24ra

### Bisitariak.

869

### Jarduerak.

Topaketa Miren Jaioekin  
Apirilaren 7an

### Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programaren barruan

Sahatsa Jauregik *Aizkora* proiektuaren lan-prozesua aurkezten du BAT Espazioan, ibilbide bat hurbilen dagoen imaginario kolektiboan aizkoraren irudiak sortu dituen irudikapen ugariatatik.

Sahatsa Jauregiren ikerketak eskultura-konfigurazio bat du abiapuntu, artisaу-aizkoren berezko ekoizpen-moduekin hitz egiten duena.

*Aizkora* "geldialdi bat ere bada denboran, eta, hala, bide emango du bilduko diren materialen bilduma bateratu ahal izateko, horiek lagungarriak izango baitira aizkora objektua ulertzeko, hainbat ezagutza-esparrutan diharduen esanahien hartzaille gisa", azaldu du sortzaileak.

*Aizkora* erakusketak, elkarrizketa formatua hartzen duen eten bat proposatzen du. Eten honetan, Miren Jaio arte kritikari eta ikerlariak, Sahatsa Jauregi artistarekin jardun du erakusketaren bueltan sortu diren materialen inguruan. Madrilgo Erkidegoak ARCO 2023 saria eman dio Sahatsa Jauregi artistari *Aizkora* proiektuagatik.



Sahatsa Jauregi. *Aizkora*

# Isidoro Valcárcel Medina

## Arkitektura goiztiarrak

Maiatzaren 10tik irailaren 28ra

### Komisarioa.

Kristine Guzmán

### Bisitariak.

8.762

### Koprodukzioa.

Museo de Arte Contemporáneo de Castilla y León - MUSAC

### Jarduerak.

Topaketa artistarekin

Programa publikoa

Argitalpena

Planotik Bolumenera. Arkitektura goiztiarrak erakusketako maketa-jokoa

*Arkitektura goiztiarrak* urbanizatzeko eta eraikitzeko proposamenen bilduma bat da. Valcárcel Medinak egin zituen 1984 eta 1992 artean, artistaren hitzetan, “hiri-espazioko errealitate berehalakoaren eta ustez hura eratzen duten egituren artean dagoen erabateko kontraesana agerrarazteko” asmoz.

Lehen begiratuan, piezek arkitektura-planoak dirudite, dagozkien soluzio teknikoekin, garai hartan egiten ziren hainbat eraikinen antzekoak diren eskuz egindako marrazkiekin. Tituluak arretaz irakurtzen hasiz gero, ordea —Torre para suicidas, Edificio para parados, Colonia de chabolas... (Suizidentzako dorrea, Langabeentzako eraikina edo Etxola saila)— antzematen da ez direla ohiko proiektuak, proposamen kontzeptualak edo eginezinak direla, ez eraiki ezin direlako, baizik eta bideragarriak izateko beste garai eta pentsamolde bat beharko lituzketelako.



Isidoro Valcárcel. *Arquitecturas prematuras*

---

# Blanca Ortiga

## *Shifter!*

Urriaren 6tik irailaren 27ra

**Bisitariak.**  
1224



Blanca Ortiga. *Shifter!*

### **Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programaren barruan**

Eskulturaren eta performatibitatearen arteko elkargunean dago proiektua.

*Shifter!* proiektuak –hizkuntza-tradizioak abiadura-palanka formako gailuari deitzeko darabilen hitza– material bakoitzaren eta gorputz bakoitzaren berezko ezaugarriekin lan egiten du, desbideratzeari erantzuteko ikerketa-modu gisa, non eskultura-egoerak eta ekintza ingurune performatiboetan egituratzen diren.

“Erresistentzia, malgutasunaren eta masaren arteko tentsioa, inertzia, gorputz batek jasan dezakeen ahalegina, edo materialen nekea bera hautsi aurretik, indar bizitzat hartzen dira, eta haien elkarketak gai dira materialtasunean performatibitatea aktibatzeko”, azaldu du sortzaileak.

---

# Zientzia frikzioa.

## Bizitza espezie lagunen artean

2022ko azaroaren 29tik, 2023ko otsailaren 26ra

### Artistak.

Shoshanah Dubiner, David Domingo, Rubén Duro Pérez, John Feldman, Petra Maitz, Dominique Koch, Susana Talayero, Maria Sibylla Merian, Gustafsson & Haapoja, Richard Pell, Mary Maggic, Museo Del Hongo, Saša Spačal, Pinar Yoldas, Diana Toucedo, Marley Jarvis, Laurel Hiebert, Kira Treibergs, y Ernesto Casero.

### Komisarioa.

María Ptqk

### Koprodukzioa.

CCB. Centro de Cultura Contemporánea de Barcelona

### Bisitariak.

3.582

### Jarduerak.

AZ Irratia.

Programa: Zientzia frikzioa

Kapituluak:

#1: "Zuhaitz artean"

#2: "Artile-xertoen ibilbidea"

#3: "Ez bakarrik loreak"

#4: "Izurrite laguna"

Bisita gidatuak komisarioarekin

Programa Publikoa

Ingurumen-biologiako eta -zientzietako azken aurrerapenek erakusten dutenez, Lurreko bizitza guztia interdependentea da. Ikuspegi horri jarraituz, bizirik dagoena organismo eta ekosistemen arteko korapilatzeekin –batzuk besteetan integratutako anizkoiztasun biziak– egindako ehun bera eta bakarra da.

"*Ciencia fricciónek*" ikuspegi-aldaketa hori esploratzen du, gaur egun ezinbestekoak diren bi emakumezko zientzialari eta pentsalariren lanetik abiatuta. Batetik, Lynn Margulis biologoa. Hark, sinbiosiak eboluzioan jokatzen duen rolari buruzko bere teoriarekin, bizitzaren historia berri baterako oinarriak jarri ditu. Eta, bestetik, Donna Haraway filosofo eta biologoa. Haren lanak ezagutza zientifikoaren eta hori munduari eta bertan hartzen dugun tokiari buruzko "kontakizunen makina" izatearen narrazio-potentzia aztertzen ditu. Beraz, izenburua zientzia frikzioak bi zentzu ditu, Maria Ptqk erakusketaren komisarioak azaltzen duenez.



*Ciencia fricción. Vida entre especies compañeras*

Batetik, bizitza mihiztaketa sinbiotiko handi bat bezala ikustearen ondoriozko frikzioak aipatzen ditu eta, bestetik, bestelako zientzia f(r) ikzio batzuk, pentsa daitekeena handitzen duten eta sortzen ari den interespezie-paradigman kokatzen lagunduko diguten istorio asmatu eta espekulatiboak, asmatzeko premiari egiten dio erreferentzia. “Egia bada, Harawayk eta Margulisek dioten bezala, Lur guztia bizirik dagoela, gailentasunaren mitoa baztertzeko eta berriz ere lurreko gure lagun ugariekin kontaktuan jartzeko garaia da”.

*Zientzia frikzioa. Bizitza espezie lagunen artean* bere edukia zabalduko du AZ Irratian podkast-eko ziklo batekin. Azkuna Zentroko irratia. Artistei eta tokiko eragileei egindako elkarrizketen bidez, erakusketaren begirada paisaia, abeltzaintza, nekazaritza, onddoak edo itsas fauna eta flora bezalako gaietara zabaltzen da. Erakusketaren programa publikoak María Ptqk komisariak gidatutako bisitak eta eskola publikoekin bitartekotza-jarduerak barne hartzen ditu.



# INSTALAZIO ETA ESKU-HARTZE ARTISTIKOAK

Hainbat esku-hartze eta instalazio artistikoren bidez, Azkuna Zentroak arte garaikideko bere eskaintza beste espazio batzuetara hedatuko du, hala nola Atrio, Mediateka BBK, Lantegiko bat Espazioa. Ideien laborategia, terraza eta eraikinaren fatxada bera.

Zubiak eraikitze eta zentroko espazioak kultur programazioarekin lotzeko modu bat, programazio-eredu hibridoak eta formatu berriak esploratu, landu eta aurkezteko, publiko-komunitate guztietara iristeko.



---

# David Bestué, Julián Pacomio, Claudia Rebeca Lorenzo

## *Komisario Berriak.*

## *Talud de mediodía*

Otsailaren 4tik 27ra

### **Artistak.**

David Bestué, Julián Pacomio, Claudia Rebeca Lorenzo

### **Komisarioa.**

Javier Arbizu


### **Elkarlanean.**

Eusko Jaurlaritzza, Artium, Tabakalera

### **Bisitariak.**

463

Arbizuren lanak Bilboko toki ikoniko bat desegiteko prozesua du abiaburu: Artxandako jolas-parkearena. Hortik, "ezpondaren" eta "eguerdiaren" irudiak erreskatatzen ditu, eskulturatik eta performaziotik jarraitasunaren eta aldiberekotasunaren ideiak jorratzeko. Leku bat (ezponda, lurrei elkarri eusteko ematen zaien inklinazioa) eta une bat (eguerdia, eguzkia zeruan gorago dagoenean, zerumugaren lerroarekiko igoera eta jaitsiera markatuz eta eguna bitan banatuz) dira deribari ekiteko hasierako irudiak, eta deriban Pacomio eta Bestuéren proposamenak Azkuna Zentrora egokitzeko modua aztertu da.



*Talud de mediodía*

---

# Jesús Pueyo

## *Orkestra-gizona*

Otsailak 22tik Maiatzak 15era

### **Bisitariak.**

1.169

*Orkestra-gizona* bideo multikanaleko instalazio tragikomikoa erakusketa-proiektua da

Sinkronizatutako hiru bideo- eta audio-kanalen bidez, horma baten gainean jarritako eta bertikalki orientatutako formatu handiko hiru pantailatan proiektatzen dira.

Artistak azaldu duenez, "italiar erara egindako antzerki gisa antolatutako display honi buruz, egilea hainbat pertsonaia-tan banatzen da, eta horiek tragikomedia digital bat osatzen dute, horretan inork parte hartu nahi ez badu ere".



Jesús Pueyo. *El hombre orquesta*

---

# Alicia Martín

## *Transferencia*

Martxoaren 28tik apirilaren 2ra



Alicia Martín. *Transferencia*

### **Gutun Zuria Bilbao Letren Nazioarteko Jaialdirako ad hoc sortutako instalazioa.**

Alicia Martín artistak *Transferencia* ikus-entzunezko lana sortu du Gutun Zuria Bilbaorentzat. Azkuna Zentroaren ekoizpen honek liburu-horma bat erakusten du, garai eta abiadura desberdinetan etengabe erortzen eta berreraikitzen dena, eta Jaialdian zehar Zentroko eta hiriko hainbat tokitan sakabanatzen dena.

“Transferencia” Mediatekaren garbiketatik ateratako liburuekin eratuta dago, eta aurten Jaialdi osoa zeharkatuko duen itzulpenaren ikuspegian kokatzen da, translazio eta transferentzia gisa ulertuta.

Alicia Martínek instalazio bisual hau «eustorma» hauskor, arin» gisa planteatzen du, «esanahien unibertsaltasunaren ezinezkotasuna aipatzen duena», artistak azaldu duenez.

# Grimanesa Amorós

## *Scientia*

Maiatzaren 31etik abuztuaren 31ra



Grimanesa Amorós. *SCIENTIA*

### **The Wellbeing Project programaren barruan**

Grimanesa Amorós artistaren *SCIENTIA* argi-instalazioa Atarian egongo da ikusgai. Argiak pertsonen gogo-aldartea eta buru-osasuna hobetzeko duen garrantzirik abiatuta, Peruko sortzaileak instalazio hau proposatzen du, nork bere buruaz hausnartzeko eta errealizazio pertsonalerako uneei bide eman nahian.

Pieza “bitarteko bat da gure ni emozionalera iristeko, adierazitako espazio mentala emanez, autoerrealizazioa elikatzeke eta komunitatearen konpromisoa sustatzeko”.

Site specific instalazio hau The Wellbeing Summit for Social Change nazioarteko lehen kongresuaren programa artistikoaren barruan kokatzen da. Ekainaren 1etik 3ra Bilbon egiten den kongresu horrek aldaketa soziala eta komunitarioa jorratu ditu, ekintza kolektiboaren bidez.

---

# Antonio Fernández Alvira

## *Formaren memoria*

Ekainaren 9tik azaroaren 1era

### **Bisitariak.**

11.303

Antonio Fernández Alvira artistak *Formaren memoria* eskultura-instalazioa sortu du Azkuna Zentro - Alhóndiga Bilbaoko Terrazaren espazio espezifikorako. Laborategi honek gorputza-egitura-ontzia eta fluido-edukia miaketa eta narratiba betetzen ditu, eta, horretarako, Alhóndigako terrazako forma eta elementu arkitektonikoak aztertu eta harremanetan jartzen da haiekin.

Zentroak ekoiztiko proiektuaren abiapuntua Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoarean arkitektura eta esanahia dira, haren elementu eta formen bidez, eta ontzien edukiontzi gisa hartuta. Sortzailearen arabera, leku horretan "jariakina eta iragazkorra beti egon dira presente, hala lehen ardo-biltegia zenean, nola orain, kulturaren edukiontzi iragazkor gisa".

Laborategi honen helburua da "ariketak antolatzea lekuaren eta publikoaren bidez; terrazako arkitekturarekin interakzioan eta elkarrizketan jardunez, espazioarekin egindako miaketa formal eta prozesualen ondorioz, eta publikoaren esperientziaren eta pertzepzioaren bidez, haren mugimendu eta ibilbideen bidez", azaldu du artistak.

Artistaren egungo praktika artistikoari lotutako prozesuen bidez, instalazioa burdinaz eta buztinaz osatuta dago.



---

# Ander Pérez Puelles


## *Ágil y un placaje*

Irailaren 26tik urriaren 9ra

### **Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programaren barruan**

Ander Pérez artistak mugimenduaren eta grabazioaren ez-ugarrien inguruko ikerketa aurkeztu du.

Artistak *Ágil y un placaje* (Arina eta plakatze bat) proposatu zuen grabaketetarako objektuak sortzeko asmoz. Hala ere, azaldu duenez: "Objektuek leku periferikoago bat hartu dute, prozesuaren alderdi azalekoago eta mekanizistago horretan bakarrik ez geratzeko". "Intuizioa zuzena izan da, mugimenduan dagoen irudia eraikitzeak erakarri egiten nau oraindik ere. Musikaren antzekoa iruditzen zait, bietan zuzeneko feedback bat gertatzen baita ekintzaren eta emaitzaren artean", gehitu du.



# Tunipanea (Jonathan García)

*El íntimo ritmo del azar:  
diálogos entre máquinas  
imperfectas*

Urriaren 21etik azaroaren 6ra

**Bisitariak.**  
476


**Jardunaldiak.**  
Topaketa artistarekin eta Garazi Navasekin  
Taillerra

## Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programaren barruan

*Zoriaren erritmo intimoa: makina inperfektuen arteko elkarrizketak* Jonathan García Lana soinu artista a.k.a. Tunipanearen ikerketa-prozesua da.

Tunipanea ikerketa praktikotik mugitzen da lutheria esperimental deitutakoaren arloan. "Soinu-artefaktuak diseinatu eta egiteko dauden baliabide mekaniko eta akustiko ugarietz jabetzen naiz. Prozesu horri esker, prozesuaren zatirik artisauena egokitu, eraldatu eta nahastu dezaket, eta esploratu nahi ditudan kontzeptuak tartekatu", azaldu du.

Zoriaren erritmo intimoa: makina inperfektuen arteko topaketak urriaren 21ean ireki dira jendearentzat, Garazi Navas soinu-artistarekin elkarlanean Tunipaneak egindako piezak aktibatuz.



# Elena Aitzkoa

## *Ur Aitzak*

2022-2024 (Atarian)

### Artista AZ Kideak

*Ur Aitzak* artistaren motibazio pertsonal batetik abiatzen den sorkuntza proiektua. Zentroaren desirari eta aukerari erantzuten dio, "herritarrekin bat egiteko eta, nolabait, haren eraldaketa sentikorraren parte aktibo izateko", artistak azaldu duenez.

Proiektua sei eskulturak osatzen dute, eta pixkanaka sortzen joango dira, beti ahots- eta poesialan bati lotuta. Lehen etapa honetan, Elena Aitzkoarekin batera, proiektua ulertzen, bultzatzen eta hari eusten lagunduko duten hainbat konplize egongo dira.

"Mugimendu oro lagundua da beti, sinergia mugimenduen gorputzaren zati bat da. Era berean, edertasun bilaketzea kolektibo baten barne-ezagutaranzko mugimendu lagundu baten ondorio naturala da", gogorarazi du sortzaileak.



EGONALDI ARTISTIKOEN ETA  
SORKUNTZARI LAGUNTZEKO  
PROGRAMAREKIN LOTUTAKO  
JARDUERAK

# Isabel de Naverán

## *Envoltura, historia y síncope*

Urtarrilak 13

**Audientzia.**  
82

*Envoltura, historia y síncope* Bilgarria, historia eta sinkopea liburuak Antonia Mercé y Luqueren heriotzaren inguruabarrak ditu abiaburu. Antonia Mercé y Luque, La Argentina (1890-1936), herridantzako eta flamenkoko dantzaria izan zen Espainiako Bigarren Errepublikak kondekoratu zuen lehen artista. 1936ko uztailaren 18an konbultsio fisikoa izan zuen bat-batean, eta, liburuan, une hartako sentimendu kolektiboarekin jartzen da erlazioan, historiaren lerroan izandako pitzaduraren isla gisa. Pitzadura hori hainbat unetan errepikatu da, esaterako, Kazuo Ohno artista japoniarraren eskutik, dantzan ikusi eta berrogeita hamar urtera berreskuratu baitzuen La Argentinaren irudia.

Hitzaldi performatibo hau Bilbon aurkeztuko da lehen aldiz, Caniche argitaletxeak izen bereko liburua argitaratzearekin batera. Testuak ibilbide afektibo bat proposatzen du, eta aztertzen du mugimendua gorputz batetik bestera nola transferitzen den, eta finkatzeko ahaleaginean nola agertzen diren irudiak, trazuak, marrazkiak eta erritmoak.

## *Oralidad secundaria*

**Podcasta.**  
1897 entzule

Az Irratiak hiruhileko honetako programazioa aktibatuko du *La ola en la mente. Oralidad secundaria* lanarekin. Isabel de Naveránekin Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa garatzen duen proposamena osatzen duten bost gutun dira.

Podcast formatuan, de Naveránekin lau gonbidaturekin —Lorea Alfaro, María García Ruiz, Raquel G. Ibáñez eta Andrea Soto Calderónek— izandako trukeak “bigarren mailako ahozkotasan” gisa agertzen dira. Walter J. Ong-ek sortu zuen termino hori, gaur egun ahozko komunikazioa gailu elektronikoaren, ahots-mezuen edo audio-oharren bidez nola egiten den aipatzeko; gutun bidezko erlazio epistolari bat da, ahots eta soinuaren bidez gauzatua.



Isabel de Naverán



M. Benito. M1 C4R4 NO P3G4 CON 3ST3 MUNDO

## Azkuna Zentroko ikertzaile Azkidea

### Aimar Arriola *Un deseo de forma*

Aimar Arriola Forma desira proiektuan jarduten du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikagoekin.

### *Mi cara no pega con este mundo*

Urriak 19

#### **Audientzia.**

40

Edizio-saio ireki bat izango balitz bezala, M. Benito Piriz artistak, Aimar Arriola Ikertzaile AZ Kidearekin batera, *Mi cara no pega con este mundo* bere proiektuaren idazketaren eta edizioaren zati bat partekatuko du. Mugikorreko ohar-blokean idatzi duen prozesu-liburu bat da.

Hiztegi prediktiboaren, hizkuntza inklusiboaren eta beste baliabide batzuen bidez, proiektuak literatura lantzen du bere molde konbentzionalean, eta molde horretan harridura sortu nahi du.



# Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe)

*Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos*

Urtarrilak 20

**Audientzia.**  
67

2019az geroztik Azkuna Zentroko artista Azkidea den Sra Polaroiskak (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) *Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos* performance hitzaldia-ekin emango dio amaiera egonaldiari, eta, bertan, artistek hiru urte hauetan izan dituzten esperientzia batzuk partekatuko dituzte.

Kolektiboak *No hay edad para el ritmo* instalazioarekin ekin zion egonaldiari. Performance kolektibo horren ondoren, Jakintsuen Kontseilua proiektua abiarazi zuen, eta topaketa horietan hainbat lanbide-eremutako zortzi emakumek hartu dute parte: Dolores Juliano, Amaia Lasa, Garbiñe Mendizabal, Luisa Menéndez, Adelina Moya, Arantxa Urretabizkaia, Margarita Ledo, Rosa María Calaf eta Teresa Catalán.

Zikloari amaiera emateko fanzine hedatu bat emango da argitara, eta, bertan, gonbidatutako emakumeek partekatutako jakinduria jasoko da, Jakintsuen Kontseilua proiektuko saioetan Abigail Lazkoz, Conxita Herrero, Bea Aparicio, Juana García, Naiara Goikoetxea, Leire Urbeltz, Ruth Juan eta Raisa Alava artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera.

*Fanzine aurkezpena*  
*Consejo de sabias*

Ekainak 21

**Audientzia.**  
87

## *AZ Irratia*

### **Kontseiluen podcasta.**

Dolores Juliano, Amaia Lasa, Garbiñe Mendizabal, Luisa Menéndez, Adelina Moya, Arantxa Urretabizkaia, Margarita Ledo, Rosa María Calaf y Teresa Catalán.

**Podcast.**  
719 entzule



Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana y María Ibarretxe). *Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos*



Victoria Ascaso. *So Sad Today*

## BABESTU. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa

### Victoria Ascaso *So Sad Today*

Urriak 6 (Atrioko pantailan)

*So Sad Today* gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da, eta mundu fisikoan garatutako identitateen eta pertsona bakoitzaren mundu digitaletan garatutakoen artean sortzen den frikzioa du ardatz. Proiektuak "disforia digitala" jorratzen du, tekno-tristura adierazteko dagoen moduetako bat. Fisikotzat hartzen dugun identitatearen eta haren irudikapen digitalaren artean sortzen den desadostasunak eragiten du disforia, eta ezinbestean dago lotuta gure intimitatearen eraikuntzan eta bizipenean dagoen krisiarekin.

### *Pretty sad*

Urriaren 10a, 11, 24a eta 25a

Tailer honen helburu nagusia da hausnarketa kritikorako gune bat sortzea, gorputzaren kontzepzioari dagokionez, errealitate birtualen eta fisikoen artean sortutako frikzioari buruz.

### M. Benito Píriz *M1 C4R4 N0 P3G4 C0N 3ST3 MUNDO. Prólogo*

Urriak 6

#### **Audientzia.**

70

DJ Celeraka-rekin lankidetzan, "Mi cara no pega con este mundo" liburua aurkeztuko du Sorkuntza Artistikoari Ateak zabaltzeko jardunaldian.

Hitzaurre gisa funtzionatzen duen "rave" a, eta CELERAKA M. Benitoren *The Most Dramatic Panda EVER* liburuko eta errezitaldiko zatiekin jolasean, nahasketa azeleratuetan. «Oso genero desberdinak biltzen ditu, eta harremana du erritmo latinoekin, hip-hoparekin eta elektronikaren barruko hainbat azpigerorekin (techno, acid, tekno, hardcore...). PANDAREN aldetik, autotunez tonu tristean abestutako bertsoak eta belaunaldi deprimitu baten kodez betetako liburu-zatiak. Parrandan negarrez» deskribatu du M. Benitok.

## Komikigintzan Nazioarteko Egoitza

Otsailatik Apirila

### Elkarlanean.

Maison de la Littérature, Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image

**Higinia Garay, Marine des Mazery y Jimmy Beaulieu** nazioarteko Egoitza hau Angoulême, Bilbon eta Quebecen da hurrenez hurren. Hiru egonaldiak egoitza bakoitzean egiten dira (Angoulêmeko Nazioarteko Komiki Jaialdia, Gutun Zuria Bilbao. Nazioarteko Letren Jaialdia Bilbon; eta Quebec-eko Quebec BD Jaialdia). Egonaldi gurutzatu honek aukera ematen die hiru artistari beste zentro batzuk ezagutzeko, norberaren espazioa zalantzan jartzeko, beste pertsona batzuen ezagutzeko eta beren mundu pertsonala eta sortzailea birdefinitzeko.



Higinia Garay, Marine des Mazery y Jimmy Beaulieu

# Traktora Koop. *Kinu*

## KINU #7 : Deimantas Narkevičius

Apirilak 26 eta 27

### **Audientzia.**

67

## KINU #8 : Gerard Ortín Castellví

Irailak 8 eta 9

### **Audientzia.**

104

## KINU #9 : Laia Estruch

Abenduak 15 eta 16

### **Audientzia.**

113

Kinu Traktora Koop. E. artisten kooperatibako Usue Arrieta eta Ainara Elgoibarrek bultzatutako eta artisten ikusentzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko plataforma bat da. Hiru hilean behingo topagune bat, artista bat bere lana erakustera gonbidatzen duena, harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri buruz taldean gogoeta egiteko. Proiektuak hiru parte ditu: Artista gonbidatuaren lanaren proiektio eta aurkezpen publikoa (Kinu); artista gonbidatuak zuzendutako saio bat lantalde egonkor batekin (Lantaldea); eta azkenik, proiektua osatzeko, lantaldea eratzen duen pertsona batek testu bat egiten du Lantalde bakoitzaren esperientzia jasotzeko (Distirak).

*Kinu* Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza politika-sailarekin elkarlanean burutzen da.





Behatokia

## Kolektibo Egoilarra

# Urbanbat

## *Behatokia*

Urriak 6

### Behatokia: krisi-egoera\_1: Kutsadura eta osasun-krisia

*Behatokia* hiri-behatoki bat da. *Situation Room* ireki eta parte-hartzaile bat. Dimentsio anitzeko (ingurumenekoa, osasunekoa, ekonomikoa, soziala...) krisi honen testuingurua hirian nola agertzen den eta arteak eta kulturak hiri-bizigarritasuneko baldintzei zer-nola lagun diezaieketen ikus daiteke bertatik.

*Behatokia* agora formako azpiegitura eramangarri bat da. Tokiko eragileen eta eragile bisitarien arteko elkarriketarako espazio bat da, gainera; horiek, bada, hiri-erronka garaikideetarako ikerketa- eta ekintza-proiektuak proposatzen ari dira arte- eta kultura-praktiketarik.

Programa osatzeko, parte hartzeko dispositibo bat dago: gure inguru hurbileko krisi-egoera honi buruzko datuak biltzea eta ikustea proposatzen dio bisitariari.

Lehen topaketak kutsadura eta osasun-krisia izan zituen ardatz, urrian egin zen, zentroko Ateak Zabaltzeko Egunean, eta Olga Subirós eta Diego Sologuren izan ziren bertan.

# ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Zinema eta ikus-entzunezkoen sorkuntza egituratu egiten dira, ikus-entzunezkoen adierazpen garaikideak zinema klasikoarekin bateratu nahi dituen programazio batean. Azkuna Zentroa Bilboko Zinematekaren egoitza da, eta haren programazioan batera uztartzen ditu autore-zikloak eta bertako eta nazioarteko ikus-entzunezko komunitate artistikoa ikusarazten duten programazioak. Era berean, ikus-entzunezkoa da sorkuntzan laguntzeko programen bidez Zentroan garatzen diren proiekturik esperimentalenen ernamuina. Zentroaren aliatu nagusietako bat Golem Alhóndiga da, haren zinema-emanaldiarekin, zinemak Bilbon duen egoitza nagusia baita, programazio egonkorrekin, estreinaldiekin eta zinemaldiekin.

**54**

film jatorrizko bertsioan

**4.561**

ikusle AZren ikus-entzunezko programazioan

**10**

proiektu programatuta zineman eta ikus-entzunezkoetan

**7**

solasaldi zinemaren eta ikus-entzunezko sorkuntzaren inguruan

**9.558**

ikusle Golemen izandako zinema-jaialdietan

# ZINEMATEKA

Azkuna Zentroko Zinematekak programazio egonkorra dauka duela markada batetik, eta zinema klasikoa eta sorkuntza garaikideagoa ditu ardatz. Ikus-entzunezko programazioko ingurune bat, zinema-lengoiaren eta ikus-entzunezko lengoiaren ezagutzan sakontzen dueña, zirkuitu komertzialetik kanpo dauden obretatik abiatuta.

## Icíar Bollaín

Martxoaren 12tik 24ra

### Audientzia.

1.265



Icíar Bollaínez hitz egitea publikoarekin bat egiten duten istorioekiko bokazioaz hitz egitea da; istorio horien bidez zuzendaria modu enpatikoan gerturaten baita pertsonen bizitzetara. Artifiziorik gabe egiten du eta irismen globaleko gai eta arazoen inguruan argi apur bat emateko asmoz: indarkeria, matxismoa edo ekologismoa, esaterako. Zinemako lanbideaz duen jakin-mina eta lilura nabarmentzen dira zuzendari honengan. Icíar Bollaín gizartearekin konpromisoa duen emakumea da, zinema kontzientziatorako eta gizartea aldatzeko tresna dela uste duena. Sororitatea eta ahalduzko feminismoa beti lotu izan dira bere lanarekin, gaur egun bezain ospetsua ez zenean ere bai.

*Hola, ¿estás sola? (1995), Flores de otro mundo (1999), Te doy mis ojos (2003), Mataharis (2007), También la lluvia (2010), Katmandú, un espejo en el cielo (2011), En tierra extraña (2014), El olivo (2016), Yuli (2018), La boda de rosa (2020), Maixabel (2021).*



# Aldaketaren ahotsa. Emakumeek zuzendutako zinema

Apirilaren 27tik ekainaren 23ra

**Audientzia.**

470



Aldaketaren ahotsa. Emakumeek zuzendutako zinema zikloarekin, ikus-entzunezko sorkuntza garaikidean emakumezko zuzendariak izandako gorakada ardatz duen ziklo berria. Zinemaldirik garrantzitsuenetako epaimahaiek eta ikusleek goretsita, filmak zuzentzeko beste modu bat dute, portaera sozialetan eragiteko eta betikotu diren eskema eta egitura patriarkalekin hausteko ezinbesteko garrantzia duten istorioekin. Emakumeak kameraren bi aldeetan egon dira zinema arte gisa sortu zenetik. Horietako askok eragin handia izan dute, bai beren teknika berritzaileengatik, bai filmetako gaiengatik, baina ez dira beti ezagutzera eman.

Ziklo berri honetan, Zinematekak zinemagile horietako bartzuen aukeraketa bat aurkezten du, eta, filmografia hasiberri batekin, beren ahalmen eta talentu guztia erakusten dute.

Apirilak 27 eta 28

**Arantza Santesteban**  
*918 Gau (2021)*

Maiatzak 4 eta 5

**Nadine Labaki**  
*Capharnaüm (2018)*

Maiatzak 11 eta 12

**Carla Simón**  
*Estiu 1993 (2017)*

Maiatzak 18 eta 19

**Dominga Sotomayor**  
*Tarde para morir joven (2007)*

Maiatzak 25 eta 26

**Clara Roquet**  
*Libertad (2021)*

Ekainak 1 eta 2

**Lynne Ramsay**  
*En realidad nunca estuviste aquí (2017)*

Ekainak 8 eta 9

**Eliza Hittman**  
*Never, rarely, sometimes, always (2020)*

Ekainak 15 eta 16

**Julia Ducournau**  
*Crudo (2016)*

Ekainak 22 eta 23

**Dea Kulumbegashvili**  
*Beginning (2020)*


# Somewhere from here to heaven

Ziklo garaikidea: Azaroaren 2tik 30era

Ziklo historikoa: 2023ko urtarrilaren 25etik otsailaren 8ra

## Audientzia.

107



LJ Duo Concertantes

Erakusketa Aretotik, *Somewhere from here to heaven* Zinematekaren bidez hedatuko da, zinema garaikideko eta zinema historiko esperimentaleko zikloekin, esperientzia bisualaren eta zinematografikoaren artean. San Frantziskoko Canyon Cinema-ren artxibora sartzeko aukera bakarra. Programan proiektatuko diren pieza asko 16 mm-koak dira -hondatu ez daitezten, proiektzio bakarra programatu da eguneko-, eta 1960ko hamarkadan zinemagileen foro gisa sortutako kooperatiba horretan dute sorburu. Gaur egun, Canyon Cinema Foundation da ondare horren erreferentziako lekua, baita mugimenduan dauden irudi independenteen, ez komertzialen eta esperimentalen ekoizpen garaikidearena ere.

1. Saioa: Paisaia emozionala.

*Little Girl (1966), Atomic Garden (2018), Mr. Hayashi (1961), This is my Land (2006), Castro St. (1966), Rousseau (2012), All my life (1966).*

2. Saioa: Askatasun- eta poesia-moduak.

*Here I am (1962), 13 ways of Looking at a Blackbird (2020), Ah, Liberty (2008).*

3. Saioa: Gogorarazten duten espazioak.

*Mass for Dakota Sioux (1963-1964), APIMIYEKÍ? (2019), A letter to Uncle Boonmee (2009).*

4. Saioa: Zerua gainbehera.

*Amazing Fantasy (2018), The House is quiet (2020), Amerika: Bahía de las flechas (2016), Tung (1966), Parsi (2019), Ashes (2012).*

5. Saioa: Gaztaroko ametsak.

*Rolling (2015), Me olvidé! (2014), M Hotel (2011), Pude ver un puma (2011).*

6. Saioa: Mundutik urrun.

*Two Years at Sea (2011).*

7. Saioa Gazteria likidoa.

*El auge del humano (2016).*

# DONOSTIA ZINEMALDIA AZKUNA ZENTROAN

Irailaren 26tik urriaren 2ra

## Egileak.

Mikel Gurrea, Mia Hansen-Løve, François Ozon, Jean-Pierre, Luc Dardenne, Dinara Droukarova, Marie Kreutzer, Christophe Honoré, Pilar Palomero, Louis Garrel, Toby Genkel, Kevin Costello.

## Audientzia.

2582



Donostia zinemaldia Azkuna Zentroan

Aurten ere, Donostian oihala jaitsi ondoren, Azkuna Zentroak, Donostiako Zinemaldiarekin lankidetzan, azken edizioan -70.a- estreinatutako zenbait film aurkeztu ditu.

Zuzendari Berriak, Perlak eta Sail Ofiziala sailetan aurkeztutako bederatziz filmen programan, zuzendari ospetsuen nahiz zinemagile berrien lanak daude. Praktika zinematografikoa ulertzeko belaunaldi eta modu desberdinak dira.

Zinemaldiaren Bilboko zikloak -astebete iraun du- haurrentzako eta familientzako goizeko bi saio izan ditu asteburuan, eta bi film-emanaldi larunbat eta igandean.

# BESTE PROIEKTUAK

**Artista**  
**AZ Kideak**

## Laida Lertxundi

### *8 Topaketa*

2021eko ekainaren 17tik 2022ko abenduaren 31ra

**Audientzia.**  
15

**Artistak.**

Ketuta Alexi-Meskhisvili – ekainaren 15 eta 16

Ren Ebel eta Laida Lertxundi – ekainaren 26 eta 27

Maria Palacios Cruz eta Keira Greene – irailaren 29 eta 30

Laida Lertxundik, 2021eko urtarriletik artista AZkidea da

“8 Topaketa” proiektua jarri du abian: zortzi tailer eta elkarlaneko errodaje ditu, eta emaitza 16 mm-ko obra bat izango da.

Topaketa bakoitzak bi zati ditu: Lehenengoan, tailer bat egiten da artista gonbidatu batekin Azkuna Zentroan. Bigarren zatia Bizkaiko zortzi menditan egiten da. Filmaketa bakoitzak prozesu espezifiko bat hartu du kontuan, ekoizpen zinematografiko tradizionalaren faseen barruan (kokapena, interpretazioa, gidoia, soinu-banda, ekoizpena, kamera, argiztapena eta edizioa), eta birsignifikatu egin ditu, mugimenduan dagoen irudi-lan bat sortzeko ideia eta parametroen multzo zehatz bat eratzeko.



Laida Lertxundi. *8 encuentros*

# HEZKUNTZA ETA BITARTEKARITZA



## Zinemaz Blai Eskolatik Zinemara

Urtarriletik martxora

**Audientzia.**  
122 ikasle

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok eta Golem Zinemek *Zinemaz blai. Eskolatik zinemara* abiarazi dute. Hezkuntzarloko ikusleentzako bitartekaritzaprograma bat da, jatorrizko bertsioan zinema ikusteko interesa pizteko, bizitzeko, hunkitzeko eta sustatzeko asmoz pentsatua. Halaber, ekimen hau sortzean eragile izan da ikus-entzunezko sorkuntza garaikidea hezkuntzarako eta pentsamendu kritikoa sustatzeko tresna dela sinestea.

*Zinemaz blai. Eskolatik zinemara* gonbidapena da film bat zinema-areto batean ikusteko esperientzia kolektiboa partekatzeke, bai eta, filma ikusi aurretik eta ondoren, identitateaz, generoaz, kontzientzia sozialaz eta ekologikoaz edo bizikidetzaz ikasgelan gogoeta egiteko ere.

Egitasmoa urtarriletik martxora bitartean garatzen da, zenbait izenburu proposatuz hasita. Proposamen hori zabalduz joango da, zinemako estreinaldiekin eta ikastetxeek egindako iradokizunekin, une bakoitzean ikasgeletan lan-tzen ari direnen gaien osagarri gisa.

# JAIALDIAK.

## BILBOKO ZINEMA JAIALDIEN EPIZENTROA

### Audientzia.

9.558 ikusle

Azkuna Zentroa, aurten ere, Bilboko zinema jaialdi garrantzitsuenen epizentroa da, eta urtero jaialdi ugari antolatzen dira bertan.

## *ZINEGOAK Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia*

Otsailaren 28tik martxoaren 7ra

Zinegoak 2022k gure nortasuna eraikitzeko, geure burua birpentsatzeko eta, hala nahi izanez gero, geure burua berresmatzeko aukera amaigabea jarriko du fokua. Sexu-antiztasunari, orientazioei, genero-identitatearen eraikuntzari edo sexualitateari lotutako beste edozein elementuri besoak zabalduaz, nor garen eta gure burua nola izendatu nahi dugun erabakitzeo askatasuna eta zilegitasuna aldarrikatzea da helburua.

## *FANT 28. Bilboko Zinemaldi Fantastikoa*

Maiatzaren 6tik 14ra

Jaialdi honek genero fantastikoaren azken berrikuntzak jartzen ditu ikusgai Sail Ofizialean eta Panorama FANTastikoaren Sailean, film klasikoaren emanaldiekin osatzen da, eta Fant Maisuak omentzen ditu; horrez gain, generoko erreferentziazko dokumentalak, aurrentzako saioak eta film laburren saioak ere antolatzen dira.

Oraingo honetan, zinemaldiak bere irudia berritu, eta erabaki du omenaldia egitea beldurrezko zinemaren klasiko eztabaidaezin bati, Frankenstein. Izan ere, 2022an, muntrotza protagonista duen filmaren estreinaldiaren 90. urteurrena ospatzen da Estatuan.

---

# ZINEMAKUMEAK GARA. Emakumeek zuzendutako zinemaren erakusketaren 27. Edizioa

Urriaren 17tik 28ra

Bilboko Emakumeek zuzendutako zinema erakusketa beste edizio bat aurkezten du: programazioak, atzera begirakoak, hitzaldiak, tailerrak, zinema politikoaren ziklo bat... arazo politiko eta sozialei buruzko bidegabekeriaren inguruan hausnartzen eta salatzen lagunduko digutena, eta Pantaila Handia/Pantalla Grande sail berri bat, non 2022ko filmak proiektatzen diren, nazioarteko zinemaldi onenetatik pasatutakoak eta Bizkaiko estreinaldiak direnak.

---

# ZINEBI - Bilboko Zinema Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia

Azaroaren 11tik 18ra

ZINEBI jaialdiak artista berriak babesteko nahi irmoa du. Film laburren nazioarteko lehiaketa (dokumentala, animazioa eta fikzioa) eta ZIFF- ZINEBI First Film nazioarteko lehiaketa (opera prima film luzei eskainia) ditu ezaugarri nagusi. Ohorezko Mikeldi sariak ere banatzen ditu urtero, prestigio handiko zinemagileen ibilbide profesionala aitortzeko; eta Beautiful Docs nazioarteko sailean eta Bertoko Begiradak-Miradas desde Euskadi sailean parte hartzen duten filmak hautatzen ditu. Bestalde, ZINEBI INDUSTRYren euskal ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatu nahi da, industriarekin eta hainbat eragilerekin sinergiak sortzeaz gain.

*Cine invisible*  
*Film Sozialak*  
*Mendi Film Festival*  
*Zinexit*  
*Zinemagileen Artean*  
*Sail In Tour*

...

# ARTE BIZIAK





Arte bizien programazio egonkorak forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketa proposatzen ditu. Gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoaia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Musika esperimentalaren eta soinu-artearen esparruan, Zentroak apustua egiten du musikarekin eta soinuarekin lotuta dauden esperientzia artistikoen alde, musikalak edo harmonikoak ezinbestez izan beharrik gabe. Musika esperimentalaren eta soinuaren urteko programak nazioarteko eta bertako artistak biltzen dituzten musika-entzunaldiak ditu, eta soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko tailerrak eta topaketak ere bai.

**6.512**  
parte-hartzaile

**33**  
jarduera

**6**  
tailerra eta topaketa artistekin

**70**  
artista

# ESZENAZ. AZKUNA ZENTROKO ARTE ESZENIKOEN DENBORALDIA

eszenAZek osatzen du zentroko arte bizien programa egonkorra, forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketaren bidez. 2022-2023 denboraldian, egungo eszenako lanik berritzaileenak nabarmentzen dira, bertako eta nazioarteko artistek eta konpainiek aurkeztuak.

Proposamen guztietan, gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoaia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Ekintzarako pentsatutako programazio honetan, ikuskizunak baino gehiago paisaiak eta espazioak proposatzen dira, ikusleak banaka, subjektiboki eta modu bakarrean eszenaren parte izateko.

---

# Julián Pacomio

## *Apocalipsis entre amigos o el día simplemente*

Otsailak 5 eta 6, Lantegia 1

### **Audientzia.**

36

### **Elkarlanean.**

Javier Arbizuk komisariatutako “Talud mediodía” proiektuaren barruan gauzatua.



Julián Pacomio. *Apocalipsis entre amigos o el día simplemente*

“Denbora asko daramagu goiz oheratzen. Eguneko jendea gara; gaua, beste batzuen kontua da. Apokalipsiaren zain gaude elkarrekin, denok, hemen. Noizbait, familiarra, intimoa, kezagarri bihurtuko da, eta amaiera era baketsuan, adeitsuan iritsiko da. Zerbait iluna azaleratuko da bizitza salatuz, eta harrezkero ezer ez da berdina izango; oroitza-penek, ordukoek, ez dute gehiago garrantzirik izango; eta sendoenek bakarrik balioko dute, hau da, oraingoek. Ez gara sekula gehiago garaikideak izango, eta eguneko argia baizik ez da geratuko edo [...] kontua da honek ez duela zentzurik, baina gainerakoak ez du zentzurik, baina gainerakoa heriotza da”, deskribatu du sortzaileak.

---


# Sleepwalk Collective

## *Swimming Pools*

Otsailak 24, Auditorioa

### **Audientzia.**

58



Sleepwalk collective *Swimming Pools*

Bideo-joko retro baten goranzko mailen antzera antolatutako irudizko igerileku batzuen bidez, bakarrizketa intimoen sekuentzia batek gainezka egiten du; eldarnioa eta errebelazioa banatzen dituen ertz finaren gainean orekatutako bakarrizketak dira denak. Bakarrizketa-erako epifania horien isuri-izaera malenkoniatsuak, konpainiak bereizgarri dituen poesia bisual eta testualarekin eta soinu- eta argiztapen-mailako diseinu hipnotikoarekin uztartuta, kontrapuntu konplexua eskaintzen die bideo-joko konbentzionaletako balio matxistei eta garaileei.

# Societat Doctor

## Alonso

### *Hammamurgia*

Maiatzak 26, Lantegia 1

**Audientzia.**

60



Doctor Alonso. *Hammamurgia*

Tomás Aragayk eta Sofía Asenciok zuzendutako konpainiak lengoaia eszeniko nahastezina eraiki du. Ikuskizunek tentsio-egoerak dituzte, arau dramaturgikoak berrasmatzeko eta aurrez ezarritako eskemak umore adimentsu eta freskoaren dosi handi batekin hausteko askatasunez sortutakoak.

**Artista**  
**AZ Kideak**

# Miguel A. García

## *Comclapompos.*

### *Usar el flujo como un cauce*

Urriak 6

**Audientzia.**

70

*Comclapompos. Usar el flujo como un cauce* proiektua garatu du. Ingurunearen sinergiak besarkatzen dituen konposizio musikaleko lan bat da, eta egituraren aukera ugarietan sakontzea eragiten du.

Oso esperimental den eta elektroakustikatik hurbilago dagoen ikuskera batetik abiatuta, Miguel A. García-ren musika tolestu eta hedatu egiten da ahotsa, dantza, beste hizkuntza batzuk eta beste sentipen batzuk hartzeko, eta formaren deskonposizioa arakutzen du bitarteko gisa.

# Amalia Fernández

## *Neti Neti*

Urriak 6, Lantegia 1

**Audientzia.**

37



Amalia Fernández. *Expografía retrospectiva*. Prototipoak 2021

Koreografo eta mugimenduaren ikertzaile honen azken ekoizpenen artean, *Matrioshka*, *Kratimoshka*, *El resistente y delicado hilo musical* pieza eszeniko konbentzionalak eta Azkuna Zentroko Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Bienalaren azken edizioan aurkeztutako *Expografía Retrospectiva* erakusketa-formatua daude. Ildo horretan, *Neti Neti* lanarekin urrats bat egin du aurrera, gertakari eszeniko baten denbora-aukerak eta publikoarekiko harremanak aztertzen. Oraingoan, artistak dantzaz hausnartzen du, esperientzia subjektibo, ekintza sozial, ekintza erritual eta ekintza exhibizionista den aldetik.



**Elena Aitzkoa:** testuak eta bideoa

**Luis André:** tronpeta

**Alba Burgos:** ahotsa

**Enrike Hurtado:** gitarra

**Garazi Navas:** akordeoia eta ahotsa

**Izarne Oyarzabal:** dantza

**Ibon Rg:** ahotsa

**Fernando Ulzión:** saxoak

---

# Manuel Rodriguez

## *Screensaver*

Azaroak 10, Kubo Baltza

### **Audientzia.**

110

### **Elkarlanean.**

Dantzaldia (La Fundición)

---

# Guillermo Weickert

## *Parece Nada*

Azaroak 3 – Kubo Baltza

### **Audientzia.**

98

### **Elkarlanean.**

Dantzaldia (La Fundición)



Guillermo Weickert. *Parece Nada*

Ikuskizunak gonbit egiten digu geure ikusmoldearen behatzaile izatera: pertzepzio-organoa (begiak) hautemandako objektu gisa (ikusiak) jartzeko saiakera egitera.

Guillermo Weickertek gonbit egiten digu geure ikusmoldearen behatzaile izatera: pertzepzio-organoa (begiak) hautemandako objektu gisa (ikusiak) jartzeko saiakera. Behaketa sinple horretatik abiatuta (gure begiek egiten dutena begiratzea), ariketa bat planteatzen du eszenari, biztanleei eta mugimenduei ber-begiratzeko, munduari ematen diogun behakoaren froga-eremu gisa.



Manuel Rodriguez *Screensaver*

Diziplina anitzeko proiektua da, kontenplazioaren kontzeptuan sakontzen duena eta aztertzen duena ekintza bisuala, zentzumenen, sinboloaren eta formaren bidez, nola bihurtzeko fedekintza.

Instalazio koreografikoa performance batek eta pieza sortzeko prozesuan landutako material bisualez eratutako argazki-serie batek osatzen dute. Nazioartean sari ugari jaso dituen proiektu honek sakon aztertu nahi du nola lotzen den kontenplazioa izakiaren kontzientziarekin, nola zentzumenen, sinboloaren eta formaren bidez ekintza bisuala fedekintza bihurtzen den.

# Laia Estruch

## *Croll (moll)*

Azaroak 25a, Igerilekua

### Audientzia.

113



Laia Struch Croll (moll)

### Kinu #9, Traktora Koop. kolektibo egoiliarren programan.

*Croll (moll)* lanean, artista den Laiak ura arakatzen du bi-tarteko gisa. Horretarako, igerileku batean jarritako objektu puzgarri batzuk erabiltzen ditu, eta horien formak kate bat ematen du. Katebegi batzuek inskripzio errotulatuak dituzte, itsasontzietan gertatzen den bezala. Katebegi horiek osatzen duten partituratik abiatzen da ekintza. Performan-cean, igeri egiten eta puzgarriekin eragin-trukean ikusten dugu, abesten duen bitartean, soinu-banda batez lagunduta, eta bere gorputzak puzgarriekin duen kontaktua eta ahots-ariketak anplifikatzen dituzten hidrofono batzuekin batera. Airean, ahotsak burrunba egiten du ahoaren barrunbean agerian jartzeko, eta, beraz, gorputz bakoitzaren barnekotasun bereziaren adierazpena da. Urperatzean, aldiz, barrunbea urez betetzen da, eztarria ixten da eta isildu behar dugu.

## Kolaborazioak

### Loraldia

#### *Garaiz, 60 T.M.*

Martxoak 13-20



Loraldia 2020

Ekimen honen bidez, bat egiten dugu euskarazko kultura-ekoizpena sustatzeko eta hedatzeko Bilbon egiten den jaialdiarekin. Musika, hitza, zinema eta antzerkiko ikuskizunekin, euskarazko sorkuntza artistiko garaikidea ezagutzeko eta harekin gozatzeko.

# Bilbon Eskolatik Antzerkira

## Audientzia.

3.929 ikasle



Producciones Maestras. Nire Beldurrik Maitenena

Azkuna Zentroak programa honetan laguntzen du, ikasleak arte eszenikoen mundura hurbiltzeko eta emozioak sustatzeko, ikusleen eta haien irudimenaren sormen-garapenerako motor gisa.

Martxoak 14 eta 15 - Auditorioa

## **Zirkozaurre** *Vademecun*

Martxoak 16 eta 17 - Auditorioa

## **Teatro paraíso** *Gizon zoriotsuaren alkandora*

Azaroak 8 eta 9 - Auditorioa

## **Producciones Maestras** *Nire Beldurrik Maitenena*

Azaroak 9 eta 10 - Auditorioa

## **Gorakada** *Zuhaitzak landatzen zituen gizonak*

# HOTSETAN. MUSIKA ESPERIMENTALA ETA SOINU-ARTEA

Azkuna Zentroaren musika esperimentalaren eta soinu-artearen Hotsetan programak bertako eta nazioarteko soinu-sorkuntza jartzen du ikusgai, eskola-komunitateari zuzendutako entzunaldien eta hezkuntza-programa baten bidez.

## Ainara Legardon + Marja Ahti

Urtarrilak 27 - Auditorioa

### Audientzia.

72

Ainara LeGardon musikaria eta artista autogestionatuak lan oparoa egiten du rockaren, inprobisazioaren eta musika esperimentalaren arloan, bakarka eta hainbat kolektibotan parte hartuz. Bestalde, Marja Ahti artista finlandiarrek *Still Lives* bakarkako bere hirugarren diskoa aurkeztuko du, soinuaren fisikaltateari buruzko ikerketa bat.





---

# Liebre + Cornelius Carden-ren *For Stella* (1961 Alejandro Mingotek interpretatuta

Otsailak 16 – Auditorioa

**Audientzia.**  
30




Bi proposamenak musikako inprobisazioari lotuta daude maila desberdinetan. Hirukoan akustikoa (txeloa), elektrikoa (gitarra) eta elektronikoa (laptop-a) elkarrizketan ari dira eta dinamika funtsezkoa da, ia entzuten ez den zurrumurrutik zaratarik handieneko dentsitatara bidaiatzen baitute. “Inprobisazio librea” izenekoa egiten dute, musikarien bagajeak eta tresnek baizik ez baitituzte jartzen arauak.

---

# Oscar Martín A.K.A. Noish *Metamusic Machines*

Martxoak 9 – Lantegia 1

**Audientzia.**  
46



Prozesuan dagoen lana da, eta artistak azaldu duenez, “denboran zehar hainbat formatu eta izen hartu ditu, erakusten den sorkuntza artistikoaren eta ikerketa-esparruen arabera”.

Oraingoan, MMM [Flourescent Markov Beat] bertsioa aurkeztuko du, kontzertuaren eta instalazioaren arteko bide erdian dagoen formatu batean. “MMM seriearen lehen adar honek argiaren eta soinuaren arteko erritmoaren eta sinestesiaren gaia jorratzen du, hurbilketa minimalista eta erredukzionista bat eginez”.

---

# Judy + JD Zazie

Maiatzak 11 – Lantegia 1

## Audientzia.

44

JD Zazie artista DJ eta irrati-ingurunetik dator, eta hainbat planteamendu aztertu ditu, grabatutako soinu finkoaren manipulazioari aplikatzeko modukoak. Kontzertu honetan *Memory Loss* aurkeztuko du, bereizmen handian grabatutako soinu elektromagnetikoetan eta landa-grabazioetan oinarritutako proiektua. "Ikuspegi abstraktu bat, informazioa metatzeko eta biltegitatzeko ekintzak berak galeraren ideia nola barneratzen duen erakusten duena. Fantasia musikal bat, bildutako datuen gainbehera eguneroko esperientzian nola islatzen den erakusten duena", azaldu du artistak.



JD Zazie

---

# Judy

Maiatzak 9,10 eta 11 – Azkuna Zentroko aparkalekua



Iker Ruiz de Apodakak, mugitzeko askatasun osoz, musika elektronikoaren inguruan egindako proiektua da Judy. Edozein bide da bideragarria, hala dantza-musikarik bizkorrena nola drone estatiko baten monotonía, betiere entzungo den testuinguruan arreta jarrita. Hori guztia sintetizadore eta sampler bezalako hardwarea erabiliz, ordenagailurik gabe; eta zuzenekoa inprobisatuz, gertatzen denaren araberá.

---

# Al Karpenter + Orbain Unit

Ekainak 8 – Lantegia 1

## Audientzia.

42



Al Karpenter

Al Karpenter, *Concierto de Al Karpenter* proiektua aurkeztuko du, bere azken lan argitaratuen zuzeneko birsorkuntza, bideoan grabatutako dena Jorge Núñezek zuzendutako film-rock esperimentaleko kontzertu baterako. Ikus-entzuzko produkzioak kanta horiek bilduko ditu, bertako eta Estatuko undergroundeko artisten laguntzaz.

---

# Núria Andorrá y Sergio Luque

Azaroak 24 – Auditorio

## Audientzia.

23



---


# 1010 (Mikel R. Nieto)

## Preséntense

Urriak 21, 22 eta 23 –Fernández del Campo aretoa

## Audientzia.

369



Mikel R. Nieto. *Preséntense*

64 patroi erritmiko klasikoetatik abiatuta, soinu-instalazio honek giro-musika bihurtzen ditu horiek. Erritmo bakoitzak bere desagerpenerantz egiten du pixkanaka, eta, azkenean, giroko soinu-masa txiki bihurtzen dira.

loio “No input mixing board” digitalean oinarritutako musika generatiboko proiektu bat da; Toshimaru Nakamurak 1990eko hamarkadaren amaieran egindako lanei esker ezaguna da hori, eta “makinentzako makinaren musika” dela esaten da.

Sergio Luque musika bokal, instrumental eta elektroakustikoaren musikagilea eta ikertzailea da. Ordenagailuz sortutako soinuetarako konposatu dituen lanen aukeraketa bat aurkeztuko du. Mikrosoinuaren sintesi ez estandarreko hainbat teknika erabiliz sortuak dira, besteak beste, Iannis Xenakis-en sintesi estokastikoa. Teknika horrek ausazko prozesuak erabiltzen ditu uhin-formak sortzeko eta aldatzeko.

Bestalde, Núria Andorrá perkusionista, inprobisatzaile eta konpositoreak bere bakarkako bigarren lana aurkeztuko du, Nu.A. Berak egindako deskribapenaren arabera, perkusio- eta bideo-ikuskizun horretan, instrumentuak alde batera utzi, eta eguneroko objektuetara jotzen du, jatorrira hurbiltzeko.

# HEZKUNTZA ETA BITARTEKARITZA

## Oscar Martín A.K.A. Noish *Computer Music con Pure Data*

Martxoak 10 eta 11 – Lantegia 2

**Audientzia.**  
12



*Pure Data* programazio-lengoaia eta haren programazio-logika ikastearekin batera, tailer honen ardatza da “soinua, audio digitalaren hastapena, soinu-sintesiko oinarritzko teknikak ikasiz, AM, FM, kengarria, gehigarria eta teknika aurreratuko batzuk, hala nola sintesi granularra”, zehaztu du soinu-artistak.

## Musika esperimental eta soinu-artearen hastapenetako tailerrak

Martxoak 13-17 – Lantegia 1. Lab 2  
Urriak 25-28 – Lantegia 1. Lab 2

**Audientzia.**  
209



Tunipanea

Tailer teoriko eta praktikoko honetan, era ludiko atseginean, ikus-entzule gazteenek aukera izango dute soinu- esperimentazio musikalaren mugimendu eta ordezkari garrantzitsuenak ezagutzeko, XX. mende hasieratik orain artekoak, eta soinuarekin eta haren pertzepzioarekin plastikoki esperimentatzeko.

# Macarena Recuerda Shepherd-en tailerra

## *Cosa. Intervenir un cuerpo*

Martxoak 4 – Kubo Baltza

**Audientzia.**  
28



Macarena Recuerda Shepherd. Jornada de puertas abiertas 2022

*Cosa. Intervenir un cuerpo* lanean pertzepzio-irudiak eszenografiatik ikertu ditugu. Horretarako, gorputza beste material bat balitz bezala irudikatu dugu, gauza bilakatuz, atrezzo bihurtzeraino, azaldu du artistak.

# DJ Amsia

## *Música electrónica, silencio y ruido*

Azaroak 16 eta 17 – Bastida aretoa

**Audientzia.**  
11



DJ Amsia

Bakartia eta erabat elektronikoa, gaur egun bere lana MIDI orkestrazioetan oinarritzen da, soinu sintetizatuekin, bini-loekin eta sampler-liburutegiekin batera, emaitza kaotiko eta iragarrezinako soinu-collage batean; edertasun arraroko soinu-iruditeria desordenatu batean murgiltzen gaituzten musika dramatiko eta kezagarriak.

## Kolaborazioak

### Banda Municipal de Bilbao

Irailaren 9 eta 23an – Kulturaren Ataria

**Audientzia.**  
400

### Musika-Música #PRE2023

**Audientzia.**  
671

Emanaldi hauek Musika-Música#pre2023 programaren barruan kokatzen dira, edizioa martxoan ospatzen duen jaialdiaren prelude bat, Notak & Letrak kantuen inguruan.

Abenduak 13 - Atrioa

**Kontzertuaren hitzaurrea: César Coca**  
*Moby Dyck*

Abenduak 14 - Atrioa

**Kontzertuaren hitzaurrea:**  
**Mercedes Albaina**  
*Cello 360<sup>a</sup>*

Abenduak 15 - Atrioa

**Kontzertuaren hitzaurrea:**  
**Mercedes Albaina**  
*Proust, Le concert retrouve*

# LITERATURA



Hitza, adierazpen literarioaren bitarteko legez eta pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren ardatz legez; hitza da, hain zuzen ere, Azkuna Zentroaren ardatz programatikoetako bat.

Programazioak literaturaren ikuskera garaikideari hel-tzen dio, liburuak, letrak eta irakurketa gaituz, eta zabaltzen da ahozko adierazpenaren eta transmisioaren artera, ikus-entzunezko narratibara, marrazkira eta komikira. Era berean, ezagutzera ematen du bertako sormen urbanoa eta euskarari lotutakoa, publiko familiarrari lotuago dauden adierazpenak, eta azalera-tzen ari diren ahots berriak eta hegemonikoak ez diren hizkuntzetakoak.

**4.093**

jardueretara bertaratutakoak

**57**

jarduera programatu dira

**50**

egile, artista eta beste profesional batzuk

**15**

tailer

# GUTUN ZURIA BILBAO. LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA



## Itzuliz usu mundua / Todo mundo es traducción / Lost and found in translation

Martxoaren 28tik apirilaren 2ra

### Audientzia.

2.103

### Online bisitariak.

6.883

### Elkarlanean.

bbk Fundazioa

Anjel Lertxundi idazlearen “Itzuliz usu begiak” saiakeran oinarrituta, Gutun Zuria Bilbaok etengabe itzultzen eta lekualdatzen ari den mundu bat izan du ardatz 2022an: esperientziak, kulturak, lurralde artistikoak, generoak, lengoaiak eta hizkuntzak, identitateak, gorputzak itzultzen ari dena. Itzulpena hartuta ez soilik literatura-fenomeno gisa, baizik eta munduan egoteko modu gisa. Gutun Zuria Bilbao, irudi grafikoak erakusten duen bezala, mingain zuri bat da —esperimentatzeko, entseatzeko eta jolasteko zirriborro bat—, eta mugitzen ari den hizkuntza bat, etengabe eraldatzen ari dena. Eta, era berean, harresiak eraisteko eta pentsamen-  
duak, gogoetak eta ezagutzak jariatzen uzteko leku bat da.

Gutun Zuria Bilbao 2022 presentziala eta birtuala izango da, zuzenean ekoitzia eta diferituan ere bai, eztabaida ireki, lekukotza utzi eta gogoetak proposatuko dituzten egileen eskutik, aurrez grabatutako kapsuletan edo Gutun Zuria Irratiaren podcastetan, arratsalde “on air” pilotu gorria piztuko baitu Jaialdiaren irratia Atarian.

Jaialdia Zentroan eta hirian egingo da, eta Atarian plaza publiko bat irekiko du literatura, arte biziak, musika, irratia eta poesia jorrazteko. AZ Espazioa plaza publikoan, pertsonak, erakundeak eta kolektiboak ikerketa-proiektuak, literatura-ekimenak edo argitalpen-ekoizpenak aurkeztu eta

partekatuko dituzte, hizkuntza-aniztasunari, euskarari, itzulpen-  
gintzari eta edizioari buruz.

Azken batean, Gutun Zuria Bilbao. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren Letren Jaialdia itzulpen-  
gintzari begira jarriko da edizio honetan, kulturari eta gizarte-  
jarraitutarako modu gisa, munduan egoteko modu gisa hartuta... mundua aldatzeko.

Batzorde betearazlea: Raket Esparza, Alasne Martín, Fernando Pérez.

Aholku Batzardea: Iván de la Nuez, Iñaki Esteban, Beñat Sarasola, María Mur.





# Topaketak Auditorioan

Azkuna Zentroko Auditorioan egileen aurrez aurreko hitzaldiak izan dira.

## Santiago Auserón Iñaki Estebanekin

*Soinua idaztea*

Martxoak 28 - Auditorioa

Radio Futurako lider ohiak, Juan Perroren bizitza ere izan duenak, beti uztartu ditu musika, literatura eta filosofia bere artean. Kanten letrak kontakizun laburrak dira, eta liburuetako testuak ibilbide luzeko saiakerak dira, edo bere ikerketa alderraien kronikak. Bere liburu berri eta handinahia, "Arte sonora" izenekoa, korrante musikal, filosofiko eta literario horietan murgiltzen da, gatazkaren eta harmoniaren arteko bidaia baten bidez, antzinateko hasierako kaosetik iparrorratziz gabeko orainaldi honetako kaosera iristeko.

## Cristina Morales, Uxue Alberdi eta Elaine Vilar Madruga, María Murrekin

*Aita, Aberria eta Patriarkatua*

Martxoak 29 - Auditorioa

Aita, Aberria eta Patriarkatua dira hitz larriz idatzitako Historiako hondamendi gehienak azaltzen dituzten hiru kontzeptu, eta bat-etortze semantikoa baino zerbait gehiago duten hiru nozio.

## Javier Calvo, Koro Navarro eta Marian Ochoa de Eribe, Beñat Sarasolarekin

*Mamuk liburuan: itzulpena pentsatzen*

Martxoak 30 - Auditorioa

Javier Calvok, Koro Navarrok eta Marian Ochoa de Eribek gogoeta egin dute lan baten jatorrizko esanahiari eusteko aukeraz, jatorrizkoari traizio egin gabe, eta itzulpenak kultura, forma eta literatura desberdinen arteko zubi-lana egiteko duen gaitasunaz.

## Miren Agur Meabe eta Eduardo Moga

*Idazkuntza eta itzulpena: izurrak, puntadak, tolesak*

Martxoak 31 - Auditorioa

Miren Agur Meabe eta Eduardo Moga hizketan aritu dira itzulpengintzaren eta idazketaren arteko bidegurutzeaz eta bi zeregin literarioez: sortzaileaz eta itzultzaileaz.

## Gabriela Wiener eta Bibiana Candia, Iván de la Nuezekin

*Kolonialismo mutanteak*

Martxoak 29 - Auditorioa

Bi trama, espoliazio hori mendeetan zehar kontatu eta kontatzen duenaren lekua, protagonismoa eta generoa dinamizatzen dutenak. Bi istorio berezi, gai hau bihurritzen dutenak eta, hemen eta orain, denboran eta espazioan urrun ez dagoen kolonialismoa itzultzen digutenak.

## Theodor Kallifatides, Jhumpa Lahiri (on line) eta Bashkim Shehu Iñaki Estebanekin

*Bidaia zirkularra: ama-hizkuntzara itzultzea*

Martxoak 30 - Auditorioa

Bi idazketa, zeinetan jatorrizko hizkuntzak eta hizkuntza konkistatuak mahai gainean jartzen dituzten abiapuntua- ren eta helmugaren arteko talkak. Bi mundu literario, tokiz beteak eta, aldi berean, inongo lekutakoak ez direnak. Bi modu ama-hizkuntzara itzultzeko, beste mundu batzuekin kutsatu eta haiek kutsatu ondoren, etorkizuneko gramatika duen idazketa lortu arte.

## Elvira Dyangani Ose eta Tania Safura Adam, June Fernandezekin

*Munduarekin hizketan, zure maila berekoekin bezala*

Martxoak 31 - Auditorioa

Desberdintasuna kritikatzeko eta, aldi berean, berdintasuna inposatzea. Etorkizuneko hiru emakumeren joan-etorriko proiektuak, erabat onartzen baitute beren jatorria inolako eragozpenik gabe eta oraina sublimaziorik gabe. Denbora errealeko itzulpenak, munduz aldatzeak beti mundua aldatzea dakarrela sinetsita.

## Carlota Gurt, Alejandro Simón eta Vicente Monroy

*Paisaia izugarriak, barde-bidaiak*

Apirilak 1 - Auditorioa

Idazketari buruzko begirada berritzailea, mugen etengabeko gurutzaketa eta hizkuntzen eta egoeren itzulpen amaigabe gisa. Hiru istorio, barne hartu ezinezko paisaietan eta mugan kokatutako bizitza finituen arteko kontraesanak eraginda.

## Edurne Portela eta Laura Fernández Aloma Rodríguezekin

*Desbideratze amerikarra, bi novela trasatlantiko*

Apirilak 1 - Auditorioa

Atlantikoa zeharkatzeko modu asko daude, eta beti ez da gurutzatze batean izaten. Hori ondo dakite Utopia eta Atlantida, urperatutako hiria eta amestutako hiria, han azaleratu dituzten egileek. Horregatik, Estatu Batuetako beren istorioek bi aukerekin minatutako eremua zapaltzen dute -ametsekin eta hondamendiekin-, elkarrizketa honetan talka egingo duten norabide kontrajarrietan.

## Uxue Alberdi, Garazi Arrula, Xabier Paya, Yannick Bédard eta Michel Usereau

*Itzultzaile berriak: mugak gabeko literatura*

Apirilak 2 - Auditorioa

*Europako hizkuntza itzulpena da*, Umberto Ecoen adagioak ematen dio arnas *Itzultzaile Berriak* proiektuari. Literatura-itzulpenen bidez herrialde eta kulturen arteko zubiak eraikitzen dira, eztabaida sustatzen da, sormena pizten eta pentsamenduaren sakontasuna zabaltzen.

## Orhan Pamuk eta Idoia Jauregi

*Apirilak 18 – Auditorioa*

### Parte-hartzaileak.

320

2006ko Literaturako Nobel saridun Orhan Pamuk-ek bere azken eleberria aurkeztu du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, *Las noches de la peste* (Literatura Random House, 2022), iraganeko pandemiak aztergai dituen. Idoia Jauregi kazetariarekin hizketan egin du.

## Gutun Zuria Bilbao

# Kapsulak

Martxoaren 28tik apirilaren 2ra

### Autoreak.

Oscar Vizarraga, Yasnayá Elena Aguilar, Elizabeth Macklin, Vivian Abenshushan, Jon Mikel Euba, Gorka Labaka, Angel Erro eta Manel Ollé.

## Xuan Bello, Yolanda Castaño, Unai Elorriaga Garazi Arrularekin

*Autoitzulpena: bi eskuz idaztea*

Apirilak 2 - Auditorioa

Hiruok sortzen dute bere hizkuntzan (Bellok asturieraz, Castaño galegoz eta Elorriagak euskaraz), baina hiruek dute komunean gaztelerara itzuli izan dituztela beren lanak. Hots, haien buruak hizkuntza handiagora itzuli dituzte. Zer suposatzen du pertsona berak bi eskutara idazte horrek? Zein harreman sortzen dira bi hizkuntzon artean? Zein distortsio? Zein da autoitzulpenaren lekua Espainiako literatur sisteman?

## Kirmen Uribe eta Sara Mesa

*Géneros literarios fuidos: de la no ficción a la ficción*

Apirilak 2 - Auditorio

Euskal idazlearen azken eleberria abiaburu hartuta, Kirmen Uribek eta Sara Mesak aztertu dute literatura-generoen arteko mugen hedapena XXI. mendean, hau da, bilaketaren eta ezarritako arauen hausturaren mendean.

# Programa Publikoa

Gutun zuria. Bilboko Nazioarteko Letren Jaialdia zentroko espazioetara hedatzen da. Hitzak liburuen orrien muga gainditzen du eta musika, artea, ahotsa edo edizioa bezalako diziplinekin hitz egiten du.

### Uxue Alberdi

*Traducerea. Errealitateak lekualdatzea*

Topaketa honetan, Uxue Alberdi hizkuntza gutxitu batean literatura idazteak dakartzan erronkez mintzatuko da: mundua euskaratik idazteak dakartzan zailtasunez, berezitasunez eta aukerez. Burmuin elebakarren dakartzaten arriskuez eta errealitateak lekualdatzearen garrantziaz ere, ahal bada, umorez.



Uxue Alberdi

### Higinia Garay, Marine des Mazery & Jimmy Beaulieu

*El año de las tres primaveras*

Komikien Nazioarteko Egonaldian sartutako topaketa, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Angulemako Maison del auteurs eta Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'image de Québec-ekin lankidetzan. Tailerrak zati teorikoa du batetik eta ikasleekin egindako praktika bestetik. Lehenengo zatian proiektuaren azalpen labur bat egiten da, baita artista bakoitzak horri heltzeko egiten dituen prozesuena ere. Bigarren zatian ibaiaren inguruko istorio labur bat lantzen dute, lauko talde txikietan.



### Dani Orviz (Poemátika)

*Interpretar el verso: del papel al escenario*

Poetry Slam-eko Munduko txapeldunak tailer trinko hau ematen du. Bertan, merezi duen presentzia eszenikoarekin poesia janzteko teknikarik onenak aletzen dira. Poesiaren ahozko errezitaldi zuzen eta eraginkorra egiteko beharrezkoak diren alderdi guztiak azaltzen eta aztertzen dira, laburki baina eraginkortasunez: ahotsa, gorputza, isiluneen erabilera, eduki / eszenaratzearen arteko erlazioa...



Dani Orviz

## Gutun Zuria Irratia. Jaialdiaren Irratia

Gutun Zuria Bilbao irrati moduan ere zabaltzen da edizio honetan. Jaialdiak Gutun Zuria Irratia izaten du, publiko berrietara iristeko kanala. Atrioaren erdiko kuboan dago, fisikoki, eta soinu-leiho hori kanporantz irekitzen da. Jaialdiarekin elkartzeko beste gune bat sortzen du, eta soinu-argi-irudiaren banku bihurtzen da. Gutun Zuria Bilbao Irratia Idoia Jauregi kazetariak zuzentzen du.

## BBK-Gutun Zuria Bilbao Saria

2022an BBK-k eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Gutun Zuria Bilbao BBK Saria sortu zuten. Ibilbide bat, obra espezifiko bat edo kultura-proiektu garrantzitsu bat aintzatesteko, bai Euskadin bai nazioartean. Ohorezko makilaz gain, saria irabazleei emandako gutun zuri baten gisakoa da, hurrengo urteko jaialdiko edizioan inplikatu eta parte har dezaten, orduan, aldi berean izango baitira ohorezko gonbidatu eta beste egile, hitzaldi edo programa batzuen anfitrioi. BBK Gutun Zuria Bilbao saria Miren Agur Meabek eta Theodor Kallifatidesek jaso dute aurten.

## Poemátika, spoken word

Kulturen Ataria Poemátikaren agertokia da. Last Tour-ekin lankidetzan egindako proposamen eszeniko garaikide honetan, artistek, poetek eta performerrek ahozko poesiako ikuskizunak egiten dituzte, formatu tradizionalatik urrundu.

Diziplina anitzeko errezitaldi poetiko hau, jaialdian zehar hedatua, hitz mintzatutik, hitz ozenetik, hitz fisikotik, hitz idatzitik eta hitz eszenikotik eratu da, eta ikusleek aukera dute poesia, tragedia eta gogoetaz egindako benetako akelarre garaikide batean murgiltzeko.



Dudu García

## Liburudendaz, Azkuna Zentroko liburudenda

dendAZ, Azkuna Zentroaren saltokia, jaialdiaren liburudenda eta ekoizpen editorialaren inguruko topaketarako erreferentziako gunea da.

## POZ POP, Gutun Zuria Bilbao liburutegia

Gutun Zuria Bilbao Alhóndigaren barruan eta kanpoan egingo da. *Poz Pop*, Gutun Zuria Bilbaoko liburutegi mugikorra egunero jarri da hiriko leku desberdin batean, karta zuri bat proposatuz liburuen orrialdeak arakatzeko eta eszenografia osatzen duten beste elementu bisual batzuekin elkarreraginean aritzeko. Horrela, Jaialdia egunero osatzen da aire zabaleko pop up liburutegi batekin, Bilboko hainbat tokitan.

Martxoak 30

## Bagan Mundo eta Dúas Gamberras e un Micro

Martxoak 31

## *Alba. G eta Dani Orviz*

Apirilak 1

## *Isabel Martín eta Pablo X. Suárez + Dudu García*

# Mediatekako jarduerak

Lengoaia eta formatu desberdinen arteko itzulpena, komunikazioa eta miaketa dira Mediatekan jaialdia hasi aurretik eta ondoren egiten diren jardueren oinarria. Haur eta familientzako eta helduentzako proposamenak dira, eta idatzizko hizkuntzaren eta arteen —beren adierazpen desberdinen— hizkuntzaren arteko elkarrizketa dute abiaburu.

## Imaginartea

Sortutako lan bisualetatik abiatuta, parte-hartzaileei proposatuko zaie pieza horiek berrasmatzea, interpretatzea eta itzultzea, hitzen, marrazkien edo collagearen bidez.

## Itzulpenarekin hizketan

Literaturako klasikoetatik zinemako bikoizketara, baliabide linguistikoetara edo gai antropologikoetara, saio bikoitz honetan itzulpengintzari helduko diogu arte-diziplina desberdinetan duen funtzio poliedrikotik.

## Iruditik hitzetara - Hitzetatik irudietara

Iruditatik hitzetara eta hitzetatik irudietara itzultzea. Haurrei proposatutako jarduerarekin loturik, helduek aukera izango dute Jokutekako pantailetan erakutsiko diren lan bisual batzuei izenburua jartzeko.

## Irakurketa-kluba - Gutun Zuria Bilbao

Gutun Zuria Bilbaori jarraipena emanez, Mediatekak hileroko irakurketa-klub bat antolatuko du ekainera arte, edizio honetan parte hartuko duten hiru egileren lana ardatz hartuta.

## ERAKUSKETAK

### Ibilbide bibliografikoak

Ibilbide bibliografikoek ibilbide birtualen aukeraketa bat proposatzen dute, egile baten eta haren obran zehar, eta eskalak egiten dituzte itzulpenetan, bertsioetan, lengoaia artistiko desberdinetarako (komikia, zinemarako...) ego-kitzapenetan eta interpretazioetan (solasaldien loturak, elkarrizketak...).

## Afrika Bibangen Kontzertua



Afrika Bibang

*Nómada* (2019) argitaratu ondoren, *Afrika Bibang Ispilua-  
ren Aurrean* (Huracan29 Records) lanarekin itzuli da, soul  
eta R&B soinuei leial eutsiz eta Motown klasikoaren eta  
Neosoularen arteko soinu-paleta erakutsiz.

## Gutun Zuria Bilbao

---

# Argitalpenak

### Catálogo de derivas

Oscar Gómez Mata aktore eta eszenografoak, Esperanza López artistarekin batera, *Laboratorio de derivas* (Deriben laborategia) proiektu artistikoa garatu du bi urtez, Azkuna Zentroko artista AZkide gisa.

Oinez ibiltzeko ekintzaren bidez hiri-paisaiaren eta pertso-  
na bakoitzaren barne-bizitzaren artean loturak finkatzeko  
asmoa duten praktikak dira deribak. Egonaldi honetan,  
hainbat deriba abiarazi dituzte, herritarrei zuzenduta, egu-  
neroko hiri-paisaiak behatzeko eta esploratzeko asmoz.

Gutun Zuria Bilbaon aurkeztuko den “*Catálogo de derivas*”  
(Deriben katalogoa) eskuliburu bat da egoera, egun eta  
umore desberdinetarako asmatutako ibilaldi horiek guztiak  
erabiltzeko.

# LITERATURAKO BESTE JARDUNALDIAK

## Komikteka. Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak

Urtarrilatik abendura

Parte-hartzaile.  
113

ivoox.  
13.150

Komikteka abiarazteko prozesuaren barruan, urtarriletik ekainara bitartean, bitartekaritza-zikloa egingo da, komiki amerikarraren, europarraren, espainiarraren eta mangaren munduko ezinbesteko figuretako batzuen inguruan. Mediateka BBKren bildumaren parte dira guztiak. Topaketa hauek eleberrri grafikoaren zaleei eta diziplina hau ezagutzen hasi nahi dutenei zuzenduta daude.



Urtarrilak 19

**Alejandro Jodorowsky y Moebius**  
*El Incal*

Otsailak 9

**Art Spiegelman**  
*Maus: relato de un superviviente*

Martxoak 23

**Miguel Gallardo**  
*Maria y yo*

Apirilak 6

**Alan Moore y Dave Gibbons**  
*Watchmen*

Maiatzak 4

**Marjane Satrapi**  
*Persépolis*

Maiatzak 25

**Jiro Taniguchi**  
*El caminante*

Ekainak 25

**Paco Roca**  
*La casa*

Urriak 26

**Rumiko Takahasi: Ranma 1/2**

Azaroak 23

**Purita Campos: Esther, Carmen  
Barbará: Mary Noticias, Trini  
Tinturé: Emma es encantadora**

---

# Borja Crespo eta Raquel Meyers

## *Aukeratu zeure normaltasuna*

Otsailak 8 – Mediateka BBK  
Fanzine eta tailerra

### **Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa bereziaren barruan**

*Aukeratu zeure normaltasuna* proiektu artistiko parte-hartzailea da, eta sortu da itxura batean “lehengora” itzultzearekin itsututa dagoen oraina berrasmatzeko beharretik, orain honek ezin baitio etorkizunari bistakoa denetik harago begiratu.



---

# Josune Urrutia

## *Crónicas Complejas*

Otsailak 15etik martxoaren 20ra – Mediateka BBK

Osakidetzarekin lankidetzan, eta Gurutzetako Ospitaleko Pediatria Unitatearekin batera

Tailerra eta podcasta

### **Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa bereziaren barruan**

*Crónicas complejas* zeharkako gun bat da, arte- eta osasun-gaiei buruzko pentsamendua, hausnarketa eta sorkuntza jorratu nahi dituena. Gaixotasunak dituzten pertsonak, osasun- eta kultura-arloko erabiltzaileak eta profesionalak, eta gai horiekiko interesa duten pertsonak biltzen ditu.





---

# Irakurketa erraza

Otsaila-martxo

## Parte-hartzaile.

35

Topaketei esker, irakurtzeko gaitasun desberdinak dituzten pertsonak liburu bat formatu egokitu batean irakurtzeaz goza dezakete, eta partekatuko dute. Dinamizatzaile batek gidatutako istorioak. Irakurketa Erraza - Euskadiko Irakurketa Erraza elkartearekin batera bultzatutako dinamika honek irakurketa partekatua bultzatzen du ozenki, eta historiarekin eta testuaren ulermenarekin lotutako hainbat ariketa eta jarduera ere egiten dira.



---

# Irakurketa-saioak terrazan

Uztaila eta abuztua

Literatura-genero ezagunenetatik ihes eginez, Mediatekak, uda honetan, ozenki irakurtzeko saio gidatuak proposatu ditu, hain aztertuta ez dauden beste genero batzuk jendea-ri hurbiltzeko, hala nola, kontakizun laburra, gidoia, poesia eta antzerkia.



---

# Bisita iruzkinduak gune bibliografikoetara

Uztaila eta abuztua


Hogeita hamar minutuko ibilbidea Mediatekako espazio bibliografikoetatik, liburu eta ikus-entzunezko bildumaren eta egileen atzean ezkutatzen diren sekretuak eta bitxikeriak ezagutzeko.

# Zinema-elkarrizketak. Argiak, kamera, ekin!

Irailatik aurrera- Mediateka BBKn

Topaketa bakoitzean, aukeratutako zuzendarien biografia eta horien sormen-prozesuak jorratzen dira, eta filmen gaien eta egungo testuinguru sozialaren arteko paralelismoak bilatzen dira.

Gainera, saio bakoitzean, tituluei buruzko bibliografia espezifikoa aurkezten da: oinarri dituzten eleberriak eta/edo komikiak eta Mediatekaren ikus-entzunezkoen funtsean dauden soinu-bandetako batzuk.



Irailak 20

**Alfred Hitchcock**  
*Vértigo*

Urriak 18

**Francis Ford Coppola**  
*El Padrino*

Azaroak 15

**Galder Gaztelu-Urrutia**  
*El Hoyo*

Abenduak 20

**Richard Donner**  
*Superman*

## Vicente Paredes "SuperEuskadi"-ren aurkezpena

Urriak 13

Pertsonaiez, egoerez, dogmez, paisaiez eta klixez osatutako begizta batez inguratuta, aurrera edo atzera bidaiatzen dugu, Alacanteko Vicente Paredes argazkilariaren begiradaren bidez. *Rock erradikalak* duela hogeita hamar urte baino gehiago erakarri zuen Euskal Herrira, eta aho zabalik bizi izan du substantiboaren eta adjektiboaren, errealitatearen eta SUPEREUSKADIren mitoaren arteko tirabira.



# Galeria Mediateka

## Cuto

### *Mediateka, más que una biblioteca*

Ekainaren 28tik irailaren 25era

Ikus-entzunezko eta soinu-zuko proposamen baten bidez Mediatekaren eraldaketa balioesteko egindako komunikazio-kanpainaren "making of"aren erakustaldia.



Mediateka BBK - Spot "Más que una Mediateka"

## artxiboAZ. Sorkuntza garaikideko gordailu digitala

Urriak, 6 - Urtarrilak, 14

Galeria Mediatekan aktibatuko da artxiboAZ, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren kultura-programazioaren gordailu digitala.

# Haur eta familientzako bisitak / tailerrak



## **Txikiteka** *Sorkuntzarako uda*

Uztaila eta abuztua

**Parte-hartzaileak.**  
88

## *Gabonetako programa*

Abendua - Urtarrila

**Parte-hartzaileak.**  
48

# Irakurketa- saioak terrazan haurrentzat

Uztaila eta abuztua

## Parte-hartzaileak.

137

Mediatekak bidaia bat proposatzen du 6 eta 10 urte bitarteko haurrentzat, saiotik saiora aldatuko diren hainbat hizkuntzatan zehar. Kontakizun laburretik edo ipuinetik, gidoitik pasatuz eta antzezlan batekin amaituz. Uztaila eta abuztua bitartean terrazan egiten diren saio horietan, kontakizun laburra edo ipuina lantzeko eta ahoz sortzeko prozesu bat gauzatzen da, ondoren zinemako gidoi bihurtzen dena eta, funtzioen banaketa baten ondoren, prosazko edo bertsozko antzezlan bat izatera irits daitekeena.



PROIEKTU  
ESTRATEGIKOAK

Connect

Todo será igual.  
Nada será igual.

*Imajinatu*

*Entzun*

Hezitu

Inventa

# SORKUNTZA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOARI LAGUNTZEKO PROGRAMAK

## 31

artista eta ikertzaile egoilarrak



Jornada de Puertas Abiertas a la creación. Isabel de Naverán

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok ikerketa, sorkuntza eta ekoizpen artistikoari laguntzeko hainbat ekimen garatzen ditu programazio-ildoei lotuta: arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura, kultura digitalak eta gizartea. Prozesu horiek guztiek beti dute alde publiko bat, eta publiko-komunitateei aukera ematen diete hausnarketa artistiko garaikidea egiteko, bai egindako lanaren bidez, bai sormen-prozesuen bidez.

Artea espazio guztietan sortzen da, erakusketa-aretoan edo Mediatekan ere bai, etapa berri honetan konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko leku gisa planteatu baita. Baina Lantegia. Ideien laborategia da Azkuna Zentroko sorkuntza

eta esperimentaziorako espazioa. Lan-habitat, esperimentazio-tailer bat da, eta, bertan, harreman-mota desberdinak ezartzen dira, trukea, prozesuak eta sorkuntza artistiko garaikideari bide emateko. Era berean, leku irekia eta sarbide askekoa da, prozesu horiek ezagutzera hurbildu nahi duten ikusle-komunitate guztientzat.

---

# Sorkuntza eta ekoizpen artistikoari laguntzeko Programak

## Gonbidapenez

- Kolektibo egoiliarra
- Ikertzaile AZ kideak
- Artista AZ Kideak
- Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa

## Deialdi bidez

- Nazioarteko egonaldiak
  - Dantza, Praktika artistikoak, Komikia
- Komisario Berriak. Komisariotza lantzeko programa
- Babestu. Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa

---

## Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa berezia

### Elkarlanean.

Fundación Banco Sabadell



Azkuna Zentroak sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu ezohiko programaren lehen deialdia egin zuen 2020an, COVID-19aren krisiak eragindako salbuespenezko egoerari erantzuteko, sortzaileek aukera izan zezaten pandemiaren ondorioz kaltetutako prozesuak eta ikerketak garatzen jarraitzeko.

Azken bi urtetan, beharrezkotzat jo izan da sorkuntza artistikoa bultzatzeko deialdia egiten jarraitzea, eratze-prozesu horiek indartzea eta pertsonen beren proiektuak garatzen lagun egitea.

Hirugarren edizio honetan Estanis Comella, Pablo Marte eta Lorenzo García-Andrade, Julia Martos, Oihana Vicente eta Maia Villot de Diegoren proiektuak aukeratu dira.

Haien proiektu eta ikerketa artistikoak artearen narratiba berriei begira daude, eta antzerkiaren, arlo performatibo eta grafikoaren eta instalazio eskultorikoaren arteko elkargunean kokatzen dira; irudia, gorputza eta ahotsa; artxiboa, artist moving image-a eta bideo-saiakera; zinema, bideo-arte eta new mediak.

## Estanis Comella

### *SXT (Source by Transkription) - AP7: VEIL*

Estanis Comella (Lleida, 1985) artistak antolaketa-sistema eta display hedatuen bidez lan egiten du, lan ildo desberdinetatik sortzen diren aldaketak formalki eta kontzeptualki antolatzeko. Esparru narratiboak sortzea, erregistroak eta denborazkotasunak ateratzeko, eta erregistro eta denbora horiek nola gorpuzten eta espazioan nola txertatzen diren jakiteko interes handiarekin.

SXT (Source by Transkription) proiektuak irakurketa-ordenarik ez duen eta 2020an eta 2021ean gertaturiko zuzene-

neko ekintza batzuetan egin den testu baten konfigurazio-prozesua erakusten du.

Testu honek zuzenean inprobisatzeko nozioak ezartzen ditu. Erantsitako materialek, hala nola artxibo propio bateko irudiek eta kanpoko praktikek gidatzen dute SXT abiapuntuko idazketa-nahia. Material horien guztien arteko lotura bat arkitektura eskultorikoa da, gorputzetik eta ahotsetik espaziora garraiatua.



# Julia Martos

## *Un vestido claro clarísimo*

Julia Martos (Córdoba, 1989) artista bisuala eta programatzailea da. Ikus-entzunezko azken lanetan autobiografia eta historia pertsonala erabili ditu errealitate sozial zabalagoen input bideratzaile gisa.

*Un vestido claro clarísimo* ikerketa-proiektua elkargunean kokatzen da, zinema dokumental garaikidearen, artista filmean eta artxibo pertsonalarekin egindako lanaren artean. Proiektuaren abiapuntua artistaren amonaren karta-, egunkari- eta bestelako dokumentu-artxiboan azterketa da. Artxibo hori eztabaida-gune gisa erabiliko da, eta haren ahalmen narratologikoak eta garaiko genero-irudikapen naturalizatuak deseraikitze gaitasuna zalantzan jarriko ditu.

# Oihana Vicente

## *REEL CINEMA\_filmimg movies randomly*

Oihana Vicente (Bilbo, 1984). Artista eta aktorea. Orain arte antzerkian, performancean eta eskultura-instalazioan lan egin izan du. Artean eta diseinuan esperimentatzeko BiGGeR\_arte eta garapena espazioa diseinatu eta zuzentzen du; ideiak sortzeko eta errealitatean txertatzeko beharrezkoak diren baldintzak bideratzen dituzten esperientziak eratzten ditu.

*REEL CINEMA\_filmimg movies randomly* aisialdi-tailerra da, nerabeei zuzendutako ikus-entzunezkoen esparrukoa. Parte hartzen duen taldeak eragingo duen "garaikidetasun etena" erretratatu duen film bat sortu nahi du. Horretarako, nahastu egingo ditu zinemaren, bideo-artearen eta baliabide berrien egiturak, edukiak eta baliabideak, baita gaur egun sare sozialek proposatzen dituzten bitartekoak eta formatuak ere.

# Maia Villot

## *AMA preludio*

Maia Villot de Diego (Sevilla, 1977). Artista. Bere praktika begiespena, entzutea eta irudiei beren kabuz hitz egiteko denbora ematearekin zerikusia duen arreta-mota baten inguruan dabil.

*AMA preludio* proiektu handiago baten lehen zatia da, lehen hurbilketa bat dominatrix figurara, femme fatal-ari lotutako beste estereotipo baten gisa.

# Pablo Marte eta Lorenzo García-Andrade

## *Violencia Fantasía*

Pablo Martek eta Lorenzo García-Andradek urtebete darimate Deseo Real izeneko argumentu afektiboan murgilduta. Honen ikerketa-ildoetako bat *Violencia Fantasía* da.

**Pablo Marte** (Cádiz, 1975) artista, idazlea eta ikertzailea da. Bere lana idazketan eta horrek mugimenduan dagoen irudiarekin duen harremanean hasten da, muntaiaren bidez eta irudia espazializatzeko moduak ikertzen.

**Lorenzo García-Andrade** (Madril, 1991) Zientzia Politikoe-tan lizentziaduna da. Komisariotzaren, ekoizpen kulturalaren eta praktika artistiko desberdinen arteko elkargunean aritu da lanean. Esperientzialaren potentzialtasunean eta horrek mugiarazten dituen hizkuntzetan oinarritutako proiektuak garatzen ditu.

*Violencia Fantasía*k desiraren eta indarkeria gaur egungo mundura egokitzeko dituen forma sotilen arteko harremana aztertzen du. Indarkeria sotiltzat hartzen dira irudikapen ederretatik fantasiaraino ateratzen diren indarkeria-motak, bere buruaren irudi ezin hobea sortzearekin obsesionatuta dagoen gizarte batean.

# Artista AZkideak

Programa honek laguntza ematen dio sorkuntza artistikoari, beren lanetan lengoia artistikoei buruzko begirada inspiratzailea duten sortzaileak sustatuz eta bultzatuz.

Lankidetzarako marko bat, zentroaren programazio-ildoekin bat datorrena, kultura garaikiderako eta sormen-prozesuen babesarako sarbide-plataforma izatea indartzeko.



## Elena Aitzkoa.

### *Ur aitzak*

Elena Aitzkoa (Apodaka 1984), 2022ko Az artista kide berria, besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da. Haren sorkuntzalanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxiasko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta biziesperientziak dituzte oinarrian.



## Miguel García.

### *Comclapompos.*

### *Usar el flujo como un cauce*

Miguel A. García (aka Xedh), 2022az geroztik Az artista kide berria da, musika esperimentalaren eta soinu-artearen arloan lan egiten duen artista. Bai bakarka bai taldeka, Europan, Amerikan eta Asian jardun du. Hainbat artistekin aritu da bai estudioan eta bai zuzenean, ehun diskotan baino gehiagotan agertuz.



## Laida Lertxundi.

### *8 Topaketa*

Laida Lertxundi Artista Az-Kidea da 2021etik eta 8 Topaketa lana garatzen du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimentu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoen mugetatik kanpo.



## Ion Munduate.

### *Rosas en el viento*

Ion Munduate (Donostia, 1969) Az artista kide berria da 2022tik. Blanca Calvorenkin batera, 1994an lankidetzara artistikoa hasi zuen, eta hainbat lan sortu zituzten. Aldi berean, Mugatxoan sortu zuten 1998an (Gure Artea 2015 saria), ikerkuntzan eta sorkuntzan oinarritutako prestakuntza-proiektua. Bere performance eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dira.

# Ikertzaile AZkideak

Egungo sorkuntzaren inguruko analisia eta ekoizpena bultzatu eta sustatzeko programa, komunitate artistikoen, publikoen eta beste profesional batzuen arteko trukea errazten duena.




@ Helena Goñi 2021

## Aimar Arriola

Aimar Arriola komisarioa *Forma-desira bat* proiektua garatzen ari da ikertzaile AZkide gisa zentroaren programazioaren barruan. Proiektuak artearen eta queer/kuir ikuspegiaren arteko harremana hartzen du esparru orokortzat, eta haren jarduna mugatzen du forma- eta interpretazio-gaien inguruan. Teoria kritikoaren eta gizarte-zientzien esparruan, queer/kuir ikuspegia deskribatzen da maskulinitateari eta feminitateari buruzko konbentzio sozialak zalantzan jartzen dituen perspektiba gisa, horiek desnaturalizatzen, eta borroka feministen, antirrazisten eta dekolonialen eta LGBTIQ+ borroken iraganaren eta orainaren arteko elkarriketa bilatzen baitu

Ikerketa hasi zenetik bi urte igaro ondoren, 2022an, proiektua bi eremu edo arloren elkargunean dago, eta gune edo eremu horiek bata bestearengana bultzatzen dira. Alde batetik, hausnarketa jarraitua dago "forma" kategoriarri buruz, eta desira eta bakantasunaren nozioek dualismoak birpentsatzen laguntzen diguten moduari buruz, hala nola makurra-zuzena, azalera-sakonera, edo jarduera-pasibotasuna -gorputz gisa eratzten gaituzten eta inplikazio politikoak dituzten bereizketak-. Bestetik, esperimentazioa dago, ikerketa-metodo propio batekin, aldi berean diskurtsiboa, plastikoa eta entzutekoa izan nahi duena.



@ Lorea Alfato, 2021

## Isabel de Naverán

Artean doktorea da UPV/EHUn, eta Artes ikerketa-taldeko kidea Madrilen. Artea, koreografia garaikidea eta performancea lotzen dituen bidegurutzetan ikertzen ari da, kuratortzako, edizioko eta idazketako proiektuetan. Arreta berezia jarriz gorputzaren pertzepzioan, zentzumenen lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena.

# Kolektibo egoiliarren programa

Sorkuntza eta ikerketa artistikoari laguntzeko programa bat da, kultura garaikidearekin zerikusia duten talde, kolektibo artistiko eta kooperatibei zuzenduta, beren proiektu artistikoak zentroan bi urtez gara ditzaten.



## Tractora Koop. E

Tractora artisten kooperatiba 2020-2022 Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarra da.

Usue Arrieta eta Ainara Elgoibar ikus-entzunezko ekoizpenak programatu, ikusi eta eztabaidatzeko plataforma gisa sortutako proiektu honen parte dira. Hiru hilean behingo topagunea, artista bat bere lana erakustera gonbidatzeko eta harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri eta haren berezitasunei buruz taldean gogoeta egiteko.

Tractorak Kinu proiektua garatzen du zentroan, ikus-entzunezko proiektu saioak eta autoprestakuntzako lantaldeak, arteko mugimenduko irudiaren edo artist moving image-ren inguruan.



## Urbanbat. Behatokia

Elkarlanean.

Grupo Urbegi

**urbegi**

Urbanbat 2022-2024 Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarra da.

Hiri-berroneratze prozesuetako ikerketa eta bitartekaritzarako Urbanbat bulegoak *Behatokia* programa garatzen du, hiria ikuspegi transdiziplinar batetik behatzeko hiri-ikerketarako laborategia.

# Komisario Berriak. Komisariatuak garatzeko programa

Komisario Berriak komisariatuzaren praktika bultzatzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta sendotzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzak duen programa da.

## Javier Arbizu. *Talud mediodía*

Zentroan egonaldia izan ondoren, Javier Arbizuk Talud mediodía proiektua aurkeztu du Komisario Berriak programaren esparruan. Proposamenak Julián Pacomio, David Bestué eta Claudia Rebeca Lorenzo artisten lanak bateratzen ditu, haien praktikek zerikusia baitute konbergentzia eta argiarekin.

Arbizuren lanak Bilboko toki ikoniko bat desegiteko prozesua du abiaburu: Artxandako jolas-parkearena. Hortik, "ezpondaren" eta "eguerdiaren" irudiak erreskatatzen ditu, eskulturatik eta performaziotik jarraitasunaren eta aldibere-kotasunaren ideiak jorratzeko.

# Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa

Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programaren helburua da deialdi irekia egitea, gonbidapen bidez, obra eszenikoak ekoizteko. Lanean programaren bidez, sortzaileek beharrezko baldintza material eta espazialak dituzte arte biziaren lotutako proiektuak garatzeko, eta Zentroaren programazioa ere bai, horiek garatu eta Azkuna Zentroan aurkezteko.

## Raketa Brokobitx.

Hainbat diziplina artistikotan hezia: interpretazioa, kantua, bikoizketa, bideoa, performancea, dantza. Azken horretan, klake amerikarrean espezializatu zen urtebetez (2006) New Yorken. Pixkanaka, harremanetan jarri zen dokumentalaren ikus-entzunezko esparruarekin, eta ikerketa-eremua aurkitu zuen hor, objektibo eta subjektiboaren, errealitate eta fikzioaren arteko tentsioari aurre egiteko. Hainbat konpainia, ikuskizun eta performancetan lan egin du Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

## Idoia Zabaleta eta Rosario Toledo.

**Idoia Zabaleta.** Egungo eszena garaikidearen sortzaile nabarmen honek, interprete gisa, Mal Pelo konpainiaren hainbat muntaietan parte hartu du, eta sortzaile gisa, Moare Danza konpainiaren buru modura sinatu eta koproduzitzen du. Biologian lizentziaduna da, eta ekosistemetan eta populazioen dinamikan espezializatuta dago, bere lanetan agertzen diren ideietan ikus daitekeenez. Irakaslea eta kudeatzailea. 2008an, AZALA sorkuntza-gunea sortu zuen, Juan Gonzálezekin batera, sorkuntza eszenikoa ikertu, sustatu eta zabaltzeko espazioa.

**Rosario Toledo.** Bokazio sendoko dantzaria da, eta irudi tradizionala gainditzeko duen estetika propioa bilatu du beti. Maisu handiekin izandako harremanari esker, dantza flamenkoaren ikuspegi oso pertsonala garatu ahal izan du. Dantza sakona, kontzeptuala eta ideiekin, baina, aldi berean, oinak lurrean jartzen dituena, naturari atxikitzen zaiona eta kalera irteten dena. Testuinguru horretan, cadiztarra proiektuak garatzen murgiltzen da bere konpainiarekin, eta gaur egungo flamenkoko ezinbesteko dantzaria da.

## Stocos Institutua.

Muriel Romerok eta Pablo Palaciok sortua eta zuzendua, gorputz-keinuaren, soinuen eta iruditeria bisualaren arteko eragin-trukearen analisia eta garapena ditu ardatz. Esparru horretan egindako ikerketek eta lanek beste diziplina batzuetatik hartutako abstrakzioak biltzen dituzte testuinguru eszeniko batean, hala nola adimen artifizial, biologia, matematika edo psikologia esperimentaletik hartuak.

## Poliana Lima.

Koreografoa, dantzaria eta irakaslea da. Gorputza bere adierazpenaren objektu nagusitzat hartu, eta aukerak aztertzen ditu, ikusleekin era erraz eta sakonean komunikatzeko moduko poetika bat sortzeko eszenan. Identitatea eta oroimena bezalako gaiak, besteak beste, behin eta berriz agertzen dira haren sorkuntzetan, baita sorkuntzaren eta pedagogiaren arteko harreman ere, funtsezko alderditzat jotzen baitu artista gisa egiten duen lanean.

## Histrión teatro.

Gema Matarranz eta Nines Carrascalen eskutik, 20 ikuskizun baino gehiago ekoizti dituzte. Histrión-en ibilbide artistikoak funtsezko bi elementu ditu oinarrian: batetik, testuaren defentsa, proposamen artistikoari tinko eusten dion egiturazko elementu gisa, eta, bestetik, interpretazioa, interpreteen eta publikoaren arteko lotura estu gisa.

# Nazioarteko egonaldiak

## Elkarlanean.

Etxepare Institutoa

Sorkuntza garaikidea sustatzeko programak hurbileko sormen-sarea lotu nahi du homologagarriak diren nazioarteko kultura-inguruneekin, truke, harreman eta lankidetzara iraunkor eta elkarrekikoen bidez.

Horretarako, ezinbestekoa da sarean lan egitea, lehen mailako gune eta proiektu garaikideekin. Hainbat partnertan laguntza du, besteak beste, Etxepare Institutorena.

## Komikiaren Nazioarteko Egonaldia

2022an, Azkuna Zentroak komikiaren nazioarteko lehen bigarren egonaldia deitu du, Quebec-eko Maison de la littérature-rekin eta Angulemako Cité internationale de la bande dessinée et de l'image-rekin batera, komikiaren esparruan sorkuntza sustatzeko eta hainbat herrialdeetako pertsonen arteko elkarketa bultzatzeko, eleberririk gabeko funtsezko ingurune profesionaletan, beste diziplina garaikide artistiko batzuetako artistekin konektatuz.



### Andrea Ganuza, Azkuna Zentroa; (Iruña, 1988)

Narrazio grafikoan eta marrazketan oinarritutako bere praktika artistikoan komikigintzaren mugekin esperimentatzen du, arte garaikidearen lengoaietako bat dela uste baitu. Poesiaz betetako begi kritiko batez, bere esperientziak gai sozial, politiko eta emozionaleri buruzko informazioa emateko erabiltzen ditu. Bere prestakuntza eta lana esparru instituzional batean zein kontrakulturarekin, diseinu grafikoarekin edo fanzineekin lotutako jaialdietan garatzen da. Kontrakulturari, diseinu grafikoari eta fanzineei lotutako jaialdietan izan du prestakuntza eta horretan egin du lan. Bere proposamenetan garrantzi handia du mundura, kultura desberdinetara eta egungo gizartearen erronketara irekita egoteko duen jarrerak. Egonaldia aukera ona izango da bere sarea mundu frankofonoan garatzeko.



### Clara Chotil, Angoulême; (Frantzia & Brasil, 1992)

Arkitektoa eta artista bisuala. Dynamorphe kolektiboa sortu zuen 2017an, eta horren barruan argi-arkitekturak sortzen ditu. Eszenografiari eta arte grafikoei dagokienez, zuzeneko proiektzio- eta marrazketa-gailuak garatzen ditu. Lan hauen egilea da: Maria d'Apparecida abeslari brasildararen bizitzaren kontakizuna den Ópera Negra komiki-tirak, eta Ballade des dames du temps jadis, Unibertsitatearen historian emakumerik ez egoteari buruzko ikerketa. Clara Chotil bere karreraren une erabakigarrian dago, eta epaimahaiaren ustez egoitza bultzada handia izango da bere lanen formaren definizioan zein bere sare profesionalaren garapenean.



### Charlotte Gosselin, Quebec (Québec, 1996)

Diziplina arteko artista autodidakta da gehienbat, eta arte bisualei, diseinu grafikoari eta ilustrazioari buruzko ikastaroak egin ditu. Charlotte Gosselinek marraztu, margotu, animatu, bideoak ekoiztu eta poesia idazten du. Bere sormen prozesua espazio handietan, intimitate txikietan eta bere sentiberatasunean oinarritzen da.

Quebecen hainbat erakusketa eta egoitza artistikotan parte hartu du. Diseinu garaikidearen, ilustrazioaren eta komikiaren artean egindako lan gurutzatua balaratu du, eta egoitza horrek, komikigintzari eta komikigintzari lotutako beste egile batzuekin elkarrekin, aurrera egiteko aukera emango diola eta etorkizuneko garapen profesionalean oso probetxugarria izango zaiola iritzi dio.

# ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEKO PRAKTIKA ETA TEORIAKO MASTERRA



Arte eta kultura garaikideko praktika eta teoriako masterra

2022-2023 ikasturtean arte eta kultura garaikideko praktika eta teoriako lehen masterra jarri da abian, Azkuna Zentroak – Alhóndiga Bilbaok emandakoa, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan.

Ezaugarri horiek dituen lehen masterra da Euskadin. Praktika artistiko eta kultural garaikideen errealitate berria ikuspegi aplikatu batetik ulertzeko eta programazioaren inguruan planteatzen diren gai guztiak ezagutu eta prestatzeko behararen emaitza da.

Helburua da ikasleen profesionalizazioa bultzatzea, gaitasun espezifikoak eskuratuz arteak eta kultura garaikidea ikuspegi transdiziplinar eta berritzailearekin ulertzeko; eta ezagutzera ematea Azkuna Zentroa bezalako gizarte eta kultura garaikideko zentro baten kudeaketan eragina duten alderdi praktikoak.

Masterrak ezagutzak, tresnak eta trebetasun espezifikoak eskaintzen ditu, kultura-kudeaketaren, komisariotzaren eta proiektuen ekoizpenaren alderdi guztiei buruz, gizarte eta kultura garaikideko zentro batean. Programak gaitasuna ematen du proiektu artistiko bati osorik ekiteko: propo-

samena aurkezten denetik administrazio- eta finantza-kudeaketaraino, ekoizpen teknikoa, marketin- eta komunikazio-plana eta kultura-instituzio publiko eta pribatuekin lankidetzaren sareak aktibatzea barne hartuta.

Master berriak murgiltzeko praktika bat proposatzen du, kultura garaikideko zentro baten kudeaketaren benetako testuinguruan, arte- eta kultura-arloko berrogei profesional baino gehiagoren esperientziaren eta ezagutzaren bidez.

Irakasleen corpusa era askotako profilak dituzten 40 profesionalak baino gehiagok osatzen dute. Hezitzaile bihurtu, eta beren ezagutza eta jakintza transmititzen dituzte, beren esperientziatik eta eskarmentutik abiatuta. Artistak, ikertzaileak, unibertsitateko irakasleak, komisariotzako eta kultura-kudeaketa aktiboko profesionalak dira, eta zentroan lan egiten dute, zuzendaritza artistikoko, marketineko eta kudeaketako profesionalekin batera. Zeregin edo espazio horiek ez dira oso agerikoak, baina guztiz garrantzitsuak dira kultura garaikidea nola garatzen den ikusteko (garrarioa, txostenak, aseguruak, kontratuak...).

# AZ Irratia. AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAOREN IRRATIA

15.766

entzule



AZ Irratia. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren irratiaren programazioa eta audientzia hazi egin dira, pentsamenduaren eta hausnarketa artistikoaren transmisio-uhalek gisa ahozkoasuna duen formatu berri honen aldeko apustua sendotuz, eta zentroko komunitate artistikoa osatzen duten sortzaile, komisario eta gizarte- eta kultura-eragileen konplizitatea balioetsiz. Bere begiradari eta proposamenei esker, AZ Irratia nazioarteko izaera duen bertako irrati bat da, eta bere narratibek eta konposizioek muga geografikorik ez duen hurbileko komunitatea sortzen dute.

Soinu-pilula hauek, berez, sormen kolektiboko ariketak dira, irrati - performancearen edo irrati-magazinaren tradizioa balioesten baitute eta, aldi berean, gonbit egiten baitiete beste ahots batzuei podcastingarekin lehen aldiz esperimentatzeko.

Azkuna Zentroaren artista AZkide gisa Sra. Polaroiaskak (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe) garatutako *Jakintsuen kontseilua* izeneko proiektu artistikoa hedatu egin da, belau-naldien arteko dispositibo honetan parte hartzen duten bederatzik emakumeek partekatutako istorioak, hausnarketak eta esperientziak erreproduzitzen dituen podcast-sortaren bidez.

Era berean, Isabel de Naveránek podcastaren bidez garrantzen du *La ola en la mente* proiektuaren zati bat, Azkuna Zentroaren ikertzaile AZkide gisa egina. *La ola en la mente: oralidad secundaria* (Olatua buruan: bigarren mailako ahozkoasuna) proiektuak bost gutunetan biltzen ditu sortzaileak lau gonbidaturekin izandako trukeak: Lorea Alfaro, María García Ruiz, Raquel G. Ibáñez eta Andrea Soto Calderónek izandakoak.

*Diálogos, historietas y bocadillos* (Elkarrizketak, istoriotxoak eta bunbuiloak) programaren audientziak gora egin du, ikusleek nobela grafikoarekiko duten interesaren erakusgarri. Mediatekan hilero egiten diren topaketekin lotuta dago programa, eta garai guztietako komikien erreferenteen lana balioesten du, haien lanen bidez.

Gutun Zuria Bilbaoren esparruan, AZ Irratia Azkuna Zentroaren Letren Nazioarteko Jaialdiaren soinu-leiho izango da, eta gune bat irekiko du Ataritik, jaialdiaren soinu-bankuaren parte diren topaketa, hizketaldi eta elkarrizketarako, podcasten bidez.




# artxiboAZ

40.000

dokumentazio-deskarga

22.278

bisita



2022an aktibatu da artxiboAZ, Azkuna Zentroaren kultura-programazioaren gordailu digitala. Tresna hau sorkuntza garaikidea ulertzeko sortu da, eta hiru alderditatik planteatzen da: "artxibo instituzionala", zentroan izan den ekoizpen artistikoa jaso, sailkatu eta zabaltzeko; "sorkuntza eta bitartekaritza", artistek beren ekoizpenerako eta artea ikusleen komunitateengana hurbiltzeko erabil ditzaketan edukiak eskaintzeko, eta "memoriaren bermatzailea", euskal sorkuntza garaikidearekin zerikusia duten mota guztietako edukien gordailu gisa.

Edukiak 11 komunitatetan eta 31 bildumatan egituratuta daude, eta Azkuna Zentroaren programazio-ildoak eta ardatz estrategikoak islatzen dituzte: arte bisualak, arte biziak, sorkuntzarako laguntza, zinema eta ikus-entzunezkoak, kultura digitalak, literatura, hedabideak eta argitalpenak, hezkuntza-programa, irratia, gizartea eta saiakera-gunea.

Orain arte, 300 jarduera katalogatu dira artxiboAZen, proiektuaren corpus kulturala osatzen duten 7.100 artxibo baino gehiagotara sartzeko.

Plataforma berriak aukera ematen du kartelak, aretoko orriak, liburuxkak, aldizkari-orriak, prentsa-dosierak eta ikus-entzunezkoak (argazkiak, audio gidak, podcast-ak eta bideoak) ikusteko eta deskargatzeko. Gainera, artxiboAZ Mediateka BBKren katalogoarekin lotuta dago, eta zentroarekin zerikusia duten artisten eta kultura-eragileen profilen datu-basea du.

Azkuna Zentroaren artxiboa zentroaren webgunean dago eskuragarri, eta jardueraren lehen hilabeteetan 22.278 bisita eta ia 40.000 dokumentazio-deskarga izan ditu.

# AZ ARGITALPEN-PRODUKZIOA

Azkuna Zentroaren kultura-programazioa jarduera editorialaren bidez hedatzen da, praktika artistiko garaikidea jaso eta osatzen baitu, ezagutzera eman eta zabaltzeko.

Funtsa osatzen duten katalogo-liburuek Zentroan antolatu diren artisten eta erakusketen gaineko ezagutza eta begirada zabaltzen dute. Beste argitalpen batzuk ere badira, programazio-ildoekin lotutako topaketan eta sinposioen bidez sortutako dokumentuak eta materialak biltzen dituztenak.

Gaur egun, artista-liburuen bilduma berri bat lantzen ari da, Zentroan beren lanak egiten dituzten sortzaileetako batzuekin. Gainera, urteko argitalpen bat ere lantzen ari da, programazioarekin zerikusia duten kultura-eragileen testuak eta lankidetzak biltzeko.

Edizioak eskaintzen dituen sormen-aukerari erreparatuta, Azkuna Zentroko argitalpen-sailak material horiek prestatzen ditu, hainbat artista eta argitalpen-eragilerekin hitz eginenez, artelan horiek euskarri fisikoan kontzeptualizatu eta presta ditzaten.

2022an argitalpen-funtsa handitu da, honako liburuki hauekin:




## Deriben Katalogoa

*Deriben Katalogoa* liburuak Oscar Gómez Mata aktore eta eszenografoak bi urtez Azkuna Zentroko artista AZkide gisa garatu duen proiektu artistikoa jasotzen du.

Oinez ibiltzeko ekintzaren bidez hiri-paisaiaren eta pertsona bakoitzaren barne-bizitzaren artean loturak

finkatzeko asmoa duten praktikak dira deribak. Egonaldi honetan, hainbat deriba abiarazi dituzte, herritarrei zuzenduta, eguneroko hiri-paisaiak behatzeko eta esploratzeko asmoz.

Genevako Le Grütli-Centre de production et diffusion des Arts vivants erakundearekin batera argitaratu da liburu-objektu hau, eta une, egun eta umore desberdinetarako pentsatutako ibilaldi horiek guztiak erabiltzeko eskuliburu bat da.



## Ahots bat erausorentzat. Trans garai baterako epilogoia

Argitalpen hau Cabello/Carceller kolektiboaren (Helena Cabello eta Ana Carceller) *Ahots bat Erausorentzat. Trans garai baterako epilogoia* proiektu artistikoaren parte da, zeina Paul B. Preciadok komisariatzen du.

2021 eta 2022 artean.

Katalogo-liburuak, erakusketako lanez gain, proiektu honetarako propio ekoiztutako ikus-entzunezko piezaren gidoia eta Cabello/Carceller kolektibo artistikoaren, Paul B. Preciadoren eta Susana Vargas ikertzailearen kontakizunak ditu, kontakizun historikoaren eraikuntza queer eta trans politika garaikideekin lotzen dutenak.



## Jakintsuen kontseilua (Fanzine)

Sra Polaroiskak (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe) Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko artista AZkide gisa garatutako *Jakintsuen kontseilua* proiektua fanzine hedatu honekin amaituko da. Topaketetan parte hartu duten bederatzia emakume helduek partekatutako istorioak, gogoetak eta esperientziak biltzen ditu fanzineak: Dolores Juliano,

Amaia Lasa, Garbiñe Mendizabal, Luisa Menéndez, Adalina Moya, Arantxa Urretabizkaia, Margarita Ledo, Rosa María Calaf eta Teresa Catalán.

Bultzatzaileek azaldu dutenez, “Jakintsuen Kontseilua” sortu zen erreferenteak sortu behar zirelako genero-ikuspegitik, gaur egun 70 urte baino gehiago dituzten emakumeek egindako lana eta duten jakinduria balioesteko. “Jakintza”ren iruditeria maskulinitasuneran mugatuta dago oraindik. Gaur egun ere oso ohikoa da hau entzutea: “Eredu honetan ez dago emakumerik”. Hala ere, errealitatea bestelakoa da. Kontua ez da ez dagoela emakumerik, baizik eta ez ditugula ezagutzen”.

“Jakintsuen kontseilua” fanzinean, Sra Polaroiskak hori guztia jasotzen du bidaia-koaderno gisa, esperientzia horretan emakume ezezagun eta ezagunak erreferente bihurtu baitira, beren bizitza- eta lanbide-ibilbideagatik.

# HEZKUNTZA ETA BITARTEKARITZA

50

jarduera

7.688

pertsonak parte hartu dute



Victoria Ascaso. So sad today Tailerra

Hezkuntza eta bitartekaritza Azkuna Zentroaren ardatz transbertsala dira gizartea kultura garaikidearekin lotzeko. Horregatik, Zentroan garatzen diren proiektuak kultur programazioa dira eta, aldi berean, publiko komunitateekin modu kontzientean eta landuan bitartekotza egiten dute, garaikidearen egunerokotasuna bultzatuz.

Hezkuntza-jarduerak Zentroaren programazio-ildoan in-guruan planteatzen dira: arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura. Guztiek elkarrekin hitz egiten dute, hizkuntza artistikoak eta diziplinak zeharkatzen

dituzten proposamenak sortuz, berdinak eta desberdinak konektatzen dituztenak, eta praktika artistikotik abiatuta osatzen eta hezten dituztenak.

2022an, lan esparru hori indartzeko bidean aurrera egin da, Programazio, Erabiltzaileen Arreta, Mediateka eta Komunikazio sailek elkarrekin lan eginez.

Garatutako proiektuak eta programak hiru eremutan egituratzen dira: programa publikoak, hezkuntza eta bitartekaritza.

---

# Programa publikoak

2022ko erakusketa guztietarako jarduerak planteatu dira lehentasunezko publikoekiko (eskolakoekiko, haurrekiko eta familiakoekiko, artistekiko eta kultura kulturalako profesionalekiko) harremanak estutzeko eta gogoeta eta sorkuntza kolektiborako espazioak irekitzeko, artistek eta komisarioek proposatzen dituzten gaien inguruan:

## ***Roma Akademia***

- Haurrentzako eta familientzako ibilbide ludikoak
- Marta Ramos-Yzquierdo. *Trabajar menos. Hacer más. Hacer el indio en el 77*
- Estíbaliz Sádaba. Erromako prozesuak
- Jorge Luis Pérez Marzo. "Las videntes. Imágenes en la era de la predicción" liburuaren aurkezpena.

## ***Arquitecturas prematuras.***

### **Isidoro Valcárcel Medina**

- Planotik bolumenera. Arkitektura goiztiarrak erakusketako maketa-jokoa (La Casa del Vacío-rekin elkarlanean)

## ***Cabello/Carceller. Ahots bat Erasorentzat. Trans garai baterako epilogo***

- Bisita gidatuak eta topaketa Naizen Elkartearekin

## ***Somewhere from here to heaven***

- Bisita gidatuak komisarioarekin, Garbiñe Ortega

## ***Zientzia Frikzioa. Bizitza espezie lagunen artean***

- Bisita gidatuak artistekin eta komisarioarekin, María Ptqk

---

# Hezkuntza

Arlo honetan nabarmentzekoa da Arte eta Kultura Garaikideko Praktika eta Teoriako Master Propioa abian jarri izana, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearekin lankidetzan. Orientazio teoriko-praktikoko programa hau profesionali, sortzailei eta ikertzailei zuzenduta dago, eta prestakuntza-corpus bat du, non testuinguruko artistek eta kultura-eragileek, Azkuna Zentroan lan egiten duten pertsonak eta EHUko Arte Ederren Fakultateko irakasleek parte hartzen duten.

ArtxiboAZ proiektuak ere, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren erregistro digitalak, berrikuntzarako eta bitartekaritzarako bitarteko gisa funtzionatzen du, eta, alde batetik, artistei ekoizpenerako eta, bestetik, artea publiko-komunitetara hurbiltzeko balioko dieten edukiak eskaintzen ditu.

# Eskola

Eskola-komunitatea Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren lehentasunezko publikoetako bat da, eta ikastetxearen misioa lortzeko lan egiteko moduetako bat: pertsonak kultura garaikidera hurbiltzea, gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta anitzagoa sortzen laguntzeko.

2022an, esparru horretako estrategiak indartu dira, 2022-2023 ikasturterako eskola-programa bat sortuz, inguruko ikastetxeekin eta Gaztegunek eta Berritzegunek bezalako guneekin harreman estuan.

## Arte bisualak

- *Roma Akademia*. Eskola-komunitatearentzako bisitak/tailerra eta erakusketa-proiektuaren hezkuntza-gida bat sortzea.
- *Cabello / Carceller. Ahots bat Erausorentzat. Trans garai baterako epilogo*. Naizen, Adingabe Transexualen Familien Elkarteak topaketa antolatu du erakusketaren esparruan
- *Zientzia Frikzioa*: Ikastetxeentzako bisita-tailerrak, Tipi-rekin lankidetzan
- *Zientzia Frikzioa*: Ikasleentzako tailerrak Mediatekan

## Arte biziak

- Soinu eta musika esperimentaleko hastapen tailerrak
- Musika esperimentaleko tailerrak soinu-artistekin: Judy eta Tunipanea (Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa)
- Tailerra Macarena Recuerda Shepherd (Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa) artista bisual eta eszenikoarekin eta Maia Villot artistarekin.
- Tailerra Victoria Ascasorekin, ikertzailea (Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa)

## Zinema eta ikus-entzunezkoak

- Zinema programa: Zinemaz Blai
- Zinemaldia Azkuna Zentroan. Ikasleentzako saioak

## Literatura

- Uxue Alberdi idazlearekin topaketa
- Nazioarteko Komiki Egoitzako artistek emandako tailerra: Higinia Garay, Marine des Mazery eta Jimmy Beaulieu.
- Dani Orviz artistak emandako spoken word tailerra
- Bisitak Mediatekara / Mediateka konektatu
- Literatura-elkarrizketak - Irakurketa-kluba
- Bisitak gune bibliografikoetan
- Terraza-irakurketak
- Irakurketa errazeko kluba/Irakurketa erraza

# HARREMAN INSTITUZIONALAK / NAZIOARTEKO PROIEKZIOA



ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology

2019-2023 Programa Proiektuan, Azkuna Zentroaren ardatz estrategikoetako bat nazioartekotzea da, sortzaileen, profesionalen, eragileen eta bertako eta beste herrialde batzuetako instituzioen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzaz sustatzen eta errazten duten sareak erabiliz.

Gainera, joan-etorriko jardura instituzional bizia egiten da, munduko hainbat lekutako bienal, azoka eta kultura garai-

kideko zentroetako arduradunekin elkartzeko, eragile sortzaileen eta ICCen nazioarteko harremanak areagotzeko helburuarekin.

Halaber, nazioarteko bihurtzeko, aukerak bilatu eta sare berriak irekitzen dira zentroaren programazioa aberasteko, gizartearen eta kultura garaikidearen arteko lotura berriak sortuz.

# Nazioarteko harremanak

Helburu horren barruan kokatzen da Azkuna Zentroak ACuTe. Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology proiektuan parte hartzea. Berrikuntzako proiektu europarra da, teknologia berrien bidez arte eszenikoak ekoizteari, eta lankidetzak kulturalerako eta konpetentziak garatzeko modu berriak ezartzeari buruzkoa.

Azkuna Zentroa kultura-zentroen, unibertsitateen eta arte sortzaileetako erreferentziako erakundeen Europako patzuergo berri horretako kide da. Horien artean daude Ars Electronica eta European Theatre Convention, Europako antzoki publikoen erakunderik handiena, duela gutxi antzerkirako estrategia digital bat ikertzera bideratutako Europako lehen think tank-a sortu duena.

2022an abian jarritako aliantza hau aukera bat da sorkuntza eszeniko garaikidea testatzeko, ikertzeko eta berritzea. Teknologia digitala eta baterako sorkuntzako metodologiak integratzen dituen diziplinarteko ikuspegi batekin, "kultura-proben banku" bat sortuko da, prototipo ugigarriak probatzeko eta sortzeko arte eszeniko eta dramaturgia berrien ekoizpenetan, diseinu eszenikoan eta publikoaren parte-hartzean. Hau da, berrikuntza egongo da istorioak agertokian kontatzeko moduan, ekoizteko moduan eta publikoak eragin-trukea izateko eta haiekin konprometitzeko moduan.

Azkuna Zentroa partner estrategikoa izango da 2022-2026 aldi osoan, 9 egonaldietatik 4 kudeatuko ditu, ekoizpen esperimentaletako bat eta ezagutza trukatzeko mintegi bat ere bai. Gainera, AcuTeko komunikazio-taldeko kidea da.

Bestalde, Azkuna Zentroak Harbours for Arts & Culture proiektuarekin jarraitzen du. Proiektu hori jarri du abian, Europako hainbat tokitako instituzio, kultura-zentro eta jaialdiekin harreman eta lankidetzak berriak sustatzeko eta daudenak indartzeko helburuarekin.

Kultura-diziplina desberdinetan sinergia berriak sortzeko Azkuna Zentroarekin duten lotura geografiko eta kulturalegatik funtsezkoak diren lau hiri identifikatu ondoren (Anberes, Bordele, Porto eta Rotterdam), lehen harremanak izan dira zentroaren programazioari begira lankidetzak proiektuak garatzeko datozen urteetan.

## Sinergia artistikoak

Era berean, Azkuna Zentroak bideak irekitzen jarraitzen du kultura-arloko eta arte-sorkuntzako beste erakunde eta espazio batzuekin lankidetzan aritzeko, bertan zein nazioartean, ezagutza partekatua sortuz.

2022an, bereziki nabarmentzen dira CCCB – Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroa eta antzeko espazio artistikoekin batera ekoiztutako proiektuak, Lantegia 1en ikusgai izan den *Zientzia frikzioa. Kide diren espezieen arteko bizitza* erakusketa sortzeko. Era berean, Quebecoko La Maison de la Littérature eta Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image de Angoulême-rekin hasitako harremanei eutsi zaie Komikiaren Nazioarteko Egonaldia egiteko, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatutako Komisario Berriak proiektuaren parte izaten jarraitzen du. Ekimenaren helburua da komisariotzaren praktika garatea eta profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzea.

Gainera, Azkuna Zentroa Red Escena-ren parte da. Titular-tasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sare hau arte eszenikoen eta musikaren sektorea sustatzen saiatzen da, herritar guztientzat eskuragarriagoa izan dadin. Zentroa Bilbao Convention Bureau-ren bazkidea ere bada. Horren xedea da hiria korporazio- eta elkarte-bileren egoitza gisa sustatzea, eta zentroa aliatu estrategikoa da erakunde antolatzaileentzat.

Babeslearen arloan, akordioa berri du BBK Fundazioarekin, Mediateka BBK-ko erabiltzaileentzako zerbitzuari eta programazioari lotuta, bai eta Fundación Banco Sabadell-ekin, sorkuntzari laguntzeko Babestu programari lotuta, eta BEAZekin ere, diseinatzaileak ikusarazteko ekintzak egiteko, Azkuna Zentroko dendAZen This is basque design proiektuaren esparruan.

# PUBLIKOAK. ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA

95.320

arreta-eskaera kudeatu dira

1.159

lagunek parte hartu dute bisita gidatuetan

12

zorion-emate jaso dira

Azkuna Zentroak – Alhóndiga Bilbaok aurrera jarraitzen du, publiko aktiboagoen eta erabiltzaile egonkortu eta ase-beteen komunitateak sortzeko helburuarekin, eta, ildo horretan, etengabeko hobekuntza eskaintzen du arretan, eta “jarduera” kontzeptua “esperientzia eraldatzaile” bihurtzea proposatzen du.

Helburu horiek ezarri eta garatzen dira, erabiltzailea ardatz gisa hartuta, eta, horretarako, Erabiltzaileen Arretarako taldeari tresnak eta diskurtsoak ematen zaizkio, maila desberdinetan, premia bereziak ulertzen eta interpretatzen laguntzeko. Hala, gai dira Zentroak eskaintzen dituen aukeren bidez gidatzeko eta laguntzeko, eta esperientzia egokituak eta erakargarriak eskaintzen dituzte, baita horietan inplikatzeko aukera ere. Era berean, taldeak ondo daki zein diren antolakuntzaren helburuak eta laguntza ematen du proiektuen inpaktua maximizatzen.

Ekintza-ildo nagusiak bi ardatzen bidez ezartzen dira: erabiltzaileei arreta emateko berezko estiloa, talde ikusgarri eta ezagun batekin eta arreta proaktibo, hurbil eta elebidunarekin; eta publikoak eta publikoak ez direnak garatuz, bitartekaritza funtsezko tresna gisa hartuta.

2021etik aurrera jarraipena duen ekintzetako bat da gure Publikoen Plana garatzea, Pepe Zapata kulturaren arloko adituaren laguntzarekin diseinatua. Erabiltzaileak estratejiaren erdigunean jarri nahi ditugu, parte-hartze aktiboagoa lortzeko eta Azkuna Zentroarekiko inplikazio handiagoa lortzeko.

2019-2023 Proiektu-Programan aurreikusitako hobekuntzak kontuan hartuta, 2022an, hobekuntzak ezarri dira publikoekiko komunikazioan, eta kontakizunak egokitzen jarraitu da, gure komunitate ugariak kontuan hartuta. Jendaurreko Arretarako taldearen etengabeko prestakuntza sustatu da, jendeari arreta emateko informazio-gune berri bat jarri da udako hilabeteetan, eta taldearen uniformeak berri da, proiektuaren araberrako diseinu batekin:

2022an, publiko orokorarentzat eta profesionalentzat zentrorra egindako bi bisitez gain, erakusketa eta instalazio artistikoetara egindako bisitak eta udako hilabeteetako bisita bereziak gehitu behar dira, baita Lantegia Ideien laborategira egindako bisita berriak ere, zentroan garatutako programazio proiektuak hurbiltzeko.

Erabiltzaileen Arretarako taldearen koordinazioak ikuspegi humanistan oinarritutako talde-laneko ikastaroetan parte hartu du, ingurune motibatzaileak sortzen laguntzeko eta gatazkak konpontzeko gaitasun handiagoa izateko.

Erabiltzaileen Arretarako informazio-gune berria Atarian ezarri da apiriletik urrira bitartean, 10.000 kontsulta ingururi erantzun die, eta turista ugari bildu dira bertan.

2022ko erdialdean gauzatu den beste proiektuetako bat uniformeak berritzea izan da. Jendaurreko Arretarako talde osoak parte hartuta izan den lan-prozesuaren ondoren, jantzi berri bat birpentsatu eta garatu da, Azkuna Zentroa Proiektura, jarduerara eta klimatologiara egokitzeko.



# LANTEGIA. IDEIEN LABORATEGIA, SORKUNTZA BULTZATZEKO ARDATZA



Lantegia. Ideien Laborategia

2019an, Jarduera Osagarrien Zentroa Lantegia. Ideien Laborategia bihurtu zen. 1.500 metro koadroko eraikina, proiektu artistikoak ekoizteko eta bistartzeko bideratua, eta esperimentazio eta sormenerako habitat gisa eratua.

Lantegia funtsezko osagaia da 2019-2023 Programa Proiektuaren eredu estrategikoan; haren oinarri kontzeptualetako bat da. Ezinbesteko organoa da zentroaren funtzionamendurako; bertan, kontzeptu esperimentalak eta garaikideak garatzen dira, ikuspegi berri batetik abiatuta, sorkuntzara, berrikuntzara eta prototipoetara begira. Beraz, Lantegia oinarritzako pieza da gizartea kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Aldi berean, herritarrekin konektatuta dagoen sorkuntza esperimentaleko proposamen bat edukirik, Lantegia elementuak ekoizteko iturri bat da, eta horiek Azkuna Zentroaren programazioa aberasten dute, maila kuantitatiboan zein kualitatiboan.

Lantegia abian jarri da, hiriko sorkuntza-sareari zabaldutako gune bat sortzeko beharra zegoelako. Lanerako eta

praktikarako ingurune ireki bat, kolaboratiboa eta eskuza-bala, loturak sortzeko beste espazio batzuekin, egonaldi, estudio, galeria eta antzeko instituzio publikoekin.

Lantegiak hainbat tamainatako laborategiak, topaguneak eta sorkuntza artistikoa erakusteko lekuak ditu:

- LAB0/LAB1: praktika artistikorako, tailerretarako, esperimentaziorako espazio gardena.
- LAB2: arte bizietarako dantza-aretoa.
- LAB3, LAB4, LAB5, LAB6, LAB7, LAB8: ikerketa- eta eza-gutzarako espazioak.
- BAT ESPAZIOA (Kubo zuria). Lantegiko erakusketa-aretoa, proiektu bisualen prozesuak eta emaitzak erakusteko lekua.
- KUBO BALTZA (Kutxa beltza): agertoki ez konbentzionala, arte bizien praktika garaikideak garatzeko pentsatua.

# HOBETZEKO PLANAK



## Irigarritasun unibertsala

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok konpromisoa hartua du gizartea eta kultura garaikidea lotzeko, programazioaren eta espazioaren bidez. Horretarako, zentroak begirunea izan, eta irekia eta irigarria izan behar du pertsona guztientzat.

AENORen UNE 170001-2:2007 arauaren ziurtagiria duen irigarritasun unibertsala kudeatzeko sistema berria ezarri ondoren, aurrera jarraitu da etengabeko hobekuntza-prozesuarekin, erakusketak entzuteko audiogidak bezalako baliabideak programatuz, eta QR kodeen bidez eta webgunetik sarbidea izanik (876 erreproduzio izan ditu).

Halaber, aipatzekoak dira filmen xehetasunik ez galtzeko aukera ematen duen begizta magnetikoa, edozein gaitasun izanda literaturaz gozatu ahal izateko irakurketa errazeko programak, ikusmena eta ukimena erabiliz egiten diren bisita iruzkinduak, eta musika esperimentaleko tailerrak behar bereziak dituzten taldeekin.

Jarduera Fisikoko Zentroan, igeriketa egokituko ikastaroak eta 60 urtetik gorako pertsonentzako Osasun Premium eta antzeko programak daude, ariketa osasungarria sustatzeko.

2022an egindako inbertsioen artean, nabarmentzekoa da irakurketa egokituko postu bat erosi dela, lupa elektronikoa, PCrako teklatua Braille Mantis lerroarekin, joystick erako sagua eta Trackball motako sagua dituen, Mediatekan erabiltzeko.

Horrez gain, taldeek dibertsitate funtzionalari buruzko presetakuntza hartu dute, zentroan esperientzia onak bermatzeko.

Hori guztia webguneko "Espazio irigarria" atalean jakinarazi da (<https://www.azkunazentroa.eus/es/informacion-general/>) eta audio-formatuko agendak sortu dira hiruhileko programazioa komunikatzeko.

# Berdintasuna

Azkuna Zentroak egungo gizartean dagoen dibertsitatearen eta aniztasunaren berri ematen du, eta munduaren esperientzia sozio-kulturalaren oinarri den arlo transkulturalarekiko interesaren berri ere bai.

Programazioak sustatzen du gorputza, generoa eta identitatea kategoriatan askotariko eta aldakor gisa agertzea. Horren isla dira aurtengo *Ahots bat Erausorentzat*. *Trans garai baterako epilogo* erakusketa, Cabello/Carceller kolektiboak egin eta Paul B. Preciado filosofoak komisariatu duena; eta Aimar Arriolak Azkuna Zentroko ikertzaile AZKide gisa garatu duen *Forma-desira bat* lana.

Instituzio publiko gisa, zentroak konpromisoa du genero-berdintasunarekin eta dibertsitatearekin, eta bat dator Bilboko Balioen Gutunarekin eta Nazio Batuen 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako 5. Helburuekin eta inor atzean ez uzteko duen leloarekin.

2020an, Azkuna Zentroaren berdintasun-diagnostiko bat egin zen, eta, haren bidez, Berdintasunerako Neurrien Plana garatu zen, erakundearen alderdi guztiak barnean hartuta, hiru erronkarekin: berdintasuna gobernu onean, barne-kudeaketa genero-berdintasunetik abiatuta eta Azkuna Zentroaren ekarpena gizartean genero-berdintasuna lortzeko bidean. Erronka bakoitzak bete beharreko helburuak eta egin beharreko ekintza zehatzak ditu.

# Jasangarritasuna

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok oraingo eta etorkizunerako proiektua izan nahi du, sentsibilizatua eta aktiboa, ingurumena hobetzera eta baliabideen kontsumo arduratsua lortzera bideratutako ekintza jasangarriak egiten dituen. Ingurunearekiko kezka eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa oinarri hartuta, ekintzak aztertzen jarraitzen da, zentroaren jardueraren inpaktua hobetzeko.

2022an, SENER enpresak garatutako “Respira” ezartzen jarraitu da, klimatizazioaren kudeaketa adimenduneko sistema. Adimen artifiziala erabiltzen du eraginkortasun energetikoa, konfort termikoa eta airearen kalitatea hobetzeko barnealdeetan. Zundak eta kontsumoa monitorizatzeko ekipo horiek Mediatekan, erakusketa-aretoan eta gimnasioan daude.

Bestetik, eta jasangarritasun energetikoari lotutako estrategiaren barruan, inbertsio-proposamen bat landu da, Azkuna Zentroan energia kontsumitzen duten ekipoak eta instalazioak hobetzeko eta berritzeko, Jasangarritasunari buruzko 04/2019 Legeak ezarritako helburuak lortze aldera. Zentroaren mantentze-lan osoko zerbitzuaren lizitazioa aprobetxatuz, energia-kontagailuen instalazioari dagokiona barne hartu da, sektorizatu eta lehenetsi ahal izateko eremuen edo kontsumitutako energia-motaren arabera; eta, orobat, argiztapena LEDera aldatzea, horretan aurrera egin baita hainbat eremutan.

2022ko udan, Azkuna Zentroa Bilboko Udalak ezarritako Aterpe Klimatikoen Sareko kide izan da, muturreko berotik babesteko espazio egokituak eskaintzeko. Gainera, instalazioak egokitu dira, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriei buruzko abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege Dekretuan ezarritako jarraibideak betetzeko.

Azkenik, karbono-aztarna murrizteko asmoz, hainbat neurri ezarri dira eguneroko jardueran, hala nola txorrotako ura pitxerretan erabiltzea, botilatxoak kontsumitu beharrean; txorrotetako tenporizadoreak erregulatzea, ura ez xahutzeko; dutxetan erabilera arduratsuko kartelak jartzea erabiltzaileak kontzientziatzeko; eta hondakinak bereiztea behar bezala kudeatzeko.

# BIOTHEKA

## ZERBITZUAK



# MEDIATEKA BBK

**72.411**

mailegu

**288.578**

bisita

bilduma bibliografikoa: **66.894**

liburuki euskarri inprimatuetan eta ikus-entzunezkoetan / % 80 sarbide librekoa

**3.087**

erosketa / + % 5,85

2019-2023 Programa Proiektuan aurreikusitako aldaketa sendotu eta garatzeko urtea izan da 2022a, Mediateka konektatu, pentsatu eta sortzeko leku bihurtzeko urtea.

Irakurketa eta idazketa ardatz nagusizat hartuta, arte-sorkuntza, ikaskuntza eta esperimenezko espazio-eredu berri baterantz joan nahi izan dugu, pertsonen aukera izan dezaten kultura praktika, prozesu eta esperientzia gisa bizi ahal izateko.

2022an, pandemiaren ondoko normalizazio-bidetik jarraituz, edukiak eguneratu dira, publikoen komunitateei eza-gutza eta ikaskuntza erraztuko dituzten modu, espazio eta eredu berriak proposatzeko.

Nabarmenezkoak dira, liburutegi-zerbitzu tradizionalekin batera, espazioa zentroaren programazioarekin eta praktika artistiko garaikideekin gero eta gehiago lotzen duten proposamenak, eta metodologia eta lan-modu berrien ezarpena, zerbitzuaren erabiltzaileei orientazioa eta laguntza hobe emateko.

2022an, Inbox Mediateka abiarazi da Atarian, liburuak eta ikus-entzunezko materiala entregatzeko, erreserbatzeko eta itzultzeko zerbitzu automatizatu berria. Remote Locker hori Mediatekako sarbidearen ondoan dago, erabiltzaileek eragiketa horiek egin ahal izan ditzaten, zentroa zabalik dagoen orduetan: astelehenetik igandera, 9:00etatik 21:00etara.

Bildumak 66.894 liburu ditu, % 80 sarrera librekoak. Funts bibliografiko horren barruan, literatura bildumaren % 30 baino zertxobait gehiago da, eta komikia da, bereziki, herritarren eskura titulu gehien duen lerroa (% 13,23).

Txikitekan dagoen bildumari dagokionez (0-12 urte bitarteko haurrei eta familiei zuzendua), funtsaren bolumena zirkulazioan dagoen bilduma osoaren % 24,4 da, eta 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat dagoen fikzioa, berriz, % 2,08.

---

## Programazioa

- Hiru erakusketekin, Mediateka Galeria zentroaren erakusketa artistikorako gune gisa finkatu da.
- Literaturaren esparruan, Munduko Literatura irakurketa-kluba jarri da abian. Saio horietan, liburuen banakako irakurketa bateratzen da, publikoa hurbilduz hain gertu ez dauden edo periferian dauden literaturetara eta egileengana, eta banakako irakurketa-prozesuan eta taldeko hausnarketan sortutako paralelismo eta desberdintasun kultural eta sozialak ezarriz.
- Zinemaren eta ikus-entzunezkoen esparruan, Zinemako elkarrizketak: argiak, kamera, akzioa! programa jarri da abian, zinema-sorkuntzari buruzko ideiak eta gogoetak trukatzeko eta eztabaidatzeko gunea.
- Komikiaren esparruan, Mediateka arte grafikoaren erreferentzia-gune gisa finkatu da, programazioaren, AZ Irratiaren podcasten, Komikitekaren funtsaren eta Komikiaren Nazioarteko lehen Egonaldiaren deialdian hautatutako artisten bidez. Azkuna Zentroak (Bilbo) La Maison de la Littérature (Quebec) eta Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image (Angulema) erakundeekin batera egindako proiektu honen bidez, hainbat leku eta testuingurutako artistek prozesuak eta esperientziak partekatzeko dituzte erreferentziako inguruneetan.
- Gaur egungo ikuspegitik landutako familia-programazioaren ondorioz, Txikitekaren espazioa aktibatu da, irakurzaletasuna dinamizatzeko eta 0-12 urteko haurrak esperientzia artistikoetara hurbiltzeko jarduerekin. Helburu horren barruan sartzen dira belaunaldien arteko aisialdi-eredua sustatzeko irakurketa partekatuak, eta ilustrazioarekin eta istorioak asmatzearekin lotuta dauden tailerrak.
- Gainera, hainbat ekimenek aurrera jarraitzen dute, hala nola webguneko gomendioen asteko buletinak, gune bibliografikoen dinamizazioak eta ikastetxeentzako bisita gidatuen programak.

# DENDAZ. THIS IS BASQUE DESIGN. AZKUNA ZENTROAREN SALTOKIA

**+30**

artista eta diseinatzaile

**500**

Salmentari buruzko  
aipamen baino gehiago

**%70**

eko

hazkundera salmentetan 2021. urtearekiko



dendAZ. This is Basque Design, Azkuna Zentroko denda, euskal diseinuari irekitako leihoa da, erosketa-esperientzia gisa Espazio publiko honetan, diseinatzaileek ikusgai jar ditzakete beren prozesuak eta praktikak; haien lanak, produktuak eta zerbitzuak topa ditzakegu bertan.

Sortzaileak dira proiektu honen ardatza, eta Bilbo, Bizkaia, Euskadi, Nafarroa eta Akitania berriko hirurogeita bat artistak eta lankidek hartzen dute parte. Diseinua sustatzeko eta ikustarazteko ekimen honetan, Azkuna Zentroak Bilboko Udalaren, BEAZ eta EIDEn, eta Euskadiko eta Nafarroako Diseinatzaileen Elkartearen laguntza du; talde bat eratu dute saltokian dauden proiektuak hautatzeko.

DendAZ. This is Basque Design espazioaren balio bereizgarria da bertakoa, iraunkortasuna, Do It Yourself ikuspegia eta eskusibotasuna agerian jartzea eta, batez ere, bertako sormenaren eta diseinuaren balioa nabarmentzea. DendAZ. This is Basque Design eraikitzean, Azkuna Zentroarentzat

estrategikoak diren balioak hartu dira oinarritzat: sorkuntza, irisgarritasuna, dibertsitatea eta lankidetzak.

Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoren dendak jarraitzen du lotura izaten Lantegia. Ideia Laborategiarekin, hau da, esperimentaziorako eta kultura-ekoizpenerako espazioarekin: tokiko diseinua sortzeko laguntza, erosketa jasangarrirako pentsamendu kritikoari egindako ekarpena, tokiko diseinurako irisgarritasuna, erreferentzien aniztasuna. Ireki zenetik, hainbat esparrutatik lan egin da dendaren atalak betetzeko: argitalpenak, ilustrazioa, bitxigintza, papergintza, dekorazioa, ehungintza eta upeltegiak.

Hauek dira 2022. urteko izen berriak: Ailanto, Amakuyi eta Zioru. 2022ko fakturazioa % 70 handitu da 2021arekin alderatuta, eta diseinuaren sektoreak Bilbon eta Bizkaian duen balioa eta garatzeko potentzial handia ikusarazteko plataforma bihurtu da.

# Jarduerak

2022an garatutako jardueren helburua izan da dendAZ. This is Basque Design proiektua dinamizatzea, sortzaileen talentua ikusaraziz, publikoaren komunitateekiko loturak bultzatuz, eta prozesu sortzaileak eta pertsona sortzaileak hurbilduz. Premisa horiekin, sortzaileen laguntza izan dugu, ekintza, tailer, hitzaldi eta abarren bidez espazioa aktibatzeke.

## Gutun Zuria Bilbao

2022ean, Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdian esparruan, dendAZ berriz bihurtu da LiburudendAZ, eta egile gonbidatuen argitalpenen salmenta kudeatu du.

## This is Basque Design Merkatua

Azkuna Zentroak bere diseinu eta sormenezko ekosistema erakutsi du *This is Basque Design Merkatuan*, Bilbao Bizkaia Design Week-en (BBDW) barruan.

Azaroaren 25etik 27ra, Azkuna Zentroko diseinu-komunitatea osatzen duten hogei sortzaileek beren proiektuak eta produktuak erakutsi dituzte Atarian, eta beren prozesuak partekatu dituzte, publiko desberdinei zuzendutako topaketa eta tailerren bidez.

*This is Basque Design Merkatua* aukera ezin hobea izan da DendAZ osatzen duten enpresen atzean dagoen proiektu pertsonala eta profesionala ezagutzeko: bertako ekoizpena,

Abana, Aerre, Ailanto, Aitor Saraiba, Amakuyi, Amarenak, Ane Pikaza, Asier Irazabal + Hernán Quipildor, Bukinda, Cookplay, Ekomodo, Elena Ciordia, FAB de FAB, Fournier, FTBCWL, Higi Vandis, Josune Urrutia, Katxi Klothing, Malús Arbide, Mario Gaztelu, Mario Paniego, MrLaspiur, PaloPalú, Proyecto Hemen, Susana Blasco, Tytti Thusberg, Yolanda Sánchez, Ziriak, Zioru.

Gainera, *This is Basque Design Merkatua* dela-eta, talentu berriak gonbidatu dituzte jardunaldietara: Joana Fidalgo, BaRock, Kiribiltxo eta Marta Sanz.

## Tailerrak

3Dko bitxi bat sortzea, zeure oihal-poltsa diseinatzea, termozigilagailuarekin molde txikiak egitea... 2022ko azaroan proposatutako tailerretan, publikoari gonbit egin zaie diseinu- eta fabrikazio-teknika desberdinak ikasteko eta praktikatzeko, sortzaileen eskutik: MrLaspiur (bitxigintza), Amakuyi (ehungintza) eta FÁB (3Dko inprimaketa)

## Topaketak

*Merkatua* topaketan, Oihane Pardo (Amarenak) eta Ziortza Aurrekoetxea Urrutia (Zioru) diseinatzaileek beren ibilbide profesionalen eta marken bidez garatzen dituzten sormen-prozesuen berri eman diote publikoari: jasangarritasuna eta berreskurapena oinarritzat hartuta sortzearen aldeko apustua egiten duten ehungintzako diseinuko bi proiektu.

## Erakusleihoa dinamizatzea

2022an, dendAZ. This is Basque Designek jarraitzen du partaide diren sortzaile eta diseinatzaileen proiektuak dinamizatu eta komunikatzeko ekimenarekin, eta dendAZen erakusleihoa fisikoa panel interaktibo eta dinamiko bihurtu du, produktuentzat ad hoc sortutako ingurunean proposamenak erakusteko.

DendAZen erakusleihoa funtsezko tresna da parte hartzen duten marken ikusgarritasuna eta espazioaren beraren ospea handitzeko Azkuna Zentroaren Atarian.

2022an, Ailanto, FAB de FAB eta Mario Gaztelu izan dira erakusleihoa dinamizatu duten sortzaileak.

# I am a Basque Designer

## Sortzaileak

“ Hain desberdinak diren hainbeste sortzailearen lana bilzteak ematen dio izaera berezia *This is Basque design* proiektuari. Bertan parte hartzeko irizpidea kalitatea eta iraunkortasuna dira, irizpide ekonomikoen gainetik, eta hori oso garrantzitsua da guretzat, gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatzen baikara, maitasunez, lehengaiari eta ondo egindako lanari balioa emanez... AZ erakusleihoa ezin hobea da guretzat! ”

Elena Ciordia

“ Bilbon, gune honetan baizik ez dituzu aurkituko bertako sortzaileek diseinatutako kalitatezko produktuak, bizirik dago eta tokiko diseinua etengabe sustatzen du, berriazko ekintza eta kanpainak eginez.

Aitzindaria eta ezaugarri horiek dituen bakarra da une honetan. ”

Pilar Andrés (Aerre Design)



# JARDUERA FISIKOKO ZENTROA

**515.381**

sarrera 2022an Jarduera Fisikoko Zentroan

**246.395**

sarrera gimnasioan

**269.837**

sarrera igerilekuan

**3.921**

abonatu hilean, batez beste

**278**

kurtsu

**90**

lagunek eman dute izena Osasun Premium programan (2022ko urria)

Jarduera Fisikoko Zentroak 10.000 m<sup>2</sup> ditu gutxi gorabehera, hiru instalaziotan banatuta, eta erabilera intentsiboa izaten dute urtean 365 egunetan, asteburuetan eta jaiegunetan barne. 15 orduz irekita dago publiko guztientzat asteleheneretik ostiralera, eta 12 orduko zerbitzua du larunbat, igande eta jaiegunetan. Gimnasioko langileak, igerilekukoak eta erabiltzaileen koordinazioa eta arretakoak kontuan izanda, 54 langile daude guztira.

Jarduera Fisikoko Zentroaren instalazioetan honakoak dituzte: gimnasio 1, entrenamendu-errutineterako espazio diafanoa, erabilera askotarako egokitutako 7 jarduera-gela, jarduera garatzeko beharrezko guztiak dituen entrenamendu-gela funtzional bat, igeriketa librerako 2 igerileku eta udako hilabeteetan terrazara sarbidea duten jarduerak.

# Gimnasioa eta kirol jarduerako aretoak



1.100 m<sup>2</sup> baino gehiago, erabiltzaileen kirol-errutinak garatzeko gaituta, 140 indar- eta kardio-makinarekin. Instalazio honek, gainera, hainbat kirol-material du, hala nola halterak, diskoak, barrak, Kettlebell, core bag, esterillak...

690 m<sup>2</sup> baino gehiago, 7 aretotan banatuta. Areto horietako hiru hala nola funkya (haurrentzako), yoga, tai jia eta pilates egiteko dira. Hiru areto horiek gimnasioko zalapartatik aldentuta daude, eta material goxoak daude, xede dituzten zereginak egoki garatzeko. Gainerako lau aretoak, lehenengoak baino zabalagoak, inpaktu-jardueretarako prestatuta daude, hala nola GAP, power tono, aerobic, fitpilates... eta horietako bat oso-osorik ziklo indoor-ari eskainia dago, 52 bizikleta daude areto horretan eta saioak girotzeko pantaila digital handi bat ere bai. Bigarrenean jarduera aerobikoak egiten dira, hala nola aerobica, stretching-a, fitpilatesa, dantzazuma... hirugarrena tonifikazio-jardueretarako dago, hala nola quennaxa, TRXa, ezegonkorak, Power tonua... eta laugarren areto bat, Osasun Premiumeko jarduerak eta entrenamendu pertsonalak egiteko.

Espazio horiei entrenamendu funtzionalerako prestatutako eremua gehitu behar zaie. 240 m<sup>2</sup>, jarduera hau garatzeko behar den guztiaz hornituak, halterofiliako bi plataforma, gomak, zintak eta barra lantzeko egitura bat; baloi medizinalak, kettlebell baloiak, halterak, kaxa pliometrikoak lantzeko erabilera anitzeko gunek bat; kardio-jardueretarako beste espazio bat eta, azkenik, belar artifiziala duen zuzen bat, lera, abiadura, desplazamendu eta abarrekin lan egiteko.

---

# Igerilekua

JFZ eraikinaren eta Lantegiaren artean zintzilik daude igerilekuak. Instalazioek bi ontzi dituzte eta horietako batek bi sakonera ditu. Lehenengo ontzia 1,2 metro da sakonean; 25 X 21,15 m da eta 9 kalerentzako tokia du. Uraren tenperatura 27,5° C da eta igeriketan ikasteko jarduera guztiak, poolbike, kardioaletak, urgazte... egiten dira.

Beste ontziak bi sakonera ditu, bata 0,95 metrokoa eta bestea 0,75 metrokoa. Beste ontzia baino apur bat txikiagoa da, uraren tenperatura 31,5° C da eta sakoneraren ondorioz, haur txikiengatik ikastaroak egiteko oso egokia da, baita aquafitness, igeriketa terapeutikoa eta beste zenbait jarduera egiteko ere, erabilera libreaz gain. Gune honetan dago Ataritik ikusi daitekeen beirazko zatia.

Terrazak 2.000 m<sup>2</sup> baino gehiago ditu, erabilera anitzekoa da; solariuma egoteaz gain, gimnasioko eta instalazioetako jarduera puntualak ere egiten dira zenbaitetan.



---

# Jarduera 2022an

515.381 sarbiderekin, gimnasioaren eta igerilekuaren erabilera %49 egin du gora 2021arekin alderatuta, baina oraindik urrun dago 2019ko pandemia aurreko kopuruetatik (747.655). Kirol-jardueraren okupazioa % 70,2 igo da 2021arekin alderatuta. 2022an, batez beste 3.648 ikaslek eman dute izena.

2022an instalazioak erabili dituzten abonatuaren hileko batez bestekoa 3.921 pertsonakoa izan da.

Denboraldi bakoitzean 278 ikastaro eskaini dira (2022ko urria), eta 11 tailer espezifiko egin dira, gutxi gorabehera hilaletako iraupenekoak. Lehen aldiz, tailer horien artean, bi tailer espezifiko sartu ditugu Osasun Premium programan: erorikoen prebentzioa eta nutrizioa.

Jarduera Fisikoaren Zentroaren programazioak aurrera egin du 2022an, eta, denboraldiko ikastaro eta tailerrez gain, aisialdiko aukera osasungarria eskaini die herritar guztiei, ikasleentzako, premia bereziak dituzten pertsonentzako eta tutoretzapeko etxebizitzetan dauden pertsonentzako programen bidez.

---

# Osasun Premium

“Osasun Premium” programak inskribatutako pertsonen egoera fisikoaren jarraipena egiten du, hasierako eta denboraldian zehar egindako ondorengo proben bidez, mantentze-lana eta aurrerapenak baloratzeko. Hilero, tentsioaren, gluzemiaren eta gorputzaren osakeraren jarraipena egiten da. Gimnasioko, igerilekuko eta areto funtzionaleko jardueraz gozatzeaz gain, bi profesionalak laguntza eman diete pertsona horiei uneoro, zalantzak argituz, jarrerak zuzenduz eta pertsona bakoitzari egokitutako jarduerak proposatuz.

# EKITALDIAK, ESPAZIOEN KUDEAKETA

125

ekitaldi, 2021ean baino %25 gehiago

16.837

erabiltzaile

251

espazio erabiltzaile

%59

2021ean baino diru-sarrera gehiago



Forbes

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao Bilboko erdigunean da goen Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa da. Kultura-, enpresa- eta gizarte-ekitaldietarako gune berezi bat da, diseinuaren eta kultura garaikidearen balio erantsia ematen duena, eta zentrora eta erakusketetara, kultura-programazioa, mediatekara, gimnasia, igerilekura, ostalaritza-espazioa edo zinemetara egindako bisita gidatuekin osatzen

duena. Azkuna Zentroko espazioek irtenbide zehatzak dituzte edozein ekitaldi-mota egiteko, eta aholkularitza pertsonala eta beharrezko laguntza ematen duen talde bat ere bai, zure ideiarekin zure beharretara eta aurrekontura egokitutako ekitaldi bat egin ahal izateko.

2022an 125 ekitaldi egin dira, erakunde publiko eta pribatuek, enpresek, instituzioek eta hirugarren sektorekoek



Emakunde

antolatuta. Alokairu-espazioetan antolatutako ekitaldiak, nagusiki, bertakoak izan dira; soilik 4 izan dira estatukoak eta 8 nazioartekoak.

Guztira, 251 jardunaldi izan dira, eta 16.837 pertsonak hartu dute parte. 125 ekitaldi horietatik, 53 kultura-erakundeek antolatu dituzte; 46 ekitaldi, aldiz, ekonomia- eta merkataritza-erakundeek antolatu dituzte. Sektore sozialak gora egin du 2021arekin alderatuta, eta medikuntza- eta osasun-sektoreak gero eta eskari handiagoa du.

Ekitaldirik aipagarrienek Bilboko kultura-eskaintza osatzen dute, eta, aldi berean, Azkuna Zentroa kultura-sektoreko beste eragile batzuekin lotzen dute, bertakoak, estatukoak zein nazioartekoak izan. Horien artean daude Zinebi, Fant, Emakumeek egindako Zinema Karabana, Zinema Ikusezina, Zinemakumeak Gara, Música Musika, Bilbao Basque-Fest, Udal Banda, Mitusu, Loraldia, Dantzaldia, Gau Zuria, Bilbao European Encounters, La nuit des idées, etab.

Hala ere, Wellbeing Project nabarmendu behar dugu. Ekainaren hasieran izan zen, eta jarduerako urteko sarrerarik handiena izan duen ekitaldia izan da. Gainera, jarduera horrek bide eman zion Grimanesa Amoros artistarekin izandako lankidetzari; eta *SCENTIA* izeneko bere pieza

Atarian egon zen abuztuaren amaierara arte, gure programazioaren parte gisa.

Azkenik, ekitaldiei esker, enpresa- eta sektore-sarearekin konektatu ahal izan dugu, eta enpresa ugari izan dira tartean, besteak beste, Startup Campus, Tecnalia Research & Innovation Fundazioa, Bilboko Merkataritza Ganbera, Bizkaiko Aldundia, Gorabide, Forbes eta Eusko Jaurlaritza...

Ekitaldien adierazle generikoei dagokienez, urtaro jakin batzuei lotu-lotu eginda daude oraindik, eta ikasturteko aldietan metatzen dira gehienbat: irailaren 15etik abenduaren 15era eta otsailaren 15etik ekainaren 15era. Jasotzen ditugun alokairu-eskaera guztien herena, gutxi gorabehera, ekitaldian gauzatzen da. Bezeroen ehuneko handi batek urtero errepikatzen du gure instalazioetan, eta badakigu bezero potentzial askok ezagutu gaituztela publiko gisa joan diren ekitaldietan. Ildo horretan, jaso ditugun balorazioek nabarmentzen dute berezitasuna, kokapena, malgutasuna eta aholkularitza eta zerbitzu teknikoak. Euskararen erabilerari dagokionez, % 6 jaitsi da ekitaldietan, 2021arekin alderatuta. Hala da, murrizketak amaitu ondoren, bertako eta estatuko enpresako agentzia-bezeroa berreskuratu dugulako.

# Espazioak

## ATRIOA

Kulturen ataria, eguzkiaren pantaila handiaren azpian dagoen Ataria da Zentroak duen espaziorik zabalena. Erabilera anitzeko espazio honetatik, azkuna zentroko hiru eraikinei eusten dieten 43 zutabeak ikus daitezke.

Aulki argitsuak eta Argizuloa espazioak, Kulturen Atarian daude, eta 300 eta 500 lagunentzako edukiera dute, hurrenez hurren; beraz, espazio ezin hobeak dira lunchak, koktelak, gala-afariak, aurkezpenak, kontzertuak eta abar egiteko.

Topaketa gunea, 800 lagunentzako edukiera du, igerilekuaren azpian, toki ezin hobean kokatua, Kulturen Atarian, gunea apropos-aproposa da lunchak, koktelak, gala-afariak, aurkezpenak, kontzertuak eta abar egiteko

Atarian dauden Fernández del Campo, Iparragirre eta Urquijo aretoek argi naturala dute, Fernández del Campo kalera begira dauden leihoei esker. Balio anitzeko gunek dira, eta, haietan, bilerak, jardunaldiak, tailerrak, hitzaldiak eta abar egin daitezke.



Wellbeing Project

## LANTEGIA ETA KUBO BALTZA

Lantegia 1 espazio bakana, hiriarren erdian kokatua, sabaia altuera bikoitza du bereizgarri, eta aukera ugariak ematen ditu. Espazio gardena eta erabilera anitzekoa, ego-ki-egokia inaugurazioak, gala-afariak, harrerak, hitzaldiak, kontzertuak etab. egiteko. Lantegia eraikineko lehen solairuan dago, eta sarrerako harrera-lekua eta komunak ditu gunearen barruan. Aretoak altuera bikoitza du, espazioa zatitzeko aukera ematen du eta sabaiko panelak ditu akustika optimizatzeko.

Kubo Baltza Azkuna Zentroko espazio eszeniko berriak begirada desberdina ematen dio eszenari. Agertoki ez-konbentzionala da, berariaz pentsatuta dago arte bizien praktika garaikideetarako: antzerkia eta performancea, dantza eta mugimenduaren arteak.

## AUDITORIOA ETA BASTIDA ARETOA

Koadro gisa markoan sarturiko agertokia da Azkuna Zentroko Auditorioaren bereizgarria, izaera pertsonala ematen diona. Besaulki-patioak ikuspen bikaina du, eroso-erosoa da, eta aukera ematen du kultura- eta enpresa-ekitaldi ugari egiteko, hala nola biltzarrak, kontzertuak, sari-banaketak, aurkezpenak edo hitzaldiak. Akustika ezin hobea da, eta ikus-entzunezko ekipamendu osoa, aldagelak eta itzulpen-gelak ditu. Hain zuzen, honako hauek ditu: 3 itzulpen-kabina, 2 VIP kamerino, 2 koro-kamerino.

Bastida Aretoan diseinua eta falka moduko forma nabarmentzen dira, goranzko norabideko alboko plakez apaindua. Areto honek omenaldia egiten dio hasierako alondegia egin zuen Ricardo Bastida arkitektoari. Espazioak itzulpen-, streaming- eta grabazio-ekipoa du.

Aukera-aukerakoa da jardunaldiak, prentsaurrekoak, aurkezpenak eta abar egiteko. Aretoak hall handi bat du, akreditazio-mahaia jartzeko egokia, bertarutzen direnei harrera egin eta coffe break-ak, lunchak eta abar egiteko.

# GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

218.199

ikusle

256

film programatu

11

jaialdi

4.952

lagun Golem jardueretan (128. or.)

Golem Alhóndiga zinemek 8 proiektzio-areto dituzte, eta edukiera osoa 1.246 pertsonarentzat da. Golem Zinemen programak batera uztartzen ditu zinema komertziala, interes sozialeko ziklo monografikoak eta Azkuna Zentroko ikus-entzuleen komunitate desberdinen beharrei eta interesei egokitutako saioak. Estrategia horretan, hauek nabarmentzen dira, besteak beste: igande eta jaiegunetako zinemako goizeko saioak, haurtxoak dituzten gurasoentzako saio bereziak eta haurrentzako emanaldi bereziak.



# Programazioa

2022an 256 film proiektatu dira, 7.627 saiotan. Programazio horri jaialdi, programazio berezi eta eduki alternatiboek eskaintako 229 saioak gehitu behar zaizkio.

Golem Alhóndiga zinemak funtsezko guneak dira Azkuna Zentroak programatutako jarduerak egiteko, hala nola Zinemateka. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira zikloak, Tractora Koop kolektibo egoiliarren proiektioak eta Laida Lertxundik Prototipoak programarako egindako proposamen artistikoa. Honako jaialdi hauen egoitza ere bada: FANT, Bilboko Zinemaldi Fantastikoa; Zinebi, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia; 'Film Sozialak' Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia; Zinemakumeak Gara!; Zinegoak, Bilboko Nazioarteko Gaylesbotrans Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia, Mendifilm, Sail in Tour eta elkarbizitzarako zinemaren erakustaldia; Emakumeen karabana.

Zine komertzialaz, Azkuna Zentroko Zinematekaz eta hiriko jaialdiez gain, Golem Alhóndigak programazio bereziak jarri ditu martxan aurten, aretoetako publikoa berreskuratzeko.

## Golem Alhondiga jarduerak

**Zuzendarien ziklo monografikoak:** Zuzendari handien filmografia berrikustea

**Filmak modu birtualean aurkeztea:** Aretoan proiektutako bideokonferentziei esker, sortzaileek filmak aurkeztu ahal izan dituzte.

**Golem Arte:** Zinema dokumentalaren zikloa, museo handietako barrualdeak eta historiako artista onenen lanak hurbiltzen dizkiguten film zoragarriekin.

**Golem Uda:** Udako hilabeteetako film zikloa, Zinematekaren lekukoa hartzen duena; denboraldian zehar estreinatu diren proposamenik erradikalenak sartzeko dira eta beste aukera bat ematea merezi dutenak.

**Haurrentzako Zinema (euskaraz):** Ikasleentzako zinema Itundutako goizeko saioak ikasleentzat. Euskarazko proiektioak.

**Ikasleentzako saio bereziak:** Itundutako goizeko saioak ikasleentzat. Gaztelania eta Jatorrizko bertsioko proiektioak.

**Igande eta jaiegunetako goizeko saioak:** Familia-zinemari eskaintakoak



# OSTALARITZA

Grupo Fielato da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko jatetxe-zerbitzua kudeatzen duen enpresa. Jatetxeak 4 gune eta catering zerbitzua ditu, Zentroarekin duen sinergiaren indargunea.

## Yandiola jattetxea

Bigarren solairuan dagoen jattetxeak tradizioa eta abangoardia uztartzen dituzte jakiak eskaintzen ditu, zapore klasikoak, berrikuntza-ukitu batekin, bai bilbotarrarentzat, bai sukaldaritza modernoa baina sustraiduna dastatu nahi duen bisitariarentzat.



Restaurante Yandiola

---

## Terraza

Zentroaren goialdean dago, eta hiriko lekurik pribilegiatuenetako bat da, egoera ezin hobean kokatua. Ekitaldi eta jai partikularretarako gune berezia, urte osoan zabalik.

---

## Holabar

Atarian dagoen Yandiola Taldearen bistro-a gune modernoa eta sofistikatua da, solairu bakar batean hainbat giro bereizten dituena. Eskaintza ezin hobea da eguneko edozein ordutan jateko, gosaltzeko, aperitiborako edo osasuntsu, azkar eta prezio onean jateko.



Hola Bar

---

## The Boar

Pub ingelesaren eta taberna peto-petoaren arteko erdibidean, The Boar-ek proposamen ausarta eskaintzen du, giro informalaekin, kontsumo-modu berrietara egokitua.



The Boar

# ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

## OHOREZKO PRESIDENTEA

Juan Mari Aburto Rique jn.  
Bilboko alkatea

## PRESIDENTEA

Gonzalo Olabarria Villota jn.

## PRESIDENTEORDEA

Nekane Alonso Santamaría and.

## KONTSEILARIAK

Koldo Narbaiza Olaskoaga jn.  
(EAJ-PNVren ordezkarria)

Alba Fatuarte González and.  
(EH-BILDUren ordezkarria)

Dña. Yolanda Díez Saiz  
(Socialistas Vascos PSE-EEren ordezkarria)

Carlos García Fernández jn.  
(PPren ordezkarria)

Carmen Muñoz López and.  
(Elkarrekin Bilbao-Podemos / Ezker Anitza-IU / Equo  
Berdeak-en ordezkarria)

## TOKIKO GOBERNU BATZARREKO ESKUORDETUTAKO ORDEZKARIAK:

Asier López Gutiérrez jn. (EAJ-PNV)

Francisca Iturriaga Osa jn. (EAJ-PNV)

José Luis López Bilbao jn. (EAJ-PNV)

Iratxe Portillo Zunzunegui and. (EAJ-PNV)

Ekain Rico Lezama jn. (PSE-EE)

Borja Vázquez Fontao jn. (PSE-EE)

# AZKUNA ZENTROKO TALDEA

**Fernando Pérez.** Zuzendaria

**Estibalitz Aldana.** Zuzendariaren Laguntzailea

**Rakel Esparza.** Kultur Programazioko Arduraduna

**Ainara Bilbao.** Kultura Programazio eta Hezkuntzako  
Teknikaria

**Marina Urrutikoetxea.** Kultura Programazio eta  
Hezkuntzako Teknikaria

**Iraia Olea Herrero.** Kultura Programazioko Administrazioa

**Alasne Martín.** Mediateka BBK-ko Arduraduna

**Sonia Marcos.** Mediateka BBK-ko Prozesu  
Bibliografikoetarako Teknikaria

**Itziar Ijalba.** Komunikazioko Arduraduna

**Maite Arberas.** Komunikazioko Administrazioa

**Bárbara Epalza.** Marketing Arduraduna

**Leire Sarasola Murga.** Marketineko eta Ekitaldietako  
Teknikaria

**Marina Aparicio.** Erabiltzaileen Arretarako Arduraduna

**Jorge Landa.** Zerbitzu Orokorren Arduraduna

**Koldo Elorrieta.** Aktibitate Fisikoko Arduraduna

**Iñaki Ayala.** Mantenimendu eta Logistika Arduraduna

**Sandra García.** Mantenimendu eta Logistika Teknikaria

**Unai Ugarriza.** Telekomunikazioak eta Sistemak  
Arduraduna

**Sonia del Val.** Finantza Goi-mailako Teknikaria

# Eskerrik asko!

Eskerrak eman nahi dizkiegu, lurraldearekin duten konpromiso sozialetik, laguntzen diguten erakunde pribatu eta publikoei, gizarte kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Sare irekia gara artearen bidez gizarte sortzailegoa, kritikoagoa eta anitzagoa sortzen laguntzen duen proiektu batean parte hartu nahi duten erakunde guztientzat.

## Bilboko Udala

### BABESLE ESTRATEGIKOA

Fundación BBK

### ERAKUNDE BABESLEAK

Fundación Banco Sabadell • BEAZ • Grupo Urbegi

### HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

El Correo • Deia • Berria • Gara • El País • eldiario.es • El Mundo • Periódico Bilbao • RTVE • EITB • Hamaika • Telebista • TeleBilbao • Cadena Ser • Onda Vasca • BIFM • Cactus • Noiz Agenda • Kmon • Aux Magazine • Teatron • VeryBilbao

### LAGUNAK DIREN INSTITUZIOAK

Gobierno Vasco • Diputación de Bizkaia (Bizkaiko Aldundia) • Ministerio de Cultura • AC/E (Acción Cultural Española) • British Council • Cuerpo Consular de Bilbao • Centro Checo • Embajadas de Noruega, Australia, Canadá, Estados Unidos, Francia, Irlanda, Países Bajos, Rusia, Suecia • Goethe Foundation • Institut d'Estudis Balàrics • Etxepare Euskal Institutua • Foro Cultural Austria • Goethe Institut • Institut Français • Instituto Italiano de Cultura • Japan Foundation • NORLA • Pro Helvetia • AECID • INAEM • Academia de España en Roma • Creative Europe (EU) • Comisión Europea, Next Generation

### UNIBERTSITATEAK

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco • Mondragon Unibertsitatea / Universidad de Mondragón • Universidad de Deusto • Oulu University • BCU Birmingham University • Digipen • Instituto de Estudios de Ocio • Harrobia • Saxion University of Applied Sciences • Academy for Theatre and Digitality

### LAGUNAK DIREN PROGRAMAK

ACuTe • Berbagune • Bilbao Bizkaia Design Week • Bilbao European Encounters • Bilbao Música • Bilbao Orkestra Sinfonikoa • Bilbao Proyecto Zine Eskola • Bilbao Udazkena • BIME • Dantzaldia • Dantzan Bilaka • Dantzerti • Elías Querejeta Zine Eskola • Eremuak • Euskaraldia • Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao - Zinegoak • Festival de Cine Fantástico de Bilbao - FANT • Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao - Zinebi • Film Sozialak - Festival Internacional Cine Invisible Bilbao • Gau Zuria • Globernance • Loraldia • Musika Musica • Mitusu • Zinemakumeak Gara! • Zinexit. Muestra de cine y derechos humanos • Zinemagileen artean - Caravana de cine realizado por mujeres • Zinemaldia. Festival de Cine de San Sebastián

### LAGUNAK DIREN CULTURA-ZENTROAK

Ars Electronica • Art Divas • ArtistaXArtista • Artium • CAPC Musée d'Art Contemporain de Bordeaux • Casa América • Centre de Cultura Contemporània de Barcelona - CCCB • Centro Cultural Montehermoso • Centro de Arte Dos de Mayo - CA2M • Centro Gallego de Arte Contemporáneo - CGAC • Cité de la Bande Dessinée • Collección BEEP Epson • Dansateliers • De Toneelmakerij • Det Norske Teatret • Dortmund-U • Estonian Academy of Arts • European Theatre Convention • Euskal Museo Museo Vasco • Fimoteca Vasca • Fondation Cartier • IVAM • La Casa Encendida • Landestheater Linz • Liechtenstein National Museum • L'image de Angoulême • Maison de la Littérature Québec • MARCO - "Marin Sorescu" National Theatre of Craiova • Museo de Arte Contemporáneo de Vigo • Matadero Madrid • Mercat de las Flors • MUSAC • Musée de Picardie • Museo de Bellas Artes de Bilbao • Museo de Reproducciones de Bilbao • Museo Guggenheim Bilbao • Museo Oteiza • Museu d'Art Contemporani de Barcelona - MACBA • Red Española de Teatros • San Telmo Museoa • Sarea • Schauspielhaus Graz • SFMoma • Slovene National Theatre Nova Gorica • Tabacalera - Promoción del Arte • Tabakalera • Teatro Arriaga • Théâtre de Liège • Van Abbemuseum • ZKM Zentrum Für Kunst und Medien

### ENPRESA ESLEIPENDUNAK

Artes Graficas Irala S.L. • Binario libros S.L. • Bizkaiko Elkar S.L. • Deusto Seidor S.A. • Emtesport S.L. • George y Mildred Sociedad Coop. • Giroa S.A.U. • i2C Internet S.L. • Ibermatica S.A. • Imprenta Garcinuño S.L. • Lanalden S.A. • Louise Michel Liburuak • Portal 71 Producciones Culturales S.L. • Sedena S.L. • Teknei Digital S.A.U. • Telesonic S.A.U. • Urbegi Servicios Auxiliares S.L.U. • UTE Alta Seguridad SA, Alse Serv. Aux. SL y Sekoop. • Virginia Knorr Comunicacion S.L.s.u. • Zosmamedia S.L.